

Doktore-tesia

HEGOALDEKO LEHEN HEZKUNTZA-IRAKASLEEN ELEANIZTASUN- ETA  
METODOLOGIA-USTEAK

---

PRIMARY SCHOOL TEACHERS' BELIEFS ABOUT MULTILINGUALISM AND  
METHODOLOGIES IN HEGOALDE

Doctoral dissertation

Egilea: Mikel Gartziarena San Policarpo

Urtea: 2021

Zuzendariak: Jon Altuna Urdin eta Durk Gorter doktoreak

Doktorego-programa: Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea

Donostian, 2021ean

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Hezkuntza Zientzien Sailean, aurkeztutako doktorego-tesia. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea Doktorego-programa.

A dissertation submitted to the Department of Educational Sciences at the University of the Basque Country (UPV/EHU). Faculty of Education, Philosophy and Anthropology, Doctoral program of Education: School, Language and Society.

1

---

\*Azaleko eta kontrazaleko irudiak eta diseinua Laura Maioz Basterretxearen jabetza dira.



## ESKER ONAK

Lehenengo esker-hitzak Jon eta Durk tesi-zuzendarientzat dira, ez soilik tesi-ikerketaren eginbidean giltzarri izan zaretelako, baizik eta tesiak iraun duen honetan hazten eta aberasten lagundu didazuelako. Urte askoan iraungo duela, eskerrik asko!

Eskerrik beroenak tesi honen protagonistei: Lehen Hezkuntzako irakasleei, etorkizuneko irakasle eta unibertsitate-irakasleei. Ezinbestekoa izan da zuen parte-hartzea, bereziki lau lurraldeetako talde-elkarrizketetan bolondres azaldu zinetenona. Izugarri eskuzabal jokatu duzue, zuen denbora urriak eta kemenak errearen balioa du niretzat. Mila esker Laura Maioz Basterretxea artista eta jakitunari, tesiaren azala zure eskuen marrazki ederrekin jantzi eta are bereziago bilakatu izanagatik.

Euskal Herriko Unibertsitateari, Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea doktorego-programari eta Teoria eta Historia Sailari. Baita Carlos Santamaria eraikineko eta HABE Liburutegiko langileei ere, emandako baliabide eta laguntza guztiagatik.

Bihotzez, mila esker Renoko University of Nevadan zuen etxeko ateak ireki zenizkidaten lagunoi: Xabierri; Iñaki eta Eliri; Kate eta Maniri; Josebari; Larraitz eta Juani; Kerriri, Edurneri, Cameroni, Marshari, Nereari, Florenceri, Enekeri, Monicari eta Haritz. Jakin nireak beti egongo direla zuentzat parez pare irekirik. Mila esker egonaldi zinez ahaztezinagatik.

Eskerrik asko DREAM ikerketa-taldeari eta Jasoneri ateak zabaldu zenizkigulako. Eskerrik asko guztioi eta, harrezkero, modu batean ala bestean denbora gehiago ala gutxiago elkarrekin izan garen ikertaldekiei: Eliri, Alaitzi, Mariari, Oihanari, Leireri, Artzairi. Batez ere Karini, Uxueri eta Eiderri elkarrekin kobazuloan emandako ordu luzeak laburtu eta goxatu izanagatik. Eta, nola ez, masterrean elkarrekin topo egin eta maratoni itxurako abenturan bidelagun aparta izan dudana leitzarrari. Mila esker, Nerea, bene-benetan!

Lerro-hondarretan, mila-mila esker ondoan izan zareten lagun min eta familiari: ama eta aitari, Irati eta Beñati eta aitona-amonei. Tesiaren oihanean, aurreko guztietan bezala, ondoan izan zaretelako nekaezin. Ezinbesteko iparrorratz zarete bidea egin nahi duenarentzat. Eta eskerrak zuri bereziki, Eukene, zu gabe aski ezberdin, akaso gertaezin, izango litzatekeen tesi honengatik. Buru-bihotzean beti. Eskerrik asko.



## LABURPENA

Literatura zientifikoak azpimarratzen du irakasle-usteak ikertzea erabakigarria dela hizkuntza-irakaskuntzaren atzeko planoan ari denaz ohartzeko eta hizkuntzekiko joerak hautemateko. Usteak ezagutzea irakaslea ulertzea da, haren jarduna, hezkuntza-ikuspegia eta testuingurua. Usteak, baina, ez dira hutsezinak, erpin ugariak baizik. Eta, hala eta guztiz ere, akademiak giza jarreraren eta irakas-jardunaren ispilu fidagarri bailiran ulertzen ditu. Hala, ikerlanak Lehen Hezkuntzako irakasleen, etorkizuneko irakasleen eta unibertsitateko irakasleen usteak aztertu eta deskribatuko ditu Euskal Herriko bi hezkuntza-sistemaren jokalekuan: Euskal Autonomia Erkidegokoan eta Nafarroako Foru Komunitatekoan.

Eskuarteko doktorego-tesiaren helbururik behinena da irakasleen eleaniztasun- eta metodologia-usteak ezagutu eta horietatik guztietatik esanguratsuenak identifikatzea. Ikerlanaren euskarri teorikoak Focus on Multilingualism eredu eta susperraldian dauden ikuspegi eleanitzak dira, hizkuntzen arteko mugak malgu ulertu eta, aldi berean, euskararen ardatzen direnak. Hizkuntzen ikuspegi integratzaile eta abegikorak zutabe dira lan honetan. Hizkuntzen ikuspegi tradizionaletik aldentzen da eta komunikazio-ikuspegira hurbiltzen, eleaniztunaren ezaugarriak hizkuntzak ikasteko aukera gisa ulertzen baititu. Eleaniztunaren hizkuntza-ezagutzak baliatzen dituzten teoriak oinarri dira hizkuntzak eraginkortasun handiagoarekin irakasteko eta errealitatetik gertuagoko hizkuntza hauspotzeko. Metodologiari dagokionez, ikerlanak alor kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartzen ditu, nahiz eta lehenengoaren presentzia handiagoa izan bigarrenarena baino. Horwizen eta ikertaldeko tesilari izandakoen testak oinarri, berariaz diseinatutako online testa banatuko zaie hiru irakasle-taldee, eta, orotara, kasik 1100 irakasleren erantzunak bilduko dira. Ondoren, lau talde-elkarrizketa antolatuko dira, lurralde historiko bakoitzean bana.

Emaitzek ondorio anitz ekarriko dute, eta azpimarragarrienek erakutsiko dute irakasleek uste positiboak dituztela eleaniztasunaren eta metodologia modernoaren alde. Erro sakonak dituzte euskararen aldeko usteak, eta irakasleek soilik ulertuko dute eleaniztasuna euskara baldin bada ardatz. Era berean, hizkuntza ororen mintzamina lantzen lagunduko dieten metodologiaren aldarrak egingo dute irakasleek, hizkuntzaren ezagutzatik eta formatik ahozkorako eta erabilerarako jautsian prestutasuna erakutsirik. Irakasleen ustea da ahozko jarduna hizkuntza ororen bihotza dela. Irakasleen metodologia-usteak modernoak dira, eta ikuspegi komunikatibotik edaten dute; edonola ere, nahi baino gehiago darabiltzate metodologia tradizionalak. Doktorego-tesi honek osagai aproposak identifikatuko ditu irakasleak jardun-eleaniztunetan eta ahozkotasunean oinarritutako metodologietan trebatzeko, etorkizunari begira euskal hezkuntzan lagungarri izan daitezkeenak.

## ABSTRACT

In the scientific literature about education the importance of investigating teachers' beliefs is emphasized in order to understand what is going on in language teaching and to perceive the most important tendencies towards languages. To know the beliefs is to understand the teachers, their performance, their educational vision and their context. Beliefs, however, are only one of many perspectives, but they can be regarded as a mirror of attitudes and teaching practices. This study will analyze and describe the beliefs of the in-service teachers in Primary Education, the future teachers doing the degree at university and the university teachers teaching in the educational systems of the Basque Autonomous Community and the Foral Community of Navarre.

The main objective of the doctoral thesis is to detect and understand beliefs of teachers about multilingualism and teaching methodologies and to identify the most significant patterns. The theoretical base of the study is the Focus on Multilingualism model, which implies a multilingual view of languages, and which assumes in soft boundaries between languages while keeping the focus on the Basque language. The integrative approach to languages is the basis of this investigation and it moves away from a traditional vision of languages and comes closer to communicative and multilingual approaches as it considers the characteristics of multilingualism opportunities to learn languages. Theories that value the use of the learners' linguistic knowledge are the basis for teaching more effectively and for teaching approaches which are closer to the multilingual speech.

In terms of methodology, the study is mainly quantitative, but qualitative data is also present. Based on several existing questionnaires, the online questionnaire gathered the responses from almost 1,100 teachers. As a second step, four focus group discussions were organized with in-service teachers, one in each historical territory. The results are discussed extensively, and the most remarkable show that teachers have positive beliefs in favor of multilingualism and of modern methodologies. The convictions in favor of the Basque language are deeply rooted, and these teachers seem to consider multilingualism only positive if the focus remains on the Basque language. Teachers claim that they prefer methodologies that help them to work on the oral aspect of languages, and that support a switch from the knowledge to the actual use of the language. Teachers believe that oral activity is at the heart of any language. Teachers beliefs about methodologies are mostly modern and from a communicative perspective, although they admitted to using more often traditional methodologies than they wanted. This doctoral thesis identifies a need to train teachers in multilingual approaches and speaking-based methodologies that can be helpful for the future of teaching languages in the Basque schools.



# AURKIBIDEA

ESKER ONAK .....	i
LABURPENA .....	iii
ABSTRACT .....	iv
AURKIBIDEA.....	v
IRUDIEN ZERRENDA .....	viii
TAULEN ZERRENDA .....	x
SARRERA.....	17
<b>1. USTEAK.....</b>	<b>21</b>
1.1. <i>Usteak definitzen</i> .....	21
1.2. <i>Usteen ikerketa-ikuspegiak bigarren hizkuntzaren jabekuntzan</i> .....	24
1.3. <i>Hizkuntza-irakasleen usteak eta ezagutzak</i> .....	25
1.3.1. <i>Hizkuntza-irakasleen usteak eta jardunak</i> .....	28
1.4. <i>Usteen aldaketak: eragile gakoak</i> .....	34
<b>2. ELEANIZTASUNA.....</b>	<b>41</b>
2.1. <i>Eleaniztasuna definitzen</i> .....	42
2.2. <i>Elebitasunaren sailkapena</i> .....	46
2.3. <i>Ikuspegi bilakaera: ikuspegi frakzionaletik, holistikora</i> .....	50
2.4. <i>Eredu eta teoria eleanitzak</i> .....	55
2.4.1. <i>Focus on Multilingualism (Ikuspegi Eleanitza)</i> .....	59
2.5. <i>Eleaniztasunaren abantailak</i> .....	61
2.5.1. <i>Komunikazio-onurak</i> .....	63
2.5.2. <i>Kultura-onurak</i> .....	65
2.5.3. <i>Kognizio-onurak</i> .....	65
<i>Gaitasun metalinguistikoa</i> .....	68
<i>Pentsamendu sortzailea</i> .....	70
<i>H3-ren jabekuntza</i> .....	72
<b>3. HIZKUNTZAK IRAKASTEKO METODOLOGIAK.....</b>	<b>77</b>
3.1. <i>Hastapenak eta bilakaera</i> .....	77
3.1.1. <i>Metodoak, teknikak, printzipioak eta ikuskerak</i> .....	80
3.2. <i>Teorietan oinarritutako irakas-metodologiaren proposamena</i> .....	82
3.2.1. <i>Hizkuntzaren teoria</i> .....	82
3.2.2. <i>Ikaskuntzaren teoria</i> .....	85

3.3.	<i>Eleaniztasunean irakasteko eredu eta metodologiak</i> .....	87
<b>4.</b>	<b>HEGOALDEKO EGOERA LINGUISTIKOA ETA HEZKUNTZA-SISTEMAK</b> .....	<b>93</b>
4.1.	<i>Euskal Autonomia Erkidegoa</i> .....	95
4.1.1.	Hezkuntza-sarea eta -ereduak .....	95
4.1.2.	Hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak.....	98
4.1.3.	Heziberri hezkuntza-plana.....	104
4.2.	<i>Nafarroako Foru Komunitatea</i> .....	106
4.2.1.	Hezkuntza-sarea eta -ereduak.....	106
4.2.2.	Hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak.....	108
4.2.3.	Hezkuntza-plana.....	113
<b>5.</b>	<b>METHODOLOGY</b> .....	<b>115</b>
5.1.	<i>Research questions and objectives</i> .....	115
5.2.	<i>Research design</i> .....	117
5.3.	<i>The samples</i> .....	117
5.3.1.	In-service teachers.....	118
5.3.2.	Future teachers.....	121
5.3.3.	University teachers.....	123
5.4.	<i>Data collection methods</i> .....	125
5.4.1.	Questionnaires .....	125
5.4.2.	Focus Group Discussions .....	128
5.5.	<i>Data analysis</i> .....	129
5.5.1.	Codification and analysis of quantitative data .....	129
5.5.2.	Codification and analysis of qualitative data .....	131
5.6.	<i>Research validation and reliability: triangulation</i> .....	131
5.7.	<i>Ethical issues</i> .....	132
<b>6.</b>	<b>RESULTS</b> .....	<b>133</b>
6.1.	<i>Beliefs about multilingualism</i> .....	133
6.1.1.	In-service teachers' beliefs about multilingualism .....	133
6.1.1.1.	Descriptive analysis of in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	134
6.1.1.2.	The relationship between background variables and in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	135
6.1.2.	Future teachers' beliefs about multilingualism.....	145
6.1.2.1.	Descriptive analysis of future teachers' beliefs about multilingualism .....	145
6.1.2.2.	The relationship between background variables and future teachers' beliefs on multilingualism .....	146
6.1.3.	University teachers' beliefs about multilingualism .....	156
6.1.3.1.	Descriptive analysis of university teachers' beliefs on multilingualism .....	156
6.1.3.2.	The relationship between background variables and university teachers' beliefs on multilingualism .....	157
6.1.4.	Comparison of the three groups .....	160
6.1.4.1.	Descriptive analysis of teachers' beliefs on multilingualism .....	160

6.1.4.2.	The relationship between background variables and teachers' beliefs on multilingualism .....	165
6.1.4.3.	The relationship between the three groups' means on the variable teachers' beliefs about multilingualism.....	167
6.2.	<i>Beliefs about language teaching methodologies</i> .....	169
6.2.1.	In-service teachers' beliefs about language teaching methodologies .....	169
6.2.1.1	Descriptive analysis of in-service teachers' beliefs about language teaching methodologies.....	169
6.2.1.2.	The relationship between background variables and in-service teachers' beliefs on language teaching methodologies .....	173
6.2.1.3.	In-service teachers' beliefs on the best language teaching methodologies .....	177
6.2.1.4.	In-service teachers' most widely used methodologies .....	180
6.2.2.	Future teachers' beliefs about language teaching methodologies .....	182
6.2.2.1.	Descriptive analysis of future teachers' beliefs on language teaching methodologies 182	
6.2.2.2.	The relationship between background variables and future teachers' beliefs on language teaching methodologies .....	185
6.2.2.3.	Future teachers' beliefs on the best language teaching methodologies .....	193
6.2.3.	University teachers' beliefs about language teaching methodologies .....	195
6.2.3.1.	Descriptive analysis of university teachers' beliefs on language teaching methodologies.....	195
6.2.3.2.	The relationship between background variables and university teachers' beliefs on language teaching methodologies .....	198
6.2.3.3.	University teachers' beliefs on the best language teaching methodologies .....	203
6.2.3.4.	University teachers' most widely used methodologies .....	205
6.2.4.	Comparison of the three groups .....	207
6.2.4.1.	Descriptive analysis of teachers' beliefs on language teaching methodologies .....	207
6.2.4.2.	The relationship between background variables and teachers' beliefs on language teaching methodologies .....	223
6.2.4.3.	The relationship between means on teachers' beliefs on language teaching methodologies.....	225
6.2.4.4.	Correlations between teachers' beliefs on multilingualism and language teaching methodologies .....	226
<b>7.</b>	<b>DISCUSSION AND CONCLUSIONS</b> .....	<b>229</b>
7.1.	<i>Teachers' beliefs on multilingualism</i> .....	229
7.2.	<i>Teachers' beliefs on language teaching methodologies</i> .....	242
7.3.	<i>Research limitations and future perspectives</i> .....	254
	<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....	<b>257</b>
	<b>APPENDICES</b> .....	<b>277</b>

# IRUDIEN ZERRENDA

<b>Irudia 1.1</b> Usteen eraldaketarako eredua: ALACT .....	37
<b>Irudia 4.1</b> Euskal Herriko lurralde historikoak Europako mapan .....	93
<b>Irudia 4.2</b> Hezkuntza-sistemaren organigrama etapaz etapa.....	94
<b>Irudia 4.3</b> Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazio-datuak ereduka.....	96
<b>Irudia 4.4</b> Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazio-datuak ehunekotan eta ereduka .....	97
<b>Irudia 4.5</b> Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazio-datuak sareka .....	98
<b>Irudia 4.6</b> Euskal hiztunek adinaren arabera (1991 eta 2016 urteak).....	99
<b>Irudia 4.7</b> Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen jarrera euskararekiko (1991 eta 2016).....	100
<b>Irudia 4.8</b> Euskara eta erabilera: Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleria lurraldeka (1991, 2001, 2011 eta 2016).....	101
<b>Irudia 4.9</b> Euskara erdararen pare edo gehiago darabiltenen bilakaera, adin-taldeen arabera eta ehunekotan .....	102
<b>Irudia 4.10</b> Oinarrizko hezkuntza-kurrikuluaren bizkarrezurra.....	105
<b>Irudia 4.11</b> Nafarroako zonifikazio linguistikoa .....	106
<b>Irudia 4.12</b> Nafarroako ikasleen eskolatzeko-erdua 2014-2018 artean.....	107
<b>Irudia 4.13</b> Nafarroako ikasleen matrikulazioa sarearen arabera .....	108
<b>Irudia 4.14</b> Euskara-ezagutza zonifikazioaren arabera .....	109
<b>Irudia 4.15</b> Euskal hiztunak adinaren arabera Nafarroan (1991n eta 2016n) .....	110
<b>Irudia 4.16</b> Euskara erdararen pare edo gehiago darabiltenen kopurua ehunekotan, zonifikazioaren arabera (1991, 2001, 2011 eta 2016).....	111
<b>Irudia 4.17</b> Euskara erdararen pare edo gehiago darabiltenen bilakaera ehunekotan, adin-taldeen arabera .....	112
<b>Irudia 4.18</b> Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako kurrikulum-edukiak arloka .....	113
<b>Figure 5.1</b> In-service teachers' self-reported language level.....	120
<b>Figure 5.2</b> Future teachers' self-reported language level.....	123
<b>Figure 5.3</b> University teachers' self-reported language level .....	125
<b>Figure 6.1</b> The 11 items on multilingualism for the in-service teachers.....	134
<b>Figure 6.2</b> The 11 items on multilingualism for the future teachers .....	145
<b>Figure 6.3</b> The 11 items on multilingualism for the university teachers.....	156
<b>Figure 6.4</b> The 11 items on multilingualism for the comparison of the three groups .....	161
<b>Figure 6.5</b> The 25 items on methodologies for the in-service teachers .....	170

<b>Figure 6.6</b> In-service teachers' beliefs on the best language teaching methodologies .....	178
<b>Figure 6.7</b> In-service teachers' most widely used methodologies .....	180
<b>Figure 6.8</b> The 25 items on methodologies for the future teachers .....	182
<b>Figure 6.9</b> Future teachers' beliefs on the best language teaching methodologies .....	193
<b>Figure 6.10</b> The 25 items on methodologies for the university teachers .....	196
<b>Figure 6.11</b> University teachers' beliefs on the best language teaching methodologies. ....	203
<b>Figure 6.12</b> University teachers' most widely used methodologies .....	205
<b>Figure 6.13</b> The 25 items on methodologies for the comparison of the three groups.....	208

# TAULEN ZERRENDA

<b>Taula 1.1</b> Usteen ezaugarriak eta Woods eta Çakiren ereduak .....	26
<b>Taula 1.2.</b> Uste-motak: norberaren eraginkortasunean eta testuinguruan oinarritutakoak.....	28
<b>Taula 2.1.</b> Elebitasuna definitzen: adituak eta adierak .....	45
<b>Taula 2.2.</b> Elebitasunaren eta ezaugarrien araberrako sailkapena .....	47
<b>Table 5.1</b> In-service teachers' language of instruction .....	120
<b>Table 6.1</b> ANOVA summary of the background variables related to the in-service teachers' beliefs on multilingualism.....	136
<b>Table 6.2</b> Descriptive analysis of the variable age influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	137
<b>Table 6.3</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable age influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism.....	137
<b>Table 6.4</b> Descriptive analysis of the variable mother tongue influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism.....	138
<b>Table 6.5</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable mother tongue influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	138
<b>Table 6.6</b> Descriptive analysis of the variable educational model influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism.....	139
<b>Table 6.7</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable educational model influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	139
<b>Table 6.8</b> Descriptive analysis of the variable current educational model teaching in influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	140
<b>Table 6.9</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable educational model teaching in influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	140
<b>Table 6.10</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: Basque influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	141
<b>Table 6.11</b> Dunn-Bonferroni post hoc comparison of the variable self-reported language level: Basque influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism.....	141
<b>Table 6.12</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: Spanish influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	141
<b>Table 6.13</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable self-reported language level: Spanish influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	142
<b>Table 6.14</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: English influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	143

<b>Table 6.15</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable self-reported language level: English influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	143
<b>Table 6.16</b> Descriptive analysis of the variable language of instruction influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	144
<b>Table 6.17</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable language of instruction influencing in-service teachers' beliefs on multilingualism .....	144
<b>Table 6.18</b> ANOVA summary of the background variables related to the future teachers' beliefs on multilingualism.....	146
<b>Table 6.19</b> Descriptive analysis of the variable age influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	147
<b>Table 6.20</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable age influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	147
<b>Table 6.21</b> Descriptive analysis of the variable mother tongue influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	148
<b>Table 6.22</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable mother tongue influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	148
<b>Table 6.23</b> Descriptive analysis of the variable university influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	149
<b>Table 6.24</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable university influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	149
<b>Table 6.25</b> Descriptive analysis of the variable practicum: educational network influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	150
<b>Table 6.26</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable practicum: educational network influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	150
<b>Table 6.27</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: Spanish influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	151
<b>Table 6.28</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable self-reported language level: Spanish influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	151
<b>Table 6.29</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: English influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	152
<b>Table 6.30</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable self-reported language level: English influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	152
<b>Table 6.31</b> Descriptive analysis of the variable degree influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	153
<b>Table 6.32</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable degree influencing future teachers' beliefs on multilingualism.....	153

<b>Table 6.33</b> Descriptive analysis of the variable university academic year influencing future teachers' beliefs on multilingualism .....	154
<b>Table 6.34</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable university academic year influencing future teachers' multilingual beliefs .....	154
<b>Table 6.35</b> ANOVA summary of the background variables related to the university teachers' beliefs on multilingualism.....	158
<b>Table 6.36</b> Descriptive analysis of the variable mother tongue influencing university teachers' multilingual beliefs .....	158
<b>Table 6.37</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable mother tongue influencing university teachers' multilingual beliefs .....	159
<b>Table 6.38</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: Basque influencing university teachers' beliefs on multilingualism .....	159
<b>Table 6.39</b> Dunn-Bonferroni post hoc comparison of the variable self-reported language level: Basque influencing university teachers' beliefs on multilingualism .....	160
<b>Table 6.40</b> ANOVA summary of the background variables related to the <i>teachers' beliefs on multilingualism</i> .....	165
<b>Table 6.41</b> Descriptive analysis of the three groups' means on teachers' beliefs about multilingualism .	167
<b>Table 6.42</b> ANOVA summary of the background variables related to the in-service teachers' beliefs on methodologies .....	173
<b>Table 6.43</b> Descriptive analysis of the variable current educational teaching network influencing in-service teachers' beliefs on methodologies .....	174
<b>Table 6.44</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable current educational teaching network influencing in-service teachers' methodological beliefs .....	174
<b>Table 6.45</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: English influencing in-service teachers' beliefs on methodologies .....	175
<b>Table 6.46</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable self-reported language level: English influencing in-service teachers' methodological beliefs.....	175
<b>Table 6.47</b> Descriptive analysis of the variable language of instruction influencing in-service teachers' beliefs on methodologies.....	176
<b>Table 6.48</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable language of instruction influencing in-service teachers' methodological beliefs.....	176
<b>Table 6.49</b> Descriptive analysis of the variable experience years influencing in-service teachers' beliefs on methodologies .....	177
<b>Table 6.50</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable experience years influencing in-service teachers' methodological beliefs .....	177



<b>Table 6.51</b> Descriptive analysis of the statistical differences between the mean on methodologies and the best language teaching methodologies for the in-service teachers.....	179
<b>Table 6.52</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between the mean and the best language teaching methodologies for the in-service teachers.....	179
<b>Table 6.53</b> Descriptive analysis of the statistical differences between the mean on methodologies and the most used methodologies for the in-service teachers.....	181
<b>Table 6.54</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between the mean on methodologies and the most used methodologies for the in-service teachers.....	181
<b>Table 6.55</b> ANOVA summary of the background variables related to the future teachers' beliefs on methodologies.....	185
<b>Table 6.56</b> Descriptive analysis of the variable sex influencing future teachers' beliefs on methodologies.....	186
<b>Table 6.57</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable sex influencing future teachers' methodological beliefs.....	186
<b>Table 6.58</b> Descriptive analysis of the variable age influencing future teachers' beliefs on methodologies.....	186
<b>Table 6.59</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable age influencing future teachers' methodological beliefs.....	187
<b>Table 6.60</b> Descriptive analysis of the variable university influencing future teachers' beliefs on methodologies.....	188
<b>Table 6.61</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable university influencing future teachers' methodological beliefs.....	188
<b>Table 6.62</b> Descriptive analysis of the variable practicum: educational network influencing future teachers' beliefs on methodologies.....	189
<b>Table 6.63</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable practicum: educational network influencing future teachers' methodological beliefs.....	189
<b>Table 6.64</b> Descriptive analysis of the variable self-reported language level: Spanish related to future teachers' beliefs on methodologies.....	190
<b>Table 6.65</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable self-reported language level: Spanish influencing future teachers' methodological beliefs.....	190
<b>Table 6.66</b> Descriptive analysis of the variable degree influencing future teachers' beliefs on methodologies.....	191
<b>Table 6.67</b> Dunn-Bonferroni post hoc comparison of the variable degree influencing future teachers' methodological beliefs.....	191
<b>Table 6.68</b> Descriptive analysis of the variable university academic year influencing future teachers' beliefs on methodologies.....	192

<b>Table 6.69</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable university academic year influencing future teachers' methodological beliefs.....	192
<b>Table 6.70</b> Descriptive analysis of the statistical differences between the mean and the best language teaching methodologies choice for the future teachers .....	194
<b>Table 6.71</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between the mean and the best language teaching methodologies for the future teachers.....	194
<b>Table 6.72</b> ANOVA summary of the variables for the university teachers' beliefs on methodologies .....	199
<b>Table 6.73</b> Descriptive analysis of the variable mother tongue influencing university teachers' beliefs on methodologies .....	199
<b>Table 6.74</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable mother tongue influencing university teachers' methodological beliefs .....	200
<b>Table 6.75</b> Descriptive analysis of the variable university influencing university teachers' beliefs on methodologies .....	200
<b>Table 6.76</b> Tukey HSD post hoc comparison of the variable university influencing university teachers' methodological beliefs .....	201
<b>Table 6.77</b> Descriptive analysis of the variable language of instruction influencing university teachers' beliefs on methodologies .....	202
<b>Table 6.78</b> Tukey HSD post hoc comparison of the language of instruction influencing university teachers' methodological beliefs .....	202
<b>Table 6.79</b> Descriptive analysis of the statistical differences between the mean on the beliefs and the best language teaching methodologies for the university teachers.....	204
<b>Table 6.80</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between the mean on the beliefs and the best methodologies for the university teachers .....	204
<b>Table 6.81</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between the mean and the most used methodologies for the university teachers .....	206
<b>Table 6.82</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between the mean and the most used methodologies for university teachers.....	206
<b>Table 6.83</b> ANOVA summary of the background variables for the teachers' beliefs on methodologies ...	223
<b>Table 6.84</b> Descriptive analysis of the statistical differences between teachers' beliefs on language teaching methodologies .....	225
<b>Table 6.85</b> Tukey HSD post hoc comparison of the statistical differences between teachers' beliefs on language teaching methodologies.....	225
<b>Table 6.86</b> Correlation analysis between in-service teachers' beliefs on multilingualism and beliefs on language teaching methodologies.....	226
<b>Table 6.87</b> Correlation analysis between future teachers' beliefs on multilingualism and beliefs on language teaching methodologies.....	227

<b>Table 6.88</b> Correlation analysis between future teachers' beliefs on multilingualism and beliefs on language teaching methodologies.....	227
--	-----



## SARRERA

### *Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen*

Old Basque proverb

Gaurko Euskara Batuan: “Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen” (“No moss is attached to the rolling stone”). Atsotitzak ez dio gezurrik; eta galdu ez bada, oraindik ere baliagarri zaigun egia handia gorde duelako da, XXI. mendeko errealitate berezi, zenbaitetan arrotz, eta erronkaz gainezka begitantzen zaigun honetan. Hezkuntzak ezinbestean behar du ibaiko harri izan; eta euskal hezkuntzak mendi-erreka biziaren hauspoaren beharra du goroldiorik ager ez dakion. Abangoardiaren eta berrikuntzaren urek ezinbestean busti eta higitu behar dute euskal hezkuntza, harri zizelkatu borobila itsasoko uretan murgil dadin. Bidaia horretan, ezinbestekoa da unibertsitatearen ikerketa-lana, eta honako doktorego-tesiak xede du gure hezkuntzak hartu beharko dituen zenbait bihurtzune lanbrotsu nolabait garbitzea, harriak bere bideari eutsi diezaion.

Itsas zabalean galdutako eskifaia izango bagina eta ikerketaren berri telegrafo bidez eman beharko bagenu, honako hiru hitz-gakoetan laburbil genezake esku arteko tesia: irakasle-usteak, eleaniztasuna eta irakas-metodologiak. Gizakiaren berezko izaera da errealitatea hautematea. Labur bezain zabar esan dezakegu identifikazio-lan horretan sortzen direla usteak, ondoren gizataldean amankomunean partekatzeko eta ondorengoei transmititzeko. Katea estatiko irudika bagenezake ere, transmisioaren azken katebegia ez da inolaz ere zurruna, higiezina; aitzitik, aurreko usteak berresterakoan edo horiek berrantolatzean mugimendu hautemanezina dago, usteen transmisioan eragina dutenak. Dialektika horretan, Joxerra Garziaren, euskal idazle, pentsalari eta EHUko irakasle izandakoaren, aipua ezin egokiagoa da usteen biziraupena eta egokitze gaitasuna ulertzeko: “tradizioa gurtu baino: egurtu”. Paradoxa dirudien arren, erabat zuzena da; izan ere, nahiz eta lehen begi kolpean kontrakoa iradoki, usteen berritze beharra islatzen du. Usteek asko dute tradiziotik eta kolektibotik. Usteek tradizioaren esentzia ordezkatzeko luketen gisa berean, horien eguneratze-prozesua ezagutu eta deskribatzea giltzarri da ganorazko urratsak egin ahal izateko. Eta horixe da

esku arteko doktorego-tesiaren goiburua: irakasleen eleaniztasun- eta metodologia-usteak behatu eta deskribatzea.

Irakasleen usteak ezagutzea haien balorazio, juzgu eta irakas-jardunak hobeto ulertzea dakar. Usteak aski konplexu dira, zenbaitetan ere aski nahasgarri; halere, esan daiteke hezkuntzaren oinarri-oinarriko zutabe oharkabekoak direla, horien gainean sostengatzen baita irakaskuntza. Esku arteko ikerlanak bi habe argitzeko helburua du: eleaniztasunarena eta metodologiarena. Batetik, eleaniztasunarena kontzeptu ezagun bezain landua dugu gurean eta, alor akademikoari dagokionez, herri-mailan eta nazioartean aski esanguratsuak diren ekarpenak egin dituzte Cenoz eta Gorter doktoreek. Euskara ardatz duen ikuspegi eleanitza dugu hizpide, eta lan honek irakasleek hizkuntzei atxikitako usteak neurtzen ditu, hizkuntzak ikasteko zailtasunarekin loturiko usteak, hizkuntzaren garrantziarekikoak eta hirugarren hizkuntza ikasteak onurak dakarzkion euskarari ala, kontrara, eraginak kaltegarriak ote diren, besteak beste. Era berean, elebitasunaren eta hirueletasunaren inguruko uste esanguratsuenak biltzen ditu honako ikerlanak, fokua jarririk Euskal Herriko hezkuntzaren ezaugarrietan. Bestetik, hizkuntzak irakasteko metodologietan, bi arretagune ditugu: bat, irakasle-usteak metodologia moderno eta tradizional ertzen artean non kokatzen diren; eta bi, ze uste zehatz dituzten hizkuntzen irakaskuntzari buruz, hots, ze ezaugarri diren adostasun-mailarik handiena eta txikiena dutenak.

Ikerketa izaera-bikoa da: esploratzailea eta deskribatzailea. Adierек dioten moduan, tesi-ikerketaren jomuga da irakasleen usteak identifikatzea eta horiek xehe-xehe deskribatzea. Lehen ikerketa honek hezkuntzaren alor txiki bat deskubritzea ahalbidetzen du; eta etorkizuneko ikerketek ikertutako alorra sakondu eta ikerketa-eremua zabalduko lukete. Irakasle-usteen argazkia egitea ahalbidetzen du tesiak, hori bai, doktorego-tesi batek dituen muga eta aukera guztiekin. Izan ere, irakasleak ados daude, euskara ardatz, eleaniztasunean oinarritutako metodologia aurrerazale eta ahozkoitasunaren aldeko egitasmo nahiz apustu sendoak egitearekin.

Tesiaren mamiari ekin aurretik, **egiturari** helduko diogu ondorengo lerroetan. Hasteko, nazioarteko tesia izaki, tesia ingelesez idatzia da, halere, marko teorikoa euskaraz idatzi da; metodologia, emaitzak eta ondorioak, aldiz, ingelesez. Lehenengo atalak eleaniztasunaren eta metodologiaren inguruko zehaztapen nagusiak, teoriak eta ikerketa

azpimarragarrienak biltzen ditu. **Marko teorikoa**, era berean, lau ataletan banatuta dago. **Lehenengoa** ustei buruzkoa da. Bertan, usteak definituko dira, ikerketa-ikuspegi bereizgarrienak aitatu, usteen eraldaketei buruzko ikerketak ekarriko eta, azkenik, usteak eta jardunak konparatzen dituzten ikerketak azalduko dira.

**Bigarren** atalak eleaniztasuna du hizpide. Lehenik eta behin, adiera definituko da hainbat adituren definizioak ekarri. Ondoren, elebitasunaren inguruko sailkapen bat osatuko da ikerlari ezberdinen ekarpenekin. Hirugarren azpiatalean, eleaniztasunaren ikuspegi frakzionala izango dugu mintzagai, eta laugarrenean hizkuntzen ikuspegi holistikorako eta eredu eleanitz berritzaileetarako jauziari buruz idatziko da. Azken azpiatala eleaniztasun-abantailei buruz mintzatuko gara, zehazki, komunikazio-, kultura- eta kognizio-onurei buruz.

**Hirugarren** atala hizkuntzak irakas-metodologiei buruzkoa da. Metodologiaren hastapenari eta bilakaerari buruz hasiko da testua. Jarraian, bi teoria nagusitan, hizkuntzarenean eta ikaskuntzarenean, ardaztutako irakas-metodologiaren proposamena emango da, eta hirugarren eta azken azpiatalean ikuspegi eleanitza duten eredu eta metodologiak azalduko dira.

**Laugarren** atala marko teorikoaren azkena izango da. Horretan, Hegoaldeko egoera linguistikoei buruzko jakingarriak emango dira, hala nola, hezkuntza-sareei, -ereduei eta hizkuntza-ezagutzei, -jarrerei eta erabilerari buruzko datuak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean diren hezkuntza-planen ildoak azalduko dira.

**Bosgarren** atalean **metodologiari** buruz arituko gara. Bertan partekatuko dira tesi-ikerketaren helburu eta ikergalderak, baita ikerketa-diseinuaren tasun nagusienak ere. Ondoren, laginari buruzko datuak emango dira, eta analisisian erabilitako aldagai askeak eta menpekoak deskribatuko. Datuak jasotzeko erari buruz ere mintzatuko gara, eta azalpenak emango dira datu kualitatiboak nahiz kuantitatiboak nola eskuratu diren zehazten; jarraian, zehaztapenak emango dira datu-analisia ekinbideari buruzkoak alor kualitatiboan zein kuantitatiboan. Bukatzeko, balioztatze- eta fidagarritasun-prozesuak deskribatuko dira, UPV/EHUko Etika Batzordearen onespenerarekin batera.

**Seigarren** atalean **emaitzak** plazaratuko dira. Atalik luzeena izanagatik ere, ahal bezainbeste sintetizatu da. Bi azpiatal nagusi daude bi ikerketa-galderei erantzun ahal

izateko: lehenengoa, eleaniztasun-usteei buruzkoa; bigarrena, metodologia-usteen. Biek dute hurrenkera berdintsua: datu deskribatzaileenak hasieran ematen dira; eta gero batezbestekoaren konparazioak (ANOVA zein Kruskal Wallis). Halaber, emaitzak hiru taldeen (Lehen Hezkuntzako irakasleen, etorkizuneko irakasleen eta unibertsitate-irakasleen) arabera ematen dira, taldeka antolaturik eta elkarren arteko emaitzak parez pare jarriarik, elkarren arteko amankomuneko puntuak eta ezberdintasunak topatzeko. Hiru taldeak elkar konparatzen diren azpiatal horietan txertatuko dira talde-elkarrizketetako aipurik esanguratsuenak.

**Zazpigarren** eta azken atalean ikerketa-ondorioak ematen dira. Hemen emaitzarik esanguratsuenak goiburu gisa aurkeztuko zaizkio irakurleari, eta, jarraian, ikerlariaren ikuspegi kritikoarekin lagunduko zaie. Beste ikerketa-emaitza eta -ondorioak ekarriko ditugu, ondorioen norabidearekin bat, kontrakoa edota berriren bat iradokiko dutenak. Hiru azpiatal leudeke guztira: lehenengoa, eleaniztasun-usteen ondorioak lirateke; bigarrena, metodologiena; eta hirugarrena, etorkizunari begirakoak. Azken horretan, tesi-ikerketak ekinbidean izandako mugak eta etorkizuneko erronkak idatzi dira.



# 1. USTEAK

Lehenengo atalean, usteak definituko ditugu. Horretarako, adituen erreferentziak ekarri eta iker-alar ezberdinetatik usteei eman zaizkien ezaugarriak eta ikuspuntuak tartekatuko ditugu. Usteen azalpen teorikoak eman ostean, irakasleen usteak izango ditugu hizpide. Bertan, hizkuntza-irakasleen usteak ikertuko ditugu eta irakasleen ezagutzarekin konparatuko dituzten ikerketak azalduko. Horietan, arreta berezia emango diogu hizkuntza-irakasleen uste eta jardunen arteko harremanari, gure tesi-ikerketaren gakoetako bat baita bi horien arteko lotura ulertzea irakaslearen talaiatik. Atala borobiltze aldera, usteen aldaketak izango ditugu mintzagai, azken atala izanik adituen ekarpenak, ikerketa esanguratsuak, erreferentziak eta ereduak trukatzeko gunea. Hain zuzen ere, usteetan eragitea lortzen bada irakas-jardunetan nabari eta islatuko lirateke aldaketak.

## 1.1. Usteak definitzen

Hasteko, usteak definituko ditugu. Erraz esatearren, adiera anitzeko terminoa da eta nahasia; eta horrek biziki zailtzen du kontzeptua finkatzea eta definitzea (Pajares, 1992). Hori dela-eta, egileak iradokitzen du kontzeptua bera birdefinitzea. Zailtasuna hitzaren beraren esanahian datza, beregain hartzen baititu subjektiboak diren makina bat ideia, norberaren burutazio eta kontzeptu. Wenden-en (1986, 5. or) aburuz, usteak “norberaren eta hurkoaren eskarmentuan oinarritutako esperientziak dira, jardunean eta ekintzetan eragin zuzena dutenak.”.

Zenbaitetan, balio-sistema eta jarrera-multzo gisa hartuak dira, jarraitu beharreko iritzi eta gidalerroak bailiran (Rokeach, 1968). Era berean, Bandura (1997) dago irakasleen usteak egoera jakinean bakoitzak dituen, konbikzio pertsonalak, antolatze-gaitasunak eta irakas-jardunerako ziurtasun osoak ere badirela; hori bakarrik ez, usteek gure emozioak, helburuak eta erabakimenak gidatzeko nahikoa indar badutela. Oro har, esan daiteke usteak elkarrekintzan daudela kognizioaren beste ezaugarriekin batera: ezagutzekin, jarrerekin, susmoekin eta teoriekin (Song eta Andrews, 2009), eta Borgek (2003) talde-

konstruktuko psikologiko gisa ulertuko du irakasleen kognizioa, beregain harturik honako hirurak: “Irakasleen ezagutza, sineskerak eta pentsamendua” (81. or.).

Egun, ariketa zaila da ikertzaileontzat irakaslearen usteak eta ezagutzak ezberdintzea, lauso agertzen baitzaizkigu horien arteko mugak. Hari-mutur horri tiraka, Woods-entzat (1996) ezagutzak eta usteek egitura ordenatua dute, nahiz eta esangura aldakorrekoak izan; izan ere, irakas-jardunean zinez zaila baita irakasleek hartutako erabaki pedagogikoen iturria ezagutzea; hots, ezagutza-egituratik edo usteen sistematik datozen identifikatzea. Adituak iradokitzen du plano berean etengabe hedatzen eta garatzen ari den terminoa dela, zaila dena bata noiz hasi eta bestea noiz bukatzen den jakitea. Konplexutasunarekin jakitun, kontzeptua honako hiru osagaitan banatuko ditu egitura bakarra osatzeko: BAK (Beliefs, Knowledge eta Assumptions) (Woods, 1996).

Pajaresentzat usteak konplexuak ziren, eragile askoren batura baitira eta sinplifikatzen zailak, haren aipuak teoriaren eta irakas-jardunen arteko harremanera garamatza: “usteak ezin dira zuzenean behatu ala neurtu; ondorioztatu behar dira esandakoekin, asmoekin eta jardunekin.” (1992, 314. or.). Gao eta Ma-k (2011), aldiz, gaineratzen dute usteak ez direla sortzetikoak ezta isolatuak ere. Horrez gain, testuinguruak sekulako eragina du norbanakoaren uste-sistemaren konfigurazioan, batetik, kanpo-eragileek eragin handia dutelako eta, bestetik, norbanakoaren bizitza-esperientzia bakarra eta errepikaezina delako. Zheng-ek (2009, 74. or.) uste-sisteman sinesten du, eta areago “Irakaslearen psikologian norberak egiazko ulermentzat, adimentzat, baieztapentzat edota proposamentzat” ulertzen ditu usteak. Usteen eta esperientziaren arteko harremana ez da soilik mentala; aitzitik, testuinguruarekin uneoroko interakzioa eta doiketa litzateke, bizitzaren beste alor batzuk bezala, esperientziek ekintzen eta testuinguruaren beharra baitaude (Barcelos eta Kalaja, 2012; Kalaja eta Barcelos, 2019). Hizkuntzen irakaskuntzan erabakigarriak dira irakaslearen usteak, hain zuzen ere, galbahe- eta doitze-lana egiten baitute informazio, uste eta jarduera berriak onartu ala baztertzekoan (Li, 2012). Mohamed-entzat (2006, 21. or.) “usteek sistema konplexua osatzen dute, elkarri eragiten dioten teoria, balio eta baieztapenekin; horiek guztiek irakaslearen egia teorikoa ordezkatzeko dute eta kognizioaren iragazki moduan funtzionatzen, esperientziak interpretatzeko, irakaslearen jarduna zuzentzeko eta pentsamendua moldatzeko”. Hala, Borgentzat (2011, 370–371. or.) usteak irakaslearen

“norberaren egiak lirateke, azaltzen ez dituen horiek baina, aldi berean, haren jardunaren erabakimenetan islatzen direnak, oharkabean eragina dutenak eta aldatzen zailak”.

Irakasleen jarrerak aldatzearen afera ez da txikia, eta atalaren hondarrean helduko diogu zuzenean gaiari. Aurrerapen gisa, zaila da irakasleen jardunak eta usteak aldatzea, eta aldaketa gauzatzeko litekeenagoa da jardunak aldatzea egoki jositako argudioak eta aukerak eskaintzen bazaizkio irakasleari, ezagutzan eta ekintzan ardaztutakoak. Izan ere, aldaketak eraginkorrago eman daitezke alor afektiboaren beharrak aseztu gero eta bizipen pertsonal positiboak atxikitzen baldin bazaizkio jokabideari (van der Linden, Bakx, Ros, Beijgaard, eta van den Bergh, 2015). Gainera, ekintza horien eraginkortasuna esperientzia bidez finduko litzateke, jardun askoren eta horien gaineko feedbackaren bitartez (Bandura, 2006). Usteek elkarrizketa amaiezinean diraute, eguneroko gatazkak argitzeko eta errealitatea deskodetzeko behar-beharrezko lanabesa izanik irakasleontzat, ohituretan, tradizioetan eta iritzietan erroak dituztelarik. Alanen-en (2003) ustez, usteek bitartekaritza-egitekoa dute, eta horregatik zenbaitetan irakaslearen jardunak ez dira bat etorriko haren usteekin. Zentzu horretan, usteak irakaskuntza-jardunerako norberaren baliabide lagungarri gisa ulertzen ditu, testuinguru jakinetan erabilgarri izan daitezkeenak ala ez.

Atala borobiltze aldera, laburbilduko ditugu usteen ezaugarri gogoangarrienak. Nespor-ek (1987) zerrendatutakoak, eta, gerora, Peralesek (2003) euskarara ekarritakoak eta osatutakoak.

- Ez dira egia unibertsalak; kontrara, batzuentzat izan daitezke, eta beste batzuentzat ez. Bakoitzak ziurtzat ala okertzat hartuko ditu bere usteen sare eta sistemen bitartez.
- Gerta daiteke norberaren esperientzietan ez oinarritzea; hau da, kanpotik etorritako uste eta iritzia norberak bere egitea. Irrazionalak ere izan ahal dira.
- Zenbait uste emozioetan errotuak egon daitezke, eragile afektiboetan.
- Gertakari bidezko metaketan oinarritzen dira.
- Negoziaezinak dira, baina bai eztabaidagarriak. Bestela esanda, posible da uste berria norberaren uste-sarean egokitzea eta beste norbanako batenean ez.

- *Continuum* izaera. Bereziki zaila da usteak non hasi eta bukatzen diren zehaztea, hertsiki loturik daude-eta egoeretara, gertaeretara eta irakasleak dituen ezagutza-egituretara.

### 1.2. Usteen ikerketa-ikuspegiak bigarren hizkuntzaren jabekuntzan

Honako azpiatalean, bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren ingurumarian egindako ikerketen ildoak aurkeztuko ditugu. Horietan, ikerketa-ikuspegia ardatz izanik, hiru multzotan antolatzen dituzte Kalaja eta Barcelosek (2003, 2019): lehenik, ikuspegi-arauemailean; bigarrenik, ikuspegi metakognitiboan; hirugarrenik, testuinguru-ikuspegian.

Lehenengoari buruz, Holliday-k (1994) arauemaile (*normative*) deitura emango dio. Hizpide du ikasleen kultura; izan ere, kultura du jarreraren aldagai nagusizat. Hortaz, aurrekarizat ditu ikasleen bigarren hizkuntzarekiko usteak eta zein izan daitezkeen etorkizuneko jarrerak eta autonomia-maila. Ikuspuntu-arauemailean, abiapuntu dira aurretiazko ideiak, mitoak eta ikusmolde okerrak. Oro har, ikasleen iritzia ez da iturri fidagarritzat eman izan, ezta aintzat hartua izan ere; bai, ordea, irakaslearena. Horretarako, estatistika deskribatzailea erabiltzen da datuak analitzatzeko eta galdetegiak sortzeko. Horietatik guztietatik, hedatuena da Horwitz-ek (1985) sortutakoa: Beliefs About Language Learning Inventory (BALLI); eskuarteko ikerketan, garrantzia izan dute galdetegien sorreran. Hala, alor honen zeregina da Bigarren Hizkuntzaren Jabekuntzari buruzko usteek ikaslearen jarreran zer eragin duten hautematea. Jarrera subjektiboa izan daiteke; eta, berau mugatzerakoan, honako bi ezaugarriak zehaz daitezke: ikasleen ikusmoldea ikas-prozesuarekiko (Richards eta Lockhart, 1994) eta hizkuntza-ikaskuntzan darabiltzaten estrategiak (ikus Horwitz, 1988).

Bigarrena aipagai, uste horiek ezagutza metakognitiboak lirarteke (Wenden, 1987). Nabaria da ideia-eraginaren garapena, irakasle-jardunaren bilakabidea kontsideratzen du-eta. Egilearen aburuz, berebiziko garrantzia dute ikaslearen eta irakaslearen pentsamenduek nahiz teoriak; eta, gerora, ekintzak hausnartzerakoan emango duen balizko ikaskuntzak. Era berean, azpimarratzekoa da usteak nola zehazten dituen: hizkuntzarekiko indarrean dauden pentsamenduak, ikaskuntza-prozesuarekikoak, izaera iraunkorrekoak eta hartu-

emanekoak (Wenden, 1987). Bide batez, ezagutzak eta usteak ezberdintzen ditu: lehenengoa, informazio ziurtzat eta objektibotzat dauka, hezkuntza formalean jasoko litzatekeena; bigarrena, aldiz, subjektiboa, iturri anitzekoa eta indibiduala.

Hirugarren ikuspegiarekin amaituko dugu, gure tesi-ikerketan pisu handiena izango duena, hasteko, usteak gai konplexu gisa kontsideratzen dituelako, tesi-ikerketa honek usteak ulertzen dituen bezala. Gainera, konplexutasun hori ulertzeko, ikuspegi ezberdinak eta anitzak erabiltzen ditu usteak aztertzerako orduan. Ikuspegiak ez du usteen definizio zehatza sortu nahi; kontrara, usteak hobeki ulertu nahi ditu testuinguru zehatzetan, gizarteari hertsiki lotuak baitaude eta izaera aldakorra izan baitezakete. Ikerkuntzari begira, ez da soilik galdetegietan ala metakognizioan oinarritzen; aldiz, metodo andana erabiltzen du, etnografia barne (behaketak, narrazioak, egunerokoak, diskurtso-analisia, besteak beste). Azken helburua da usteak eta testuingurua ulertzea, ahal bezainbeste iturri erabili eta talaia ezberdinek emaniko ikuspegietatik ikertzea.

### **1.3. Hizkuntza-irakasleen usteak eta ezagutzak**

Usteek funtsezko eginkizuna dute hizkuntza-irakasleen eguneroko jarduna zuzentzerakoan eta gainerako eragileekin nahiz gaitasunekin testuingurua hautematerakoan. Kontzienteki nahiz oharkabea, irakasleak hartzen duen hautu bakoitzaren atzean, pentsamendu-egitura eta uste-sare sendo eta dinamikoa dago. Ohikoa izaten da usteen ikusezintasuna; hori gutxi ez-eta konplexutasun-mailak are gehiago oztopatzen du usteen identifikazioa –*continuum*aren kontzeptua gogoan—. Halere, irakasle-usteak haren jardunaren galbahe nagusizat ditu. Uste, ezagutza eta jardun adierak ezkondu, eta honako eredua proposatuko dute Woodsek (Woods, 1996, 2009) eta Woods eta Çakır-ek (2011), ondorengoak izanik haren ezaugarririk behinenak (ikus 1.1 taula):

### 1.3 Hizkuntza-irakasleen usteak eta ezagutzak

---

**Taula 1.1** Usteen ezaugarriak eta Woods eta Çakiren ereduak

<b>Dinamikoa</b>	Eragile ezberdinen arteko elkarreaginean bermatzen du, eta hautu pedagogikoetan da behagarri.
<b>Kognitiboa</b>	Norbanakoaren pentsamendu kritikoa garatzea programazioarekiko, irakas-jardunekiko, interpretazioekiko eta ebaluazioarekiko.
<b>Konstruktibista</b>	Irakas-eraginkortasunari erreparatu: nola transmititu, jaso eta eraiki den ezagutza.
<b>Soziala</b>	Hizkuntzen ikaskuntza-prozesuaren izaera eta interakzioaren nolakotasuna.
<b>Islatzailea</b>	Ikaskuntzaren parte-hartzaile guztien erabakimenean kontzientziazio-maila.

Iturria: (Woods, 1996, 2009; Woods eta Çakır, 2011)

Ezagutza hitzaren adierari tiraka, uler dezakegu haren definizioa labainkorra bezain saihekorra dela. Ezagutzari emandako definizio zaharrenean, Platonen klasikoa aurki genezake: “Ezagutza uste arrazoitua da”. Parekideak izan dira literatura zientifikoan uste, kognizio eta ezagutza adierak. Borgen (2003) arabera, beha ezin daitekeena irakaslearen alor kognitiboari dagokio; zehatzago, irakasleak dakienari, pentsatzen eta sinesten duen hori. Horwitz (1987) ustez, uste horiek ikasle-ibilbide osoan ontzen joango dira, ezagutza formaletik haratago, oharkabean; ikasleak izan zirenean ezagutza hori elikatzen hasi eta gaurdaino.

Usteek berariazko garrantzia dute hautu pedagogikoak egiterako garaian. Alta, ez da eragile bakarra, makina bat faktore baitaude elkarreaginean, hala nola, irakasle-formakuntzan jasotako teoriak, ikasle adina, ratioa, ezagutza-maila, ikastetxearen hezkuntza-ikuspegia eta ikasle-ibilbidea, askoren artean (Inceçay, 2011). Hala eta guztiz ere, usteek gaitasuna dute gainontzeko eragileei zorrozki eragiteko, galbahe funtzioa ere badutelako, formazio-saioetan jasotako ezagutza iragazi eta bideratzeko ahalmena ere bai.

Irakasleon, ikasleon eta ikertzaileon buruan argi izan behar dugu usteen kontzeptua lausoa dela, abstraktua (Pajares, 1992). Hori dela-eta, lagungarri izango da berriz ere berreskuratzea *continuum*aren ideia, non mugak askoz ere malguagoak diren; izan ere, argigarria izango da usteak eta ezagutza zehazteko garaian. Bigarren hizkuntzaren jabeakuntzan, bi ezagutza-mota aztertu dira historikoki: batetik, ezagutza linguistikoa; bestetik, ezagutza-orokorra. Bi horietan, usteak ez dira garrantzitsuak izan, bigarren

mailako estatusa egotzi zaie. Hainbat ikertzailearen ekarpena dela bide (Abelson, 1979; Nespor, 1987; Pajares, 1992; Barcelos eta Kalajan aipatuak, 2012), argituko dira usteen eta ezagutza-sistemen arteko ezberdintasunak; horien artean, azpimarratuko da aldiari aldiko usteen eta ezagutzen arteko bateraezintasuna eta sinesgarritasuna nahi baino arruntagoa dela, eta horien arteko zubi-lanak iradokiko dira (Woods, 2009).

Konstruktibismoaren talaiatik, identifika daitezke ezagutza-sistemaren eta uste-sarearen arteko erlazioa, garapena eta bien arteko hartu-emanak. Irakasleak informazio berria jasotzerakoan, uste-sarearen galbahetik pasa behar du lehenik, ezagutza-sisteman egokitu ahal izateko. Woodsen (2009) arabera, ezagutza-sistemak “gauzak nolakoak diren” azalduko digu, eta uste-sareak ezagutza-sistemak interpretatutakoari honakoa gaineratuko dio: “gauzek nola behar duten”. Uste-sareak ezagutza-sistemaren gaineko egitura gisa funtzionatuko du, ezagutza-sistema zuzentzen duen zuzendari gisa.

Kontrako teoriak badira, eta Wendenek (1999) aurkako ibilbidea proposatuko du, usteak ezagutzaren azpiegitura gisa, bigarren mailako eginkizun. Ikusgai da ikuspegi eta teoria ezberdin eta kontrajarriak daudela; edonola ere, eskuarteko ikerlanean erreferente hartuko dugu Woodsen (2003) BAK teoria, non ezagutza eta usteak egitura bereko eragile banatzat hartzen dituen.

Woodsen teoriari jarraiki, usteak eta ezagutzak etenik gabeko transformazio eta eboluzio prozesuetan daude. Ekuazioari irakaslearen klase-jarduna erantsiko bagenio, ohartuko ginateke iturri bakoitzetik datorren informazioek nolabaiteko armoniaren beharra dutela egoki funtzionatzeko; horien erakusle izango lirateke, usteekin eta ezagutzekin bat, irakasleak hartutako jardunak eta hautu pedagogikoak. *Continuum*aren bi aldeetan, izaera biko ezaugarriak topa genitzake: hari-mutur batean, objektiboagoak, egia hutsezin itxurakoak, jendarteak onartutakoak, frogagarriak; bestean, ostera, subjektiboagoak, identitateari lotuak, barne-idiosinkrasiari atxikiak, norberarenak (Woods, 2003).

Usteek jardunekin duten harremanarekin hasi baino lehen, usteen eta ezagutzaren gaia borobilduko dugu. Usteen eta ezagutzaren arteko harremanean, bi uste-mota gailenduko lirateke, batetik, norberaren eraginkortasunean oinarritutako usteak eta, bestetik, testuinguru-usteak (ikus 1.2 taula), erlazio zuzena dutenak ezagutzarekin eta horren kudeaketarekin: jardunarekin.

**Taula 1.2.** Uste-motak: norberaren eraginkortasunean eta testuinguruan oinarritutakoak

<b>Norberaren eraginkortasun - usteak</b>	Helburu zehatzak lortzea helburu, irakasleak bere buruarengan duen antolatze-gaitasuna eta jardunen bitartez berau erdiesteko ahalmena (Bandura, 1997). Gradu ezberdinak daude, maila txikiko irakasleek joera izaten dute klasearen kontrol handia izateko; aldiz, maila handikoek ikasleengan konfiantza handiagoa dute, eta, ondorioz, ardurak banatzen zaizkie (Woolfolk, Davis, eta Pape, 2006)
<b>Testuinguru- usteak</b>	Jarrera eta jardun eraginkorrak abileziaren, testuinguruaren eta motibazioaren beharra dute. Jarduna uste egingarrietan ardatzen da, testuinguru eta pertsona zehatzen baldintzapean, uste bideratzaile gisa ezagunak (Haney, Lumpe, Czerniak, eta Egan, 2002; Lumpe, Haney, eta Czerniak, 2000).

**Iturria:** Lucero et al., 2013.

#### 1.3.1. Hizkuntza-irakasleen usteak eta jardunak

Irakasleen usteak ikertzea gakoa da irakas-jardunak ulertzeko, ikaskuntzaren etekina handitzeko eta hezkuntza-kurrikuluma hobetzeko (Gilakjani eta Sabouri, 2017), hain zuzen ere, irakaslearen usteek eragina izan baitezakete hizkuntza-irakaskuntzan eta ikas-prozesua ulertzeko hautu pedagogikoetan (Barcelos eta Kalaja, 2012; Chong et al., 2011; Hayes, 2009; Kalaja eta Barcelos, 2003, 2012, 2019), norberaren usteen, balioen eta mundu-ikuskeraren eraginpean baitaude (Williams eta Burden, 1997).

Hain zuzen ere, usteak ezaugarri afektibo eta emozionalez osatuta daude, jasotako informazioarekiko eta egoera berriarekiko galbahe moduan jokatzeko dutenak. Ondorioz, usteen egitura erresistenteagoa da aldaketekiko, askotan sistema bera aldatzea baitakar (Sakui eta Gaies, 2003). Ezagutzaren eta usteen eragina zuzena da irakas-jardunean, testuingurura eta helburuetara egokitzen baitira uneoro; bestetik, irakaslearen ezagutzak eta usteak norberaren esperientzietan eta filosofietan oinarritzen dira oro har.

Denborak aurrera egin heinean, irakaskuntzaren alorrean nabarmen hasiko dira garrantzia hartzen irakasleen usteak, ezagutzak eta jardunak. Egun, ezingo dituzte irakaskuntza eta ikaskuntza kontzeptuak “eman eta jaso” esanguraz laburtu. Izan ere, gaia askoz ere konplexuagoa da, honakoetan oinarritzen da-eta: irakaslearen ezagutzan, usteetan, jardunetan, dinamikotasunean, hausnarrean eta trebakuntzan (Borg, 2011). Besteak beste, Kramsch (2003) eta Woodsentzat (2003) usteak esperientziatik eratortzen



dira, izan ere, esperientzietatik eratzten diren hausnarrak norberaren testuinguruarekin, ikasleekin, irakasleekin, hausnarrekin, ikasgaiarekin eta ikasle-ibilbidearekin izandako bizipenekin elkarrizketan daude.

Esaterako, Phipps eta Borg (2009) adituek ikertu egin zuten hizkuntza-irakasleen gramatika irakasteko usteak eta irakas-jardunak bateragarriak ote ziren; hau da, haien gramatika irakasteko usteak eta klaseak emateko modua bat etortzen al ziren, norabide berdinekoak ziren ala ez. Ikerlariak bi uste mota bereizi zituzten irakaslearentzan zuen zeresanaren arabera: batetik, azalekoak edo periferiako usteak; bestetik, sakonekoak edo erroko usteak. Emaizak emaitza, ikerlariak ondorioztatu zuten irakasleen uste zehatzak ez zetoze beti jardunarekin bat, baina, irakasleen uste orokorrek bat egiten zutela haien irakas-jardunarekin. Adibideak adibide, irakasle batzuen usteetako bat zen ikasleari gramatika-arauak ez zaizkiola berariaz azaldu behar, hark deskubritu eta ondorioztatuko zituela bere kasa; baina, irakaslearen irakas-jardunak kontrakoa adierazten zuen, esaldien arauak aurrez azaldu, gramatika-azalpenak eman eta horiek aurretiaz lantzen zituen ikasleek ariketak zuzen egin zituzten. Emaizek Borgen (2006) aurreko ikerketen ondorioa berrindartu zuten, hots: usteen eta jardunen arteko erlazioa ez da beti zuzena, aldakorra eta testuinguruarekin interakzio-bidezkoa baizik.

Edonola ere, aditu askorentzat eskolak emateko era da usteen ispilurik fidagarriena (Borg, 2011); laburpen gisa onartzen dute ikerlari askok, nahiz eta jakin askoz ere konplexuagoa dela, eragile ezberdin asko batera dabiltzala elkarreraginean (Barcelos eta Kalaja, 2011). Faktore horien artean leudeke irakasleen ikasle-ibilbidea, lan-testuingurua, kurrikuluma, interakzio-mota, irakasle-esperientzia eta trebatze-maila, esaterako. Onartzen da esperientziak eta trebatzeak ondorio positiboak dakarziola irakasleari, jarduna hobeki eta eraginkorrago garatu ahal izateko. *Hizkuntzak nola ikasten diren* usteak erro sakonekoak dira irakasleen artean, eta zuzenean eragiten diote irakaslearen jardunari, aplikatuko duen metodologiak baino (Williams eta Burden, 1997). Bi autoreek azpimarratuko dute sakon errotutako uste horiek azalera ekartzeko beharra eta horien gainean hausnartze kontzientea egitearen garrantzia. Izan ere, irakas-usteak hertsiki lotuak daude irakas-jardunarekin, irakas-jardunak irakas-usteetan oinarritzen direlako (Phipps eta Borg, 2009). Are gehiago, irakas-usteen eta irakas-jardunen arteko harremana sinbiotikoa dela onartzen da oro har (Foss eta Kleinsasser, 1996).

Nahiz eta erabateko zientzia ziurra ez izan, aditu gehientsuenen ikerketek berresten dute irakasleen usteak bat datozela hizkuntzak irakasteko jardunekin (Abdullah eta Majid, 2013; Borg, 2011; Cabaroglu eta Roberts, 2000; Chong, Low, eta Goh, 2011; Farrell eta Ives, 2015; Hayes, 2009; Mihaela eta Alina-Oana, 2015; Phipps eta Borg, 2009; Richards eta Lockhart, 1996; Sheridan, 2016; Yuan eta Lee, 2014).

Hala eta guztiz ere, topatu izan dute ikertzaileek uste zehatzekin bat ez datozen hautu pedagogikoak; hots, ez direla bat etortzen klasea emateko era eta irakaslearen usteak (aurrez aitaturakoaz gain, ikus: Basturkmen, 2012; Basturkmen, Loewen, eta Ellis, 2004; Dale, Oostdam, eta Verspoor, 2018; Li, 2012; J. Ng eta Farrell, 2003; Peacock, 2001; Tamimy, 2015).

Pentsamendutik praktikarako lubakiari arrazoi ugari eman zaio; horietatik guztietatik, esanguratsuen Borgea (2006) izan liteke, hark azaltzen baitu usteak eta irakas-jardunak estu loturik egon arren, zenbaitetan pentsamenduak eta praktikak ez dutela bat egiten, batetik, usteen izaera konplexuagatik, bestetik, testuinguruaren baldintzengatik. Hark bi ezagutza-iturri bereizten zituen: teorikoa eta praktikoa. Beraz, ezagutza orokorra bi iturrik osatzen dute, eta, askotan, ez datoz bat. Ezagutza osatzen duten bi muturrak *continuum*tzat hartzen dira, zaila da-eta antzematea zehazki noiz hasten den bata eta bukatzen bestea (Borg, 2006). Horrekin batera, argudiatzen du klaseko testuinguruak baldintza ditzakeela irakaslearen usteak, gatazkatsua izan baitaiteke usteak jardun bitartez islatzeko unea. Hala eta guztiz ere, usteak gauza askoren euskarri dira: irakaslearen prestakuntzarena, ibilbide pertsonalarena, hausnarketena, ikaskuntza-prozesu osoarena. Garrantzitsua da irakasleak haren jarduna kontrolatzerakoan bi goiburu izatea: bat, zein den haren uste-sistema eta, bi, zer jardunen bitartez gauzatuko dituen.

Esperientziak ere badauka eraginik usteak jardunetan gauzatzerakoan. Teorian, zenbat eta esperientzia handiago, orduan eta aukera handiagoa usteak jardun bidez gauzatzeko; izan ere, esperientzia luzeagoak usteen eta jardunen arteko lotura handiagoa egiten du, baita eredu gehiago eskaini ere irakasleari (Basturkmen, 2012; Feryok, 2010; Kubanyiova eta Feryok, 2015; Mitchell, 2005). Horrek, ordea, ez du esan nahi irakasle hasiberriek zailtasunak dituztela, esperimendatzeko aukera gutxiago izan dutela baino ez. Bestalde, jardunen eta usteen arteko distantziaren eragileetako bat ere izan liteke irakasleak usteak

berrantolatzeko beharra izatea, irakasleak esperientzia eta jardunaren bitartez haragitzen baititu usteak, ikasgelako errealitatera egokitu nahian (Inceçay, 2011). Ikerlarrari ekarpena egingo dio Moodiren (2016) ikerketak, izan ere, haren ikerketak berretsiko du irakaslearen usteak ikasle-garaiko esperientzia eta hizkuntzak ikasterakoan izandako bizipenekin nahasten direla; hots, ikasle-ibilbideak baduela eraginik etorkizunean, irakasleen usteen konfigurazioan. Zehaztasunei begira, haren ikerketak azpimarratu zuen ikasle-sasoian esperientzia negatiboak jasotako irakasle helduek gehiago hausnartzen dutela darabiltzaten irakas-jardunen inguruan, eta horrek jardun eraginkorragoak dakartzala.

Ikerketak ikerketa, sendotasunak eta ahultasunak topa ditzakegu irakasle-usteen eta jardunen artean. Zenbait adituk iradokiko dute arazo horren iturburua Borgek (2006) aipatutako continuumaren kontzeptua ulertzeko moduan egotea, ezagutza teoriko eta praktikoaren arteko tartean distantzia handiegia izatea. Horren adibide litzateke irakasleak duen ezagutza teorikoaren eta klaseko errealitatearen artean distantzia handiegia izatea eta biak, usteak eta jardunak, ezin bide berean uztartu eta usteak jardun bidez islatzea (Dale, Oostdam, eta Verspoor, 2018; Song eta Andrews, 2009). Kagan-ek (1992) aipatu zuen teoria eta praktikaren arteko arrakala ohikoa izaten zela esperientzia urriko irakasleengan; izan ere, esperientzia dutenek ezagutza teoriko horiek eta usteak egokitu dituzte errealitatera, praktikara eraman ezin direnak behin betiko alboratu baitituzte. Azpimarratzekoa da ikaskuntza-prozesua eta usteen bideragarritasuna zenbait eragileren pean daudela eta testuinguruaren zeresana handia dela. Testuinguruaren erabakigarritasuna hain handia izanik, gerta daiteke irakas-uste berdintsuak dituzten bi irakasle zeharo kontrajarriak diren irakas-jardunak aplikatzea errealitatean; eta, aldiz, irakas-uste erabat ezberdinak dituzten bi irakaslek irakas-jardun berdintsuak egitea (Dale et al., 2018).

Uste eta jardunen arteko erlazioa gatazkatsua izan daiteke zenbaitetan, baita konplexuagoa ere, zenbait adituen esanetan hirugarren osagai batek eragiten baitu: emozioak (Barcelos eta Aragão, 2018; Ferreira Barcelos, 2015). Bereziki garrantzitsua da etorkizuneko irakasleen formazioa, eta adituen aburuz gako da usteak eta emozioak ulertzea, bi osagaien arteko oreka mantentzeko eta, bide batez, usteekin bat etorriko diren jardun esanguratsuagoak erdiesteko eta ikasleen ikaskuntzan sakontzeko.

Usteen garapena hainbat faktoreren eraginpean dago, eta mantsoa da eraldatze-prozesua; gainera, gerta daiteke uste berria irakaslearen uste-sistemarekin kontrajarria izatea (Basturkmen, 2012). Usteak etengabeko osatze-, berrosatze-, aldaketa-, gatazka- eta berrikuntza-prozesuetan murgilduta daude. Batzuetan sakon errotutako uste horiek irakas-jardun gisa azalertzeko prozesua gatazkatsua izan daiteke, zenbait kasuetan ezinezko izanik horiek azalertzeari (Sugiyama, 2003). Fischer eta Lahmann-en (2020) ikerketak eleaniztasun-usteen aldaketak neurtu zituen. Horretarako, irakasle-ikasketak jasotzen ari ziren unibertsitate-ikasleei ikastaroa antolatu zien sei hileko oso batean eleaniztasun-usteak hobetzeko. Bi momentu neurtu zituen, pretest eta postesten bitartez. Emaitzek erakutsi zuten eleaniztasun-usteak moldatu egin zirela ikastaroan zehar. Ondorio gisa, ikertzaileak azpimarratu zuen usteak moldatu eta eguneratu daitezkeela, berariaz diseinatutako ikastaro eraginkorrek ahalmen eraldatzailea izan dezaketela.

Johnson-ek (1994) aspaldi izendatu zituen irakasle-usteen inguruan oinarritzko hiru baieztapen: lehenengoa, irakasleen usteek eragina dute erabakiak hartzerakoan eta errealitate hautematerakoan, ondorio zuzena izanik hartutako erabakietan eta jardueretan; bigarrena, erabakigarria da irakasleen hezkuntza, hots, haien zentzuzko erabakiak hartzearen; hirugarrena, behar-beharrezkoak dira irakasleen usteak identifikatu eta ulertzea, irakas-jardun eraginkorrak lortze eta trebatze-programa emankorrak erdieste aldera.

Moodieren (2016) ikerketaren harira, hark ikasle gisa metatutako esperientziaren eragina ikertu nahi izan zuen; beste hitzetan, ea ikasle izandako esperientziak eraginik izan al zuten, gerora, hizkuntza-irakasle gisa, usteen konfigurazioan eta jardunen hautaketan. Hego Koreako hizkuntza-irakasleak ikertu zituen, haien jarduna komunikazioan oinarritua ote zegoen ala ez jakiteko. Ingeleseko irakasleen (N = 18) hausnarketa idatziak jaso zituen, eta horietatik laurekin izan zituen aldizkako elkarrizketak, horietatik bi irakaskuntzan hasiberriak eta beste bi esperientzia luzeko irakasleak izanik. Moodiek ondorioztatu zuen irakaslearen formazioak sekulako garrantzia duela, batetik, jardunaren bitartez irakatsi nahi denari buruz hausnartzeko eta hautatzeko lanak egiten dituelako norberak eta, bestetik, hizkuntza ikasi bitartean, esperientzien inguruan hausnartu ahal izateko aukera ezin hobea delako (bereziki baliagarriak irakasle-eskolan ikasten ari direnentzat edo

irakasten hasiberriak direnentzat). Izan ere, adituak azpimarratzen du jardunen eta usteen gogoeta nahi baino arrotzagoa dela irakaskuntza-testuinguruan, denboraren kudeaketa, horren falta eta indibidualizazio dela bide. Hausnarketek aukerak sortzen dituzte jardun eraginkorragoak pentsatu eta martxan jartzeko.

Usteen eta jardunen arteko erlazioa ez da beti zuzena, ezta erraz ondorioztagarria ere, ikuspegi metakognitiboak eta arauemaileak iradokitzen zuten bezala. Usteak faktore askorekin elkarreraginean daude, zeharka eta modu konplexuan. Usteen eta jardunaren arteko harremana egoki ulertzeko, lagungarri izango da honako bi ezaugarriei erreparatzea: batetik, irakaslea bere usteen kontziente izatea; bestetik, irakaslearen testuingurua, errealitatea, motibazioa eta ikas-estrategiak zehaztu eta ulertzea (Woods, 1996). Testuinguruko faktoreek irakasleen irakas-jardunetan eragiten dute, eta zenbaitetan oztopo handiegiak izan daitezke uste horiek irakas-jardunen bitartez gauzatzeko. Dena den, Cenoz (2003), De Angelis (2007) eta Jessnerren (2010) ikerketek diote uste abegikorrago eta hizkuntzen integratzaileak diren irakasleak errazago ohartzen direla testuinguruak eskain dezakeenaz eta aukera handiagoa dutela irakas-jardun aurrerazaleagoak egiteko. Izan ere, irakasle horiek gehiago baliatzen dituzte ikasleen hizkuntza-ezagutzak, hizkuntzen arteko konparaketak, hizkuntzen gaineko hausnarketak eta erronka kognitibo handiagoa eskatzen dituzten praktikak.

Irakasle-usteek laguntzen dute irakaslearen esku-hartzea, jarrera eta interakzio zehatzak hautatzen, haien irakas-jardunaren iparroratz gisa kontsideratzen dituzte. Usteek irakaslearen antolamendua eta erabakiak zuzentzen dituzte, irakatsi beharrekoa nola irakatsi, biderik egokiena urratzeko iparroratz (Summers, Davis, eta Hoy, 2017). Irakaslearen irakasteko gaitasunean, usteetan eta jardunean dago, beraz, eraginkortasunaren igarlerik handiena (Woolfolk et al., 2006).

Tesi-ikerketa honen egitekoetako bat izango da euskal hezkuntza-sistemako irakasleen usteak esploratzea eta garrantzitsuenak identifikatzea, errealitatea, testuingurua eta beharrak deskribatzea, etorkizunean hobekuntzarako ekimen aproposagoak diseinatze eta aplikatze aldera. Gure irakasleen oinarriko usteak ezagutzea beharrezkoa da, tarteko erronkak eta helburu handiago baina eskuragarriak lortzeko. Hezkuntza testuinguruan hobegarriak diren aldaketak bilatu nahi badira eta irakas-jardun emankorragoak erdietsi, abiapuntu gisa irakasleen usteak ezagutu behar dira, berariazko trebakuntza

diseinatzeke, ezarritako helburuak betetzeko (Valcke, Guoyuan, Rots, eta Hermans, 2010).

### 1.4. Usteen aldaketak: eragile gakoak

Nola sortu eta aldatzen dira usteak? Ez da inolaz ere erantzun errazeko galdera. Adituak aditu, Pajaresentzat (1992) kultura-transmisio eta gizarte-eraikuntzaren prozesuan sortutako egiak dira, ausaz sor daitezkeenak, esperientzia bizi bezala ala gertakarien segida moduan. Aurrez aipatu dugun *continuum* eta *galbahe* kontzeptuak elkartuko ditugu. Esan dugu bizitako esperientziak etorkizunekoak baldintzatzen eta moldatzen dituztela. Griffin eta Ohlsson-en (2001) aburuz (2001), usteak alderdi kognitiboarekin, emozionalarekin eta sozialarekin elkarreraginean daudelako izan liteke. Beraz, ez zaigu hain arrotz eta ezinezko irudituko irakasleek uste sendo batzuei uko egin behar izatea testuinguruagatik edo jardueren bitartez uste horiek ezin direlako irakas-jardun arrakastatsutan gauzatu (Ertmer, 2005).

Bestela ere gerta daiteke, adibidez, irakaslearen teoria pertsonalak eta usteak hain sakon erroturik izatea non, ia ezinezko izango litzatekeen horiek aldatzea eta moldatzea. Oro har, irakas-usteen literaturan onartua da irakaslearen jarduna eragile askoren menpe dagoela eta haren irakas-usteen eragina handia dela irakas-jardunak hautatzerakoan; hala eta guztiz ere, ez da zientzia ziurra, hamaika arrazoi tarteko irakasleen uste ziurrak, teoriak eta printzipio metodologikoak bazter batean utzi baititzakete eguneroko irakas-jardunean (Borg, 2003). Urmstonen (2003) ikerketan ondorioztatu zen etorkizuneko irakasleen usteak eta ezagutza ikasle-garaiko hezkuntza-esperientzian hasten dela, baina etorkizuneko irakasleak jasotako edozein esperientzia hezigarrik eragina duela, eta bereziki azpimarratu irakasle-eskoletako praktikaldiaren indarra, usteak eraldatzeko botere handia du-eta.

Esaterako, Barcelos eta Aragãok (2018) azpimarratu dute etorkizuneko irakasleen eta jardunean ari diren irakasleen emozioak ezagutzea giltzarri dela usteen aldaketarako, doiketarako eta berregituraketarako; izan ere, adituen esanetan, emozioak eta usteak hertsiki lotuak daude, baita irakas-jardunekin ere, eta bien arteko harremana ezagutzeak irakasleen usteak eta jardunak hobeki ulertzea ekarriko luke hainbat testuingurutan.

Usteak helduleku aparta dira irakasleen jarrera, antolamendua eta jarduna iragartzerakoan (Pajares, 1992). Aspaldikoa izanik ere, Rokeachek (1968) usteak bost geruzatan banatu zituen, irakaslearen baitan duen zeresanaren arabera: zenbat eta erdigunetik gertuago, orduan eta errotuago eta barneratuago leudeke uste horiek; kontrara, zenbat eta erdigunetik urrunago, orduan eta ahulago eta errazago uste horiek moldatzea. Usteen aldaketa, beraz, kanpotik barrurakoa litzateke adituaren aburuz.

- Erdigunean, nukleoan, muineko ideiak daude, bizipen pertsonalen bitartez osatutakoak eta gizartearen eraginez indartutakoak. Oso gogorrak dira aldaketekiko, norbanakoaren identitatearekin lotuak baitaude eta giza taldearekin partekatuak.
- Ondoren, nukleoaren inguruko geruzan, esperientzia-bidezko usteak daude; pertsonalagoak dira eta ingurukoek ez dituzte baldintzatzen.
- Jarraian, bost geruzen erdiko puntuan, norbanakoaren uste bereizgarriak topatzen dira, aginte edo botere zehatzei lerratuak, besteengandik ezberdintzen dituenak.
- Azkenaurreko geruzan uste aldakorak daude, botere edota aginte zehatz horietatik eratortzen direnak; kanpo-eragileek sorturiko usteak lirateke.
- Kanpoko geruzan kokatuko dira uste moldagarrienak, gogo eta gustuek finkatutakoak.

Kaganen (1992) ustez, Rokeachek (1968) proposaturiko ereduak balio du erdiguneko uste sendoek ondorengo geruzatan daudenak baldintzatuko dituela azaltzeko, baita galbahe moduan esperientzia berriak nola moldatuko diren esplikatzeko ere. Alta, Rokeachek ez ditu irakasleen irakas-usteak erdigunean jarriko; Albion eta Ertmer-ek (2002), bai, ordea. Ikertzaile bikoteak iradokitzen du irakaskuntzarako usteak epe luzeko esperientzietan oinarrituak egon daitezkeela, ikasle-garaian hasita, aldaketarako erresistentzia-maila handia izanik. Erresistentziak erresistentzia, ezin da inolaz ere baieztatu usteak betierekoak, higiezinak, direnik; kontrara, etengabeko dialektikan eta doitze-egoeran baitaude testuinguruarekin eraldatze-prozesuan (Nespor, 1987).

Etorkizuneko irakasleen ikerketaren talaiatik, ikuspegi kontrajarriak daude; izan ere, egindako ikerketek adierazten dute, alde batetik, badagoela usteak molda daitezkeela

unibertsitatean irakasle-ikasketak egiten ari diren ikasleen artean (Borg, 2011; Busch, 2010; Cabaroglu eta Roberts, 2000; Mihaela eta Alina-Oana, 2015; Phipps eta Borg, 2009; Sheridan, 2016; Yuan eta Lee, 2014), eta, bestetik, aldaketarik neurtu ez dutenak (Borg, 2005; Peacock, 2001; Urmston, 2003).

Usteen erresistentzia-maila denbora eta faktore askoren eraginpean daude aldaketa gauzatu ahal izateko. Eragile horien identifikazioan, Neunerrek (2009, Haukås, 2016n aipatua) honako hiru baldintza ezarriko ditu usteen balizko aldaketari begira: lehenik, irakaslegoak sinesgarritzat hartu behar ditu kurrikuluan egin nahi diren aldaketak, ikaskuntza-prozesu eraginkorragorako eta motibagarriagorako bide egingarria dela sinestarazteko; bigarrenik, irakasleak helburu duen jardunerako beharrezko prestakuntza jaso behar du; hirugarrenik, irakasleriak bere lana egin ahal izateko babes, jarraipen eta materialak behar ditu. Adituak bereziki nabarmentzen du irakasle-trebakuntzaren zeresana, hezitzaileak baitira lehenik formazioaren abantailaz ohartu behar direnak.

Esaterako, Sheridan-ek (2016) unibertsitate-mailan egin zuen ikerketa. Bertan, irakasle-eskolako ikastaldean (etorkizuneko irakasleen) irakaskuntza- eta -pedagogia-usteak ikertu nahi zituen. Haren ikerketak helburu zuen etorkizuneko irakasleen usteak formazio-ikastaro aurretik eta ostean neurtzea, usteak garatu ote ziren aztertzeke. Emaitzek adierazi zuten usteak garatu zirela eta aukera handia dagoela prestakuntza-saioen bitartez formazioa emango balitz. Era berean, lau urteko irakasle-eskolako gradu usteak eraldatzeko abagune aparta dela azpimarratu zuen, etorkizuneko irakasleria jardun berritzaileetan trebatzeko. Gainera, balio hezigarria duten irakas-jardunak irakastearen aldeko aldarria egin zuen graduko lau urteetan zehar, eta, horretarako, mugarriztat hartzen du ikasleen usteak ikertzea, edukiak haien beharretara egokitzea eta eboluzioa uneoro neurtzea, helburua erdietsi ahal izateko.

Oro har, adituek adierazten dute faktore guztien artean bi direla azpimarratzeko eragileak: testuingurua eta esperientzia. Voinea eta Toader-en (2014) ikerketen harira, badirudi irakas-usteei buruz hausnartzea lehen urratsa dela usteen aldaketa noizbait gauzatzeko; izan ere, haren ustez, norbere usteen ezagun izatea eta jardunari buruzko hausnartzea giltzarri dira usteen aldaketarako. Aipamen horren atzean, ALACT ereduak teoria-mailan sostengatzen du ideia hori (Korthagen eta Kessels, 1999; Korthagen eta Vasalos, 2005; Swennen et al., 2017). ALACT laburdurak ereduaren honako bost faseak



adierazi nahi ditu, ingelesez: 1) **Action**, 2) **Looking back on the action**, 3) **Awareness of essential aspects**, 4) **Creating alternative methods of action** eta 5) **Trial** (ikus 1.1 irudia). Labur-labur, ereduak dio irakasleak bere esperientziei buruz egiten duela hausnar, baina hausnarketaren sakontasunean faseak eta mailak daudela aldaketaren bidean. Hala, ALACT ereduak iradokitzen du hausnarketa 5 epe edo momentu ziklikotan egituratzen dela; azken estadioaren ondoren, lehenengoarekin hasiko litzateke berriro, zikloa itxi eta berriz ere irekitzeko, denbora-tarte ezberdinetan, mugarik gabe, irakaslearen uste eta jardunen gurpila etengabe elikatzeko.



**Irudia 1.1** Usteen eraldaketarako ereduak: ALACT

Iturria: Korthagen eta Kessels, 1999

1.1 irudiak iradokitzen digu bost fasetan banatutako egitura. Edukiari erreparatuz gero, ondorengo lau eragileetan oinarritzen da: 1) Ingurunean: irakaslearen ahalmenetik nahiz erabakimenetik kanpo dagoena; 2) Jarreran: errealitatearekin bat egiten duena; 3) Gaitasunean: errealitateari ahalik eta erantzunik egokiena, eraikitzaileena, ematean; 4) Usteetan: gertakari, jarrera nahiz errealitate jakinaren aurrean irakasleak izan ditzakeen juzguetan.

ALACT ereduak proposatu aurretik, Kaganek (1992) iradoki zuen irakasleen trebakuntza osoa erdiesten lagundu ahal izateko, irakasleek indarrean eta erroturik dituzten usteak identifikatu behar direla lehenik, ondoren, ikaskuntza pertsonalizatu ahal izateko. Behar

adina denbora eta baliabide eman behar zaizkio, uste berriak irakaslearen uste-sisteman integratu eta jardunaren bidez gauzatzeko. Clarke eta Hollingsworth-en (2002) ustez, igarri daiteke –eta nolabait ondorioztatu ere bai– irakasle-eskolako formazio soilak ez duela usteen aldaketa positiboa eta esanguratsua bermatzen. Ondorioz, proposatzen dute irakasleak haren ikasleen gogoeta bultzatu behar duela, norberak bere usteez hausnartzeko, formatzailearekin eta testuinguruarekin dialektikan; baina bereziki barne-elkarrizketan. Kaganek (1992) iradoki zuen irakaslearen uste-sistemari erreparatuz gero posible izango litzatekeela irakaslearen mamitasun profesionala behatzea.

Beraz, usteen aldaketa testuinguruaren etengabeko estimulupean eta *feedback*-pean dagoela ondorioztatzen dute adituek. Liang eta Dixon-en (2009) ondorio nagusietako bat da etorkizuneko irakasleek jaso beharko luketen prestakuntzaren ardua nagusienetako irakas-usteetan heztea dela eta uste-sare horretan gertatzen diren aldaketak modu pedagogiko, hezitzaile eta egingarrian laguntzen irakatsi beharko litzatekeela. Izan ere, hein handian, unibertsitateko irakasleen jardunak eta kalitate pedagogikoak baldintzatzen du etorkizuneko ikasleen ikaskuntza-prozesua, eta hori profitatu beharko litzateke irakasleen uste-sarean aldaketak eragiteko (Allen, 2013). Horregatik guztiagatik, azpimarratzen du irakasleek beren usteen hausnarketan eta identifikazioan laguntzea; beste hitzetan, irakasle-eskolen betebeharrerako bat litzateke usteen eta jardunen arteko harremanen identifikazioan trebatzea.

Aurrekoaren berrespena litzateke Phipps (2007) egindako ikerketa. Horretan, metodo kualitatiboaren bitartez, ondorioztatu zuen ingeles-gramatika irakasteko berriaz diseinatutako formakuntza-ikastaroak positiboki eragin ziola irakasleen uste-sistemari. Izan ere, usteak jardunen bitartez bideratzeko ereduak eman zitzaizkien, baita jarraipen haien ikastaroari jarraipena eman ere. Oro har, irakasleek egokitu eta eguneratu zituzten bere uste-sareak eta irakas-jardunak. Edonola ere, itaun bat utziko du airean: zenbaterainoko ondorioa izango luke trebatze-ikastaro batek hizkuntza-irakasleen usteetan?

Itauna erantzuten saiatuko zen Borg (2011), eta DELTA (Diploma in Teaching English to Speakers of Other Languages) ikastaroa baliatuko zuen ikerketarako. Ikastaroak irakasleei formazioa eskaintzen zien atzerriko hizkuntzako irakas-abileziak eta -teknikak hobetzeko, eta bertan parte hartutako irakasleei ikerketan parte hartzeko gonbitea luzatuko zien.

Trebakuntza horretan ez du irakasleen usteetan erroko aldaketarik identifikatuko; hala eta guztiz ere, azpimarratzekoak izango dira usteen garapenerako zantzuak, kontzientziazioaren aktibazioa, usteen indartzea eta sakontzea. Borgek (2011) honako ondorioa azpimarratuko zuen: irakasleek usteak jardun bidez gauzatzen ikas dezakete; baina horretarako baliabideak eta jarraipena ezinbesteko dira.

Kontrapuntua gisa, Mihaela eta Alina-Oana-ren (2015) ikerketa-ondorioak leudeke. Adituen interpretazioaren arabera, irakasleek gogoetak egiten dituzte beren jardunari buruz, halere, trebakuntza-mailaren, esperientziaren eta rol-azterketaren hausnarketak ez dira usteen aldaketan islatzen; aitzitik, norberak uste-sistema gainbegiratzen du eta etorkizunerako ekinbideak ebaluatuko lituzke soilik. Haien iritziz, gertagarriagoa da irakasleen jarreraren, azalekoenetan, aldaketak eta egokitzapenak epe motzean ikustea, beste ezer baino lehen. Erro sakonagoko usteen aldaketa epe luzekoa da, esperientzia eta hausnarketa handiagokoa. Bi adituek lotura estua nabarmenduko dute hausnarketarako gaitasunean eta jarreraren artean, prozesua hainbat eragilerekin harremanetan baitago, hala nola, lan-esperientziarekin, ikasle-esperientziarekin, eskola-kulturarekin, testuinguru sozialarekin. Horrela, irakaslearen hausnarketarako gaitasuna garatzearekin batera irakas-usteak ere moldatuko dira, eta horiek behagarriak izango dira irakasle-jardunetan.

Bukatzeko, usteen aldaketei buruz mintzatu gara azken honetan, eta horiek gertatzeko ondorengo hiru ildo edo estrategia iradokiko dituzte Nespor (1987), Rokeach (1968) eta Ertmerek (2005), haientzat erabakigarriak baitira usteen sorkuntza, errotze eta aldaketarako: esperientzia pertsonalak, zeharkakoak eta eragin soziokulturalek bultzatutakoak. Lehenengoak irakaslearen ibilbide osoa barnebiltzen du, ikasle-sasoitik orain artekora, eta bizitzako esperientzia denen eta formazioaren batura litzateke. Bigarrenak, aldiz, ez ditu irakaslearen norbanako esperientziak zuzen-zuzenean kontuan hartzen, baizik eta hezkuntza-komunitateko irakasleen bizipenak, esperientzia hezitzaileak, ereduak, usteak, ideiak eta ezagutza partekatua. Irakaslearentzat informazio-iturri izateaz gain, irakas-estrategien trukerako gunea ere bada, jardun bitartez usteak haragitzeko lekuko errealak, konfiantza hazteko testigantzak eta eraginkortasuna handitzeko baliabidea (Ertmer, 2005). Irakasle-usteak moldatzeko, beraz, eredu esanguratsuak eta egingarriak beharko ditu irakasleak; erronkak behar

dituzten bezala, sostengua eta beste irakasleekin hartu-emanak bezalaxe. Hirugarrenak, eragin soziokulturalak, dio irakas-ustek eta -jardunak etengabe moldatzen ari direla, eta aldaketa horren eragile nagusiak gizartea, kultura, balio-sistema, juzguak eta norbanakoaren nahiz komunitatearen esperientzia partekatua direla.

Usteekin amaitu eta bigarren atalarekin, eleaniztasunarekin, hasi aurretik, Borgen (2011, 379. or.) argibideen laburpena ekarriko dugu. Iparrorratz gisa funtzionatzen baitute irakasle-usteen identifikaziorako, hausnarketarako, aldaketarako eta usteen eta jardunen arteko lotura indartsuagoa erdiesteko. Lehenik eta behin, oso litekeena da arrotz gertatzea norberaren usteak aztertzea hasieran; beraz, beharrezko lanabesak eta sostengua eskaini behar zaizkio prozesuan hasiberria den irakasleari. Etengabeko laguntza eta azalpenak eman behar zaizkio usteak, ezagutzak eta jardunak zer diren ulertzeko, bereizteko eta horren garrantziaz jabetzeko. Ondoren, usteen eta jardunen hausnarketak egiten sostengua bermatu behar zaio, topa dezatela irakasleek gune eta komunitate bat elkarrizketa bitartez beren usteak truka eta gara ditzaten. Lanketa horretan, feedbacka eskaini eta irakasleen autonomia sustatu, hausnarketak beren kabuz egin ditzaten eta konturatu daitezzen iraganeko ikasle-esperientziarekin, lan-esperientziaren eraginarekin eta etorkizuneko aukera posibleekin.

## 2. ELEANIZTASUNA

Bigarren atalean, eleaniztasuna izango dugu ikergai. Hurrengo orriotan elebitasunean eta eleaniztasunean esanguratsuak diren aditu nahiz ikerlarien ekarpenak izkiriaturko ditugu. Eskuarteko tesi-ikerketaren oinarri diren ikuspegi eta eredu eleanitzak azalduko, tesiaren bizkarrezur izango baitira.

Guztira, bost azpiataletan banaturik egongo da. Hasteko, elebitasuna eta eleaniztasunaren inguruko definizioak eta azalpenak emango ditugu; izan ere, gure tesi-ikerketan elebitasuna eleaniztasuna izango da, eleaniztasunaren adierarik txikiena, hizkuntzen ekuazioan ele bat baino gehiago sartzen denean. Bigarreanean, elebitasunaren sailkapena osatuko dugu, baita bi ele baino gehiago arrunt diren egoeretan jarraibidea eskainiko ere, hain zuzen ere doktorego-tesian eleaniztasuna zer irizpideren arabera arautuko dugun. Hirugarrenean, eleaniztasunaren ikuspegiaren bilakaera orriratuko dugu, hizkuntzak modu isolatu eta indibidualean ulertzen zituzten ereduak hasi eta eredu integratuago eta eleaniztunagoetarako garapena deskribatzeko. Laugarrenean, fokua eredu eta teoria eleaniztutan jarriko dugu, hizpide izanik tesi-ikerketak honek hizkuntzen ikuspegiari buruz duen eredu teoriko nagusia: Focus on Multilingualism eredu. Bosgarrenean, eleaniztasunak dakartzan abantailak izango ditugu idazgai; horretarako eleaniztasunari egozten zaizkion onurez mintzatuko diren ikerketak eta adituen ekarpenak bilduko ditugu komunikazioaren, kulturaren eta kognizioaren ingurumarian. Arreta berezia eskainiko zaio kognizioaren atalari, gure tesiaren arretagune izango baitira gaitasun metalinguistikoan, pentsamendu sortzailean eta hirugarren hizkuntza eskuratzen eskaintzen dituzten abantailak eta onurak.

Aurreko mende bukaeran hasi zen nabarmentzen hizkuntza bat pertsona bat monomioaren lurrikara. Berriarekin hastearekin batera, azpimarratu ziren norbanakoaren eta gizartearen behar linguistikoak eta, hezkuntzaren bitartez, hizkuntza bat baino gehiagoren irakaspenera eta ikaspenera ahalbidetzea, tokian tokiko hizkuntza bermatzeko mugimenduak nahiz transmititzeko eta hizkuntzaren estatusa indartzekoak. Hezkuntzaren talaiatik, hezkuntza-proposamen-eleaniztunak bogan izan dira azken bizpahiru hamarkadatan (Portolés eta Martí, 2018). Horren kariaz, hezkuntza-

eleanitzaren proposamena garatuko da eta hori egia bilakatzeko hezkuntza-metodologia anitzak. European, eta gurean ere bai, ezaugarri bereizgarri bilakatuko da, baita ardatz ere zenbait nazio-estatu aurrerazalean eta estatu gabeko makina bat naziotan (Cenoz eta Gorter, 2011a; Erdocia, 2018; Gorter eta Cenoz, 2017) hala nola, Euskal Herrian, Galesen eta Katalunian, besteak beste.

### 2.1. Eleaniztasuna definitzen

Adiera guztiek behar-beharrezko duten bezala, eleaniztasunak ere behar du definizioa. Egitekoak erraza badirudi ere, berau izendatzea eta mugak finkatzea ez da lan makala; izan ere, adituak aditu, ikuspuntu anitzak eta kontrapuntuak aurki genitzake eleaniztasunaren definizioan. Oro har, sinonimotzat jo izan dira eleaniztasun eta elebitasun hitzok; bi adierek bat egiten dute azpimarratzen bi hizkuntza edo gehiagoren erabilpena dela (Baker, 2011; Cenoz, 2009; Comanaru eta Dewaele, 2015; Grosjean, 1985, 2010; Ng eta Wigglesworth, 2007; Wei, 2018). Hain zuzen ere, honako tesi-ikerketan elebitasuna eleaniztasuna izango da, eleaniztasunaren adierarik txikiena, bi hizkuntza soilik hartuko lituzkeena kontuan, baina eleaniztasunaren zati. Hau da, elebitasuna izango litzateke eleaniztasunaren adierarik txikiena, ondoren, hirueletasuna eta haren ondorengoak: hizkuntza gehiago ala gutxiago, denak eleaniztasunaren adiera (Aronin eta Singleton, 2012; Cenoz, 2013b).

Kategorizazioak kategorizazio, hiztunak sailkatuak izan dira dakizkiten hizkuntza-kopuruagatik. Horretaz gain, zalantzaren hautsak harrotu izan dira hiztunaren hizkuntzen gaitasun-maila zehazterakoan; etimologikoki, eleanitza bi ele baino gehiago dakizkiena da, ezagutza-maila zehaztu gabe. Horren ildotik, bigarren, hirugarren eta errenkadako hizkuntzak ikasterakoan zer irizpide jarraitu ere eztabaidagai izan da askorentzat. Hasierako definizioan oinarriturik, Cookek (2002, 2003) argudiatuko du Lehenengo Hizkuntzaren (hemendik aurrera H1) ondoren ikasitako ele guztiak H2 izango direla, baita hirugarrena eta laugarrena ere, H2tzat hartuko baititu denak. Beraz, elebitasunaren binomioan ( $H1 + H2$ ) haratago definitu eta ikertu ahal izateko, eleaniztasuna zehazteko premia handiagoa aldarrikatuko zuten hainbat adituk. Hala, hizkuntzak, kuantifikatu orde, eleaniztasun-maila hasiko da bi ezaugarritan oinarritzen: hizkuntzak noiz eskuratu ziren eta ze ezagutza-mailaraino (Dewaele, 2007). Aurreko atalean auresan bezala,

horixe izango da gure doktorego-tesiak izango duen irizpide linguistikoa. Gertakariak horrela, eleaniztasunaren paradigma ezaugarritze argiago eta kategorizazio zuhurragoaren bidegurutzean egongo da hirueletasunean sakontzerakoan (Cenoz, Hufeisen, eta Jessner, 2001); International Journal of Multilingualism Aldizkariaren goiburuak aitatzten duen moduan, Cenoz eta Jessner, aldizkarirako artikulugile direnez gero, elebitasunaz haraindi nahi dute ikertu, eleaniztasunak beregain hartzen dituen prozesuak, jabekuntzak, fenomenoak, hezkuntza-prozesuak eta ezaugarriak ikertzeko.

Hirueletasunaren ingurumarian, eztabaida mamitsuak sortuko dira. Izan ere, hirueletasuna, elebitasuna eta eleaniztasuna ezberdintzea adituen ikuspuntu askoren topaleku izango da eta ulertzeko era ezberdinen gune. Adibidez, horietatik guztietatik elebitasuna eta eleaniztasuna konparatzerakoan egin den ekarpen interesgarrienetakoa, hirtunen hizkuntzak ezberdintzen eta bereizten dituzten ezaugarriak baino, hirueletasunak elebitasunaren aldean konplexutasunerantz pauso bat haratago egitea dela; izan ere, hizkuntza-ezagutzaren aldetik, elebiduna elebakarra baino konplexuagoa den heinean, hirugarren hizkuntza ekuazioan sartzea maila bat gorago egitea litzateke. Hoffmannek (2001), aldiz, gaineratuko du bien arteko ezberdintasun bakarra kuantitatiboa dela, hizkuntza-prozesamendurako mekanismoek berdin jokatzen dutelako hizkuntza gehiagoren jabekuntzan. Eskuarteko ikerketak ere berdin ulertzen du eleaniztasuna: hizkuntza bat baino gehiago ikastea konplexutasunerantz urrats gisa.

Zaharra bezain esanguratsua da Gardnerek (1983) azaldutako ideia. Estatuatuarraren aburuz, hizkuntzak ikasterakoan “giza psikologiaren benetako saiakeraren” aurrean geundeke; izan ere, guztiok jakina da hizkuntzak komunikazio-eginkizunetik haratagoko tresna direla; alegia, hizkuntzak ikastea kultura ezagutzea ere badela, ezen kultura hori gizatalde jakinarena baita, eta hartu-eman hori galbahe sozialetik, politikotik eta historikotik pasatzen dela. Gainera, norbanakoaren identitate-eraikuntzan berebiziko garrantzia dauka. Horren harira, identitate hori moldagarria da, dinamikoa eta anitza, etengabeko eraldatze-prozesuan baitago esperientziaren eta interakzioaren bidez (Norton eta De Costa, 2018). Halaber, Paia et al.-ek (2015) gaineratuko dute, identitatearen zenbait alor moldatzen zailagoak diren arren, eskolak berebiziko indarra duela beste askotan eragiteko, sozializazioarekin lotuta daudenak bereziki, esperientzia eta izaera sozialekoak baitira.

## 2.1 Eleaniztasuna definitzen

---

Elebakartasunaren mitoa alboratuta, gizateriaren tasuna izan da eleaniztasuna. Egun, “Ethnologue: languages of the world” webgunearen 23. edizioaren arabera, 7117 hizkuntza mintzatzen dira gaur-gaurkoz munduan (Eberhard, Simons, eta Fennig, 2020); horrenbestez, atzerakoitzat uler daiteke *nazio-estatu bat hizkuntza bat* ikuspegia, ez da eta bideragarria, ez naturala, ez errealitatearen isla (Erdocia, 2018). Oro har, kalkulatu da mundu-biztanleriaren erdia elebiduna dela, beraz, elebakartasunaren mitoak ez du funtsik. Eta zehaztapenak atsegin baldin baditugu, jakin, Estatu Batuak eta Kanada azken postuetan dabiltzala elebitasun-rankinean, % 18-20rekin; % 56 inguru Europan, izanik Luxenburgo elebitasun-kopuru handiena duen herrialdea, izanik biztanleriaren % 99 elebidun.

Elebitasunaren idealizazioan, giza garunean txertaturik daukagu bi hizkuntza goitik behera bikain menperatzea; sarri-askotan, definizioak berak ezinezko egoeretara eramanez norbanakoa (Cenoz eta Gorter, 2015). Definizio gauzagarriagoa emango digu Bialystokek (2001). Adituaren aburuz, bi hizkuntzatan komunikatzeko gaitasunari dagokio, bata ala bestearen hautua eginez egoeraren arabera, funtzio eta helburua gorabehera; nahiz eta hizkuntza bakoitzean gaitasun-maila ezberdinak dituztela sentitu. Goikoa definizio bat baino ez da izan, zerrenda luzea baita, eztabaida bukaezinak izanik terminoaren izendapenean eta zehaztapenean. Elebitasunean aditu direnen hainbat nozio, adiera eta definizio bildu ditugu 2.1. taulan, oinarri izanik Ng eta Wigglesworthek (2007, 3-6, or.), Cenozek (2009) eta Erriondo et al.ek (1993, 50. or.) jasotakoak:



**Taula 2.1.** Elebitasuna definitzen: adituak eta adierak

<b>Aditua</b>	<b>Definizioa</b>
<i>Haugen (1956)</i>	Hiztunak bigarren hizkuntzan adierazgarriak diren mezuak adieraz ditzakeenean.
<i>Ng eta Wigglesworth (2007)</i>	Bi hizkuntzetan, berezko hiztunak hizkuntza bakoitzarekiko duen hizkuntza-ezagutza eta horien erabilera.
<i>Erriondo, Isasi eta Rodriguez (1993)</i>	Bi hizkuntza jakitea eta maila batean edo bestean biak erabiltzeko gaitasuna izatea.
<i>Bloomfield (1933)</i>	Bi hizkuntza edo gehiago menperatzea lehen-hizkuntzaren jabekuntza-mailan.
<i>(Mackey eta Coleman, 1967)</i>	Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna.
<i>Weinreich (1953)</i>	Bi hizkuntzen erabilera-tartekatua.
<i>Cenoz (2009)</i>	Bi hizkuntzetan komunikatzeko gai izatea.
<i>Baker (2011)</i>	Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea zehaztu gabeko ezagutza-mailan.
<i>Macnamara (1966)</i>	Bigarren hizkuntzan lau gaitasunetatik bakarra gutxienez garatzea.
<i>Hamers eta Blanc (1989)</i>	Iturri biko fenomeno, psikologikoa eta soziala: hizkuntza-kodeak ezagutzea eta erabiltzea egokiera psikologiko eta sozial jakinetan.
<i>Comanaru eta Dewaele (2015)</i>	Maila ezberdinetako ezagutza hizkuntza bat baino gehiagotan.
<i>Wei (2013)</i>	Elkarren artean ezberdin diren hizkuntzen arteko hartu-emanak, kontaktua eta bizikidetzak gizarte-mailan eta norbanakoan, non elkarrizketarako bi hizkuntza edo gehiago erabil ditzakeen.

Elebitasunarekin, zenbait ezberdintasun dago hizkuntza jasotako adinari erreparatuz gero. Horietatik, bi nabarmen genitzake: aldiberekoa eta ondoz ondokoa. Lehenengoa litzateke jaiotzetik bi hizkuntza jasotzea; adibidez, haur-jaioberriari aitak euskaraz egitea eta amak erdaraz. Bigarrena, ostera, hizkuntza bat jaiotzetik jaso eta bestea aurrerago; adibidez, gurasoek haur-jaioberriari ingelesez egitea, eta, eskolatzerakoan, euskaraz matrikulatzea, D ereduan. Meisel-en (2008) arabera hizkuntza-jabekuntza bereizi ezina izango da jaio eta bost urte arteko tartean egiten baldin bada murgiltze osoan; hots, ezin izango litzatekeela ezberdindu aldibereko ala ondoz ondoko elebitasuna ote den.

## 2.2 Elebitasunaren sailkapena

---

Azpimarratzekoak dira elebitasunaren honako beste bi aldaerak, *inputaren* eta *outputaren* kantitate eta kalitatearen arabera mailakatzeak: elebidun orekatuak eta desorekatuak. Lehenengoan, parekoa da bi hizkuntzetan jaso eta produzitzen dena; bigarreanean, aldiz, bi hizkuntzen arteko harmonia hautsi, eta batean gehiago jaso eta sortu egiten da bestean baino. Bestalde, gatazkatsua gerta liteke elebitasuna hizkuntza bakoitzean norberaren gaitasunagatik definitzea, eta ikertzaileek zuzenago baloratzen dute hiztunaren profilararen arabera sailkatzea (Bel, Vidal, eta Juan-Garau, 2008).

Eleaniztasunaren definizioan, aldiz, zalantza gutxiago daukagu, esangurak argi adierazten baitu elebitasuna, hirueletasuna eta goragokoak hartzen dituela. Esku arteko doktore-tesi honetan, Cenozen (2009) ikuspuntura gerturatuko gara eleaniztasuna definitzerakoan, hark ez baitu eleaniztuna sailkatzen hizkuntza-mailagatik eta, gainera, haren eleaniztasun-ikuspegia hizkuntzen arteko muga malguetan eta komunikatzeko gaitasunean oinarritzen da formari garrantzia kendu eta esangurari emateko.

Hortaz, argi gelditu da elebitasuna ere badela eleaniztasuna, eta elebitasunak bi hizkuntza ezagutzearen ezaugarriari men egiten diola. Hala, eleaniztasunak bi hizkuntza edo gehiagoren jabe dela esan nahi digu.

### 2.2. Elebitasunaren sailkapena

Definizioekin gertatu bezala, elebitasuna eta eleaniztasuna sailkatzeko ikuspegi anitz dago, bai tipologiari begira bai kontaktu-egoerari bai egoera sozio-politikoari bai beste hamaikari. Aronin eta Singleton-en (2012, 144. or.) hitzetan: “Eleaniztasunaren sailkapenak eta tipologiak eratzea egiteko konplexua da, eleaniztasuna izatez konplexua baita definizioz”. Ezbairik gabe, adituen ikuspegi anitzek mesede egiten diote ikergaiari, aberastu eta eleaniztasunaren enborra adarkatzen dutelako. Sailkatzeak sailkatze, badira zenbait entzutetsu (hala nola, Baker eta Jones, 1998; Hamers eta Blanc, 1983). Horien guztien ideiak bateratuko ditugu, eta aurrez Euskal Herrian egindako ekarpenak, Erriondo, Isasi eta Rodriguez (1993) eta Etxeberria (2005) ikerlarienak, eguneratuko ditugu Butler-enarekin (2012), elebitasuna eta eleaniztasuna sailkatzeko irizpideak taula bakarrean bateratzeko: elebitasunaren eta ezaugarrien arabera sailkapena:

Taula 2.2. Elebitasunaren eta ezaugarrien arabeko sailkapena

Alorra	Elebitasun-mota
Ezagutza-maila	Eleparekotasuna
	Ekilinguismoa
	Sasielebiduntasuna
	Diglosia
Hizkuntza-pentsamendua eta antolaketa-maila	Konposatua
	Koordinatua
	Menpekoa
Hizkuntza-jabekuntzaren adina	Goiztiarra
	Nerabea
	Heldua
Hizkuntzen jabetze momentua	Aldiberekoa
	Ondoz ondokoa
Jabekuntza-testuingurua	Ikaskuntza formala
	Ikaskuntza informala
Bi hizkuntzen arteko estatus soziokulturala	Gehigarria
	Kengarria
Kultura- eta nortasun-taldea	Bi kulturakoa
	Kultura bakarrekoa
	Kultura bakarrekoa
	Akultural anomikoa
Erabilera-testuingurua	Etxea, komunitatea, lanean
	Komunikazio-helburu zehatzetan
	Baldintzatutako egoera soziolinguistikoetan
Hizkuntzen arteko distantzia linguistikoa	Gertua
	Ertaina
	Urruna
Motibazioa	Integratiboa
	Instrumentala
Funtzioa	Harkorra
	Emankorra
Eraginaren araberakoa	Gehitzailea
	Kentzailea
Hizkuntza jasotzeko ordena	Lehen hizkuntza / Ama-hizkuntza (H1)
	Bigarren hizkuntza (H2)
	Hirugarren hizkuntza (H3)

**Iturriak:** Butler (2012); Erriondo, Isasi eta Rodriguez (1993); Etxeberria (2005) (Moldatuak)

Ezagutza-mailari dagokionez, lau taldetan banatzen ditu elebidunak: eleparekotasuna, ekilinguismoa, sasielebiduntasuna eta diglosiaren araberakoak. Lehenak, eleparekotasunak, bi hizkuntzak berdin menperatzen dituenari egiten dio erreferentzia,

jatorrizkoak egingo lukeen moduan. Bigarrenak, ekilinguismoak, ezagutza orekatua adierazten du bi hizkuntzetan, baina jatortasunean nabari dira aldeak. Hirugarrenak, sasielbiduntasunak, bi eleak tartekatzeko beharra dauka komunikazio-egoeretan. Laugarrenak, diglosiak, hizkuntzen arteko oreka eta funtzioak erabat baldintzaturik ditu testuinguruagatik edota komunikazio-egoeragatik, eta bata besteari gailentzen zaio funtzioaren edota egoeraren arabera.

Hizkuntza-pentsamenduari eta -antolaketari begira, hiru nagusitzen dira: konposatua, koordinatua eta menpekoa. Lehenengoak, konposatuak, bigarren hizkuntzaren ikaskuntza lehenengoarekin elkar harremanetan egin du, bi hizkuntzetan eragina izanik. Bigarrenean aldiz, koordinatuan, elearen eta estrukturen jabe egin da berezko testuinguruetan, momentu eta baldintza ezberdinetan, bi hizkuntzen artean elkarreragin esanguratsurik gabe. Azkenak, menpekoak, adierak berak dioen moduan, erabateko baldintzapean jasotzen ditu hizkuntzak, elkarreragin- edota interferentzia-maila handia erakutsita.

Hizkuntza-jabekuntza noiz jazotzen den aipagai, hiru momentu bereizten dira: goiztiarra, nerabea eta heldua. Igar daitekeenez, bizitzako hiru etapak barnebiltzen ditu eta hizkuntzak zein momentutan jaso diren. Horri jarraiki, jabetza-testuingurua izango genuke, hizkuntza jabetzeko honako bi bideekin: ikaskuntza formalarena eta informalarena.

Hizkuntzen jabetze momentuari erreparatuz gero, bi une genituzke bereizgarri: aldiberekoak eta ondoz ondokoa. Horrek men egingo lioke hizkuntzak jasotzeko hurrenez hurreneko uneari; beste hitzetan, H1 ardatz harturik, H2 eta ondorengoak noiz jaso dituen norbanakoak.

Bi hizkuntzen estatus soziokulturalari begira, bi joera identifika genitzake oro har: gehigarria eta kengarria. Lehenengoak, bi hizkuntzen arteko begirune eta estatus sozial positiboari dagokio; hau da, gizarteak onartzen ditu bi hizkuntzak, eta altxortzat dauzka. Haatik, kengarriak bestelako esangura du; izan ere, gizartearentzat hizkuntzetako nahiz kulturetako batek atxikirik ditu balio positiboak eta onartuak, eta bestea, aldiz, gradu ezberdinean zokoratua izango da, kaltetua, hizkuntzaren ospe eta izen ona lanbrotsuagoa izanik gizartean.

Hizkuntzak berak ordezkaten duen kulturari eta jarrera-sistemari men, hiru modutara aurkez daiteke: bi kulturakoa, kultura bakarrekoa eta anomikoa. Kasuak kasu, lehenengoa bi kulturen identifikazioarekin lotzen da, bakoitzak erreferentziatzeko kultura ordeztzen du, eta norbanakoak ditu biak bere eta ezberdintzen. Bigarrenean, hizkuntza batek hartzen du kulturaren pisu osoa, ez dago bi hizkuntzen eta bi kulturen atxikimendurik; kontrara, hizkuntzetako baten kulturak hartzen du soilik norbanakoaren identifikazio kulturala. Hirugarrenak, anomikoak, berezko kultura eta jarrera-sistema alboratu eta kultura-deserrotzea hartzen du, ezin kokaturik bere burua inongo kultura-komunitatetan.

Erabilera-testuinguruari begira, elebitasunaren presentzia handiagoa ala txikiagoa izan daiteke: hedatuago ala mugatuago. Beste hitzetan, toki fisikoek, pertsonak, ideiek eta politika linguistikoek zeharo baldintza dezakete elebitasuna edota hizkuntza baten erabilera esparrua, ezagutza, estatusa nahiz lekua gizartean.

Hizkuntzen arteko distantzia linguistikoa, hainbatetan *handicap* handia izan liteke edo erraztasun bi hizkuntzen bizikidetzarako, elkarren arteko ezaugarri linguistikoak gorabehera; zenbat eta berdintasun-maila handiagoa, orduan eta distantzia linguistiko txikiagoa.

Oro har, bi motibazio mota bereizten dira: integratiboa eta instrumentala. Bietatik lehenengoa litzateke, epe-luzeari eta arrakastari begira, hobe, izan ere, motibazio integratibodun norbanakoak horixe bilatzen du: hiztun-komunitatean eta haren kulturaren murgiltzea. Bigarrenak, ordea, instrumentalak, hizkuntzari etekina atera nahi dio, helburu zehatza dauka, hala nola, lan-munduan aukera hobeak izatea, estatus sozial oparoagoa lortzea, besteak beste.

Hizkuntza bakoitzaren funtzionalitatearen arabera, harkorra eta emankorra bereizten dira: lehenengoak jaso besterik ez luke egingo, eta bigarrenak sortu. Hizkuntza ikastearen eraginari begira, eleaniztunak bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasterakoan, ikaskuntza horrek ama-hizkuntzaren ezagutzan sorrarazten duen eraginagatik bi eragin-maila ezberdintzen dira: batetik, gehigarria, eragin positiboa duen eleaniztunaren hizkuntza-ezagutza eta, bestetik, kentzailea ondorio negatiboak sorrarazten dituen. Azkenik, oro har literatura zientifikoan erabiliena eta hezkuntzan hedatuena izan den ezaugarria izan da hizkuntzak jasotzeko ordenari erreparatzea. Hortaz, jasotako lehenengo hizkuntzari "H1" deituko zaio; bigarren hizkuntzari, "H2"; hirugarrenari, "H3";

eta abar. Lehenengo hizkuntza eta bigarren hizkuntza, biak aldiberekoak direnean bi lehenengo hizkuntza edo bi H1 dituela esatea ohikoa izaten da. Gure tesi-ikerketan tarteka-marteka adiera horietatik zenbait erabiliko ditugu, elebidun pasibo, aktibo eta orekatua, esaterako. Edonola ere, hizkuntza jasotzeko ordena izango da honako doktorego-tesian normaltasun osoz erabiliko duguna; batetik, ez diolako hizkuntza-mailari, orekari, ez funtzioari erreparatzen, eta bai eleaniztunaren bizitzan elea jasotzeko hurrenkerari; bestetik, hizkuntzen arteko muga malgu eta eleanitzaren ereduari jarraiki, gure tesiaren jarraibide egokiena delako.

### 2.3. Ikuspegi bilakaera: ikuspegi frakzionaletik, holistikora

Hamarkadak atzera, Grosjean-en (1985) ekarpen nagusia izango da eleaniztasun-ikuspegi berriaren aldarri egitea. Frantziarrak ezbaian jarriko du indarrean dagoen elebitasunaren kontzeptua; izan ere, ordura arte, eta baliteke orain jendartearen inkontziente kolektiboan ere bai, elebidunaren bi hizkuntzak banaka isolatuak irakatsi, ikasi eta erabili izan dira (Cenoz eta Gorter, 2015). Izan ere, badirudi sakon errotua dagoela eleaniztuna hizkuntza-gabeziadunarekin konparatzea, hizkuntza bakoitzeko berezko hiztun izatea eskatzen baitzaio (Cenoz eta Gorter, 2011; Cook, 1997, 1999; Gorter eta Cenoz, 2017), bete ezina den berezko-hiztunaren jomuga jarririk ikasleari, horixe delakoan “eleaniztun eredugarria” (Cenoz eta Gorter, 2015)

Beste hitzetan, Grosjeanen (1985) ekarpena heldu bitartean, elebiduna bi elebakarren batuketatzat hartuko zen: *two monolinguals in one*. Ondorioz, elebitasuna –eta zer esanik ez eleaniztasuna– ikuspegi elebakarretik ikusia izan da luzaro; ikuspegi-elebakarra eta eleanitza ezbaian jarriak izan dira, eta horien izen-deitura nagusienak honakoak izanik, hala nola, “parallel monolingualism” (Heller, 1999, 271. or.), “two solitudes” (Cummins, 2005), “separate bilingualism” (Blackledge eta Creese, 2010, 105. or.) eta OLON “One Language Only” (Wei, 2011, 374. or.). Elebitasunaren ikuspegi tradizionalak balazta moduan jokatu izan du sarritan, garapen abegikorrago eta integratzaileagoen oztopo; egoerak egoera, egun, ikuspegi-elebakar hori ezbaian jartzen hasia da mendebaldeko hainbat gizartetan, hizkuntza gutxituen burujabetza mugimenduekin (Hambye eta Richards, 2012).

Herrialde bat, hizkuntza bat. Nazio-estatuaren ikuspegia elebarkar bereizlea izan da luzaz, eta ezaugarri bereizgarrietakoa: unitatea, batasuna eta identitatea bermatu asmoz (Erdocia, 2018). Izan ere, historiak erakutsi du eskolak beti egin izan duela elebarkartasunaren, uniformizazioaren, alde (Spolsky, 2009), eta Euskal Herria ez da salbuespena izan, ezta hurrik eman ere.

Nazioaren eraikuntzan hizkuntza oinarriko lanabesa izaki, estatuaren hegemonikoa ez zen hizkuntza zokoratua izan da. Eskubideen aldarrikapenekin batera mugitu izan dira posizioak, kokaleku abegikorragoetara, ikuspegi integratzaileagoetara. Zenbait aditu ausartu da esatera hizkuntzen ikuspegi monolitiko eta isolatzailea agortua dagoela, eta paradigma berriaren aurrean kokaturik gaudela ezinbestean (Cenoz eta Gorter, 2015; Creese eta Blackledge, 2010; Wei, 2011; Otwinowska, 2014).

Teoriak eleaniztasunaren alorra mugatu arren, gaurko praxiaren oinarri-oinarrian, elebitasunaren ikuspegi frakzionalak oraindik ere indarrean dirau. Berezko hiztuna, natiboa, helburu dute eskoletan, ikaslea heziz berezko hiztunaren gaitasun- eta ezagutzamailetara, zeina sarri-askotan helburu eskuraezina den (Cenoz eta Gorter, 2015). Nahiz eta eredu teoriko malguagoak eta pentsamendu-mailan hizkuntzen ikuspegi integratzaileak eraiki, zaila da errotutako hizkuntza-ustek azaleratzea, tradizioari aurre egitea eta egitasmo berritzaileak praktikara eramatea. Esaterako, hizkuntzak bakantzeko ikuspegia oinarri, berezko hiztun eta elebarkarrak diren irakasleek ezingo dute H2 eta H3 ikas- eta irakas-prozesuetako esperientzia hori baliatu, ez baitute inoiz halakorik bizi izan eta (Cook, 2007; Otwinowska, 2014, 2017).

Esaterako, Euskal Herriko biztanleen (eta munduko zoko gehientsuenetan bezalaxe) hizkuntza-gaitasunak frogatu behar dituztenean, azterketok eredu-elebarkarretik egiten dira, desaktibatuz gainerako hizkuntza-baliabideak, hizkuntza isolatzeko eta, azken finean, haren hizkuntza-maila bakandu eta "garbiari" erreparatu eta ebaluatzeko. Eleaniztasunaren aldeko apustua egiterakoan eta ikastetxeetan horren alde egin nahi denean, ia guztietan, denetan ez bada, gainazaleko eredu-eleanitz horren erroak elebarkarrenak dira, hizkuntzak modu isolatuan irakasten dituzten ikuspegiarena (Cenoz eta Gorter, 2011b). Hain zuzen ere, aurreko ikuspegi eta eredu elebarkarren arrastoen gainean eraiki da eredu eleanitza, aurreko eredia gaurkotu eta egokitu nahian, eragina izanik irakaslearen jardun nahiz metodologian, hizkuntzak modu isolatuan irakastea eta

jatorrizko hiztuna helburu izatean (Cenoz eta Gorter, 2015). Horien artean, hizkuntzak modu isolatuan eta banaka irakastearena, adibidez, hausnartzen hasia da, eta badirudi zenbait eremutan ezbaian jartzen hasia dela, paradigma berri eta irekiagoetara eramateko asmoz (Cenoz eta Gorter, 2015, 2017; Cook, 2001; Cummins, 2000, 2014; Saragueta, 2019; Villabona, 2020; Leonet, 2018).

Hezkuntzan, beraz, hizkuntzak modu isolatuan irakasteko metodologiek indarrean segitzen dute, irakasle bereziak edo espezialistak deiturikoak izanik hizkuntza bakoitza irakasteko arduradunak, horretarako baliabide material eta espazial bereziak aitortzen zaizkielarik (Gorter eta Cenoz, 2017). Pentsamendua abangoardian doa maiz, hizkuntzak irakasteko gaur egungo jardunarekin talka egin eta kontraesanetan erortzeko; izan ere, jardun erreala atzerago doa, orain arteko pentsamendu tradizionalak, ohiturek, usteek eta helburu zaharrek balaztatuta. Hala, gaur egungo hezkuntza-eleanitza De Kornek (2012) emaniko azalpenean islatuko litzateke: “Hezkuntza-eleanitza ulertzen da hizkuntza bakoitzaren jabekuntza isolatu, estandar, nazionala eta politikoki mendekoa” bezala (481. orr.).

Hortaz, elebiduna elebakarren begi makurretatik ikusia izan da, sarri-askotan ikuspegi okerretara eramanez ikerlariak eta adituak. *Elebiduna: bi elebakarren batuketa* (Cook, 1992) ikuspegiak eragina izango du, eta Grosjeanek ezaugarririk garrantzitsuenak aztertuko ditu, zerrendatutakoan artean mamitsuenak honakoak izanik (2010, 21-24. or.). Horietako askok iragan mendeko pentsaerak irudi dezakete, beste zenbaitek orainari lotuagoak; edonola ere, arreta merezi dute eta irakurraldi kritikoa ere bai:

–Elebidunaren hizkuntzak ez dira osotasunean balioetsi izan; kontrara, isolatu egin dira, eta elkarrengandik bereizi gaitasun-mailagatik edota hizkuntzen arteko oreka-mailagatik. Horien artean hedatuena, elebidunaren hizkuntza-mailak zenbat eta elebakarraren idealizaziotik gertuago, orduan eta elebidun osoago irudikatzearena.

–Elebitasuna etengabeko azterketapean eta miaketapean dago. Elebakartasunak arrotz dauka elebitasuna (eta horrek estatu-nazio eta hizkuntza bakarraren ekuaziora garamatza), eta elebidunaren bi hizkuntzak berbaldian tartekatzea (*code switching* eta *translanguaging*, esaterako) inferentziatza, arazotza. Bi eleak bata bestearrengandik isolatuta egon beharko lirateke (ikuspegi frakzionala), hizkuntza autonomo gisa, elkarren beharrik gabe komunikatu ahal izateko.



–Ezohikoa da elebidunek bere buruaren hizkuntza-gaitasunak egokitzea izatea. Elebakarraren eredia eta irudia ez datoz bat elebidunen praktikarekin eta errealitatearekin, hizkuntzak tartekatzen baitituzte eta barne-gatazka baitute bi hizkuntzen arteko zuzentasunarekin eta jarioarekin.

Ez da zaila gaur egun elebiduna eta eleanitza ezaugarri horiekin identifikatzea. Egiteko horretan, Cook (2001) topatuko dugu. Ingelesaren aburuz, bi hizkuntzak ikasi nahi baldin badira, hiztunaren hizkuntza ahula eta indartsua isolatu beharko lirateke, eta bereizketa horretatik ahalik eta esposizio-mailarik handienean oinarritutako irakaskuntzan murgildu. Bi hizkuntzen arteko alegiazko isolamenduarekin, adituek hizkuntzen arteko interferentziak ekidin nahi zituzten; hots, hizkuntzaren berezko purutasun eta berezkotasuna babestu. Oro har, murgiltze-ereduaren hizkuntza gutxiagotua babesteko estrategiak bilatu izan dira, hizkuntza isolamenduarekin zaugarritasunetik babestea, esposizio-maila gorenera eramatea, erabilera indartzea eta garapenerako abian ipintzea. Aurreko eredu frakzionalaren kontrapuntua edota segida litzateke ondorengoa: ikuspegi holistikoarena. Ikuspegi holistikoak aldarrikatzen du elebitasunak unitate banaezina osatzen duela, zatitu eta banatu ezin dena (Grosjean, 2010). Ez da posible hiztunaren hizkuntza biak isolatzea, zirujauak bisturiarekin nola. Elebiduna ez da bi elebakarren batura akastuna ala akatsik gabea; aitzitik, errealitate linguistiko eta hizkuntza-sistema bereziko norbanakoak dira, elebakarraren komunikazio-gaitasunarekin konparatu ezinena (Cook, 1997, 1999).

Aurreko ikuspegi-elebakarrarekin alderatuz, leku askotan “erabateko elebitasunaren” mitopean bizi izan dira elebitasuna eta eleaniztasuna (Jeoffrion et al., 2014). Haien esanetan, mitoak eskurazina den errealitatera darama elebiduna, non bi hizkuntzak elebakarraren mailarenarekin konparatzen dituen; hau da, elebidunak berezko hiztun elebakarraren mailan ezagutzea eta menperatzea hizkuntza bakoitza (Jeoffrion et. al., 2014). Gainera, pentsamendu hori are akastunagoa eta lortezinagoa da kurrikulum eleaniztetan (Cenoz eta Gorter, 2015). Izan ere, berezko hiztuna helburu izatea akastuna da bigarren eta hirugarren hizkuntza ikasten ari direnentzat, eta, noski, hori ez lortzeak ez ditu ikasle akastun edo ezgai egiten; kontrara, bigarren eta hirugarren hizkuntzak ikasiko dituzte komunikazio-funtzio ezberdinetarako eta ezagutzaren alor

ezberdinetarako, berau erabiltzen baitute betekizun jakin batzuetarako eta ez lehenengo hizkuntzak har ditzakeen funtzio guztietarako (Cook eta Wei, 2016). Hain zuzen ere, arrotza bezain gertaezina baita hiztun-eleanitzek dakizkiten hizkuntza guztietan oreka-eta ezagutza-maila berbera izatea edota elebakarraren mailan aritzea hizkuntza bakoitzean eta guztietan (García, 2009). Eta hala eta guztiz ere, europarrak berezko hiztunaren gaitasunaren bila eta, bereziki, horrek dakarren ustezko estatusaren atzetik dabilta (Mollin, 2006).

Errepikaezin dira bi elebidun; hau da, ezin dira bikoiztu bi hizkuntzek suposatzen duten esperientzia-multzoa, ezagutza eta bakoitzaren ezaugarri linguistikoak. Aurreko mendean, hedadura handiko ustea zen eleaniztasunak adimen-desabantailak zekartzala; eta gizartean ere, sozialki debalututa zegoen eleaniztasuna. Gaur egun, elebitasuna eta eleaniztasuna onura gisa kontsideratzen dira, dimentsio anitzekoa, konplexua. Hortaz, bai gizarte mailan bai linguistikoki, sortutako erronkak ikuspuntu anitzetatik erantzun beharrekoak dira (Ruiz de Zarobe eta Ruiz de Zarobe, 2015).

Are gehiago, Grosjeanek (2010) kirolarien metafora maisuki darabil, horregatik gutxienez irakurria izatea merezi duena. Bertan, kirolari ezberdinen ezaugarriak konparatzen ditu hiztunekin. Elebakarra 100 metroko korrikalaria litzateke, elebiduna hesi-saltoan dabilena; eleaniztuna altuera-jauzian ari dena. Frantziarraren metaforaren ondorioa garbia da: kirolari bakoitza konparaezina da, amankomuneko ezaugarriak izan arren, ezaugarri ezberdinekoak dira; elebakarrak, elebidunak eta eleanitzak bezalaxe. Eleaniztasunaren kontzeptua sakontzen eta garatzen ari da uneoro, ikuspegi holistiko eta abegikorragoetatik (Cenoz eta Gorter, 2011a; Moore eta Gajo, 2009; Moore, 2015)

Ikuspegi orokorrari jarraiki, bistan da elebiduna gaitasun osoko hiztun-entzulea dela. Eskolan, hizkuntza irakasterakoan, ele bakoitza gainerakoengandik modu isolatuan irakatsia izan da, hizkuntzen arteko baliabideak eta elementuen trukaketa alboratu eta estali, sarri-askotan kutsu negatiboa iradokirik (Cenoz eta Gorter, 2014). Klean, elebidunak hizkuntzak ezberdintzen ditu, zenbait egoeratan, pertsonarekin, helbururekin, hizkuntza bat erabiliz orain, gero bestea, biak nahasita. Hezkuntzan, aldiz, handia da hizkuntzen arteko isolamendu-maila, eta saihesteko joera dago hizkuntzak eguneroko jardunean tartekatzea nahiz beste elerekin erreferentziak egitea (Cenoz eta Gorter, 2014). Are gehiago, Hambye eta Richards-en (2012) aburuz, hezkuntzak egungo

nazio-estatuetan betekizun erabakigarria dauka gizartearen hizkuntza-ideologietan eta horien giza funtzioen antolamendua moldatzeko. Eta hortxe dago aldaketarako erronka. Haritik tiraka, pedagogiatik eta giza fenomenoetatik haratago doan prozesua litzateke García eta Weirentzat (2014), eleaniztunak duen hizkuntza-ezagutza ez da metaketa soila eta isolatua; izan ere, gaur egun ikuspegi holisitikoagoetan kokatu arren, betaurreko elebarratetik ikusten da eleaniztuna eta hizkuntzen erabilera, non hizkuntzak modu isolatuan irakatsi, ikasi eta erabili behar diren esparru formalean, ahalik eta gutxien elkarrekin nahasteko (De Korne, 2012). Dena den, badirudi muga malguagoak izan daitezkeela etorkizun hurbileko eleaniztasunean, nahiz eta mesfidantzek jarraitu lekuan lekuko hezkuntza-eleanitzaren aldeko jarreratan eta apustuetan (Hofer, 2017).

Gizalege da komunikatzea, eta elebidunak ere molde berekoak dira. Hitzun eleaniztunek komunikatzeko prestutasuna eta bestearenganako sentsibilitatea dute (Jeoffrion, et. al., 2014). Komunikazio-beharra gidari, komunikazio-gaitasun batzuk garatuko dira eleaniztunarengan; hain zuzen ere, elebidunentzat eta eleaniztunentzat kualitatiboki ezberdinak direnak elebarraren aldean (Grosjean, 1985). Hala, sistema konplexu baten errealitate gisa ulertu behar da, testuinguruaren, funtzioaren, esperientziaren, mintzakidearen arabera, hizkuntza batean, bitan ala biak nahasturik mintzatzen ari denean hitzun eleanitza (van geert, Steenbeek, eta Dijk, 2011); izan ere, gogora dezagun: eleaniztunaren berbaldia berezkoa da, elebarrarekin konparatuz gero arras ezberdina, gaitasun berezkoa (Cenoz, 2013b). Amai dezagun esanez eleaniztuna ezin dela ikuspegi mugatuegitik eta hertsatzaitetik definitu, gizarte (ele)anitzaren hobariak alboratzea litzatekeelako. Eleaniztasunak balio onuragarriak eta aberasgarriak baitakarzkio gizarteari ikuspegi eta baldintza egokiak bultzatuz gero, bai horiek probesteko borondatea izanez gero (Gorter eta Cenoz, 2011).

## 2.4. Eredua eta teoria eleanitzak

Eleen ikuspegi holistikoak eta olatu moduko tendentzia abegikorragoek lagun dezakete ikerketan bai hitzunen estimuan bai hezkuntzan bai gizartearen esparru guztietan. Hain zuzen ere, hezkuntza-testuinguruko eragile guztiek, pasiboki ala aktiboki, zeresana dute ikaslearen hizkuntza-ikaskuntzan eta horiei atxikirik jasotako uste eta jarreraren moldaketan (MacSwan, 2017). Iturri anitzeko izaera edo ikuspegi *multimodala* aitortu

diote eleaniztasunari Aroninek (2015), Cenoz eta Gortterek (2011, 2014) eta Weik (2011). Konplexutasunaren jakitun, gure tesi-ikerketak Cenoz eta Gortterren hezkuntza eleanitza ulertu eta horretan zimendatuko da, hizkuntzak ulertzeko ikuspegi eta izaerarekin bat egiten duelako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza eleanitzaren mamia hobekien irudika dezakeelako: “bi hizkuntza edo gehiagoren erabilpena hezkuntza-testuinguruan, bermaturik eskolek eleaniztasuna eta eleaniztasunean oinarritutako alfabetatzea dituztela helburu” (2015, 2. or.). Azken buruan, eleaniztasuna dimentsio anitzeko errealitatea da, eta horrela izan behar da ulertua, gizarteko hainbat dimentsio beregain hartzen baititu, hala nola, hizkuntza-irakaskuntza, -ikaskuntza, -jabekuntza, -erabilera eta -politika (Ruiz de Zarobe eta Ruiz de Zarobe, 2015).

Ng eta Wigglesworthek (2007) eleaniztasunaren aldeko aldarria egingo dute: “Ikuspuntu praktikotik begiratuta, bi hizkuntza jakiteak ahalbidetzen du bi mundu ezberdinetarako sarbidea eta aukera-kopuru bikoitza izatea” (52. orr). Eta gaur egungo hezkuntzak eleaniztasuna eta eleanitza behar du (Cenoz eta Gorter, 2011). Horren testigantza zuzenak lirateke bide egin duten eta egungo pentsamendu-mailan eta jardunean jorratzen ari diren ikuspegi eta teoria eleanitzak, hizkuntzak integratzen dituztenak, hala nola, *Multicompetence* (Cook, 1991, 1992) *Focus on Multilingualism* (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014) eta *Translanguaging* (García, 2009, 2011) garrantzitsuenen artean (gehiagorako, ikus honako ekarpenak: Cenoz eta Gorter, 2015; Creese eta Blackledge, 2010; Lowie eta Verspoor, 2007; De Korne, 2012; Jessner, 2008a, 2008b, 2010).

Labur-labur, horien azalpen laburrak emango ditugu, azkenerako utziz Cenoz eta Gortterek proposaturiko *Focus on Multilingualism* ikuspegia (2011, 2014); sakonago aztertuko dugu azken hori, eskuarteko ikerketaren euskarri teoriko garrantzitsuena baita zerrendatutako eredu guztien artean. Lehenengo mugarrria izango dugu Cook (1991), haren ekarpena erabakigarria izango baita garaiko elebitasunaren ikuspegi positiborako; izan ere, haren argudiorik azpimarragarriena izango da elebidunaren garuna bi gramatikadun sistema konplexu eta gaitasun anitzekoa, *multicompetenceduna*, dela. Horren arabera, bi hizkuntzek sistema osoa eta integratua eraikiko lukete, elebakarrarengandik ezberdina eta bakarra. Haren esanetan, ezberdina da elebidunaren eta elebakarraren gaitasun anitza edo *multicompetencea*, elebidunaren H2 maila ez baita

izango jatorrizko hiztunaren parekoa; gainera, hiztunaren garunean H2ren ezagutza soilak eragina izango luke hiztunaren H1ean eta haren hizkuntzarako gaitasun anitzean edo multicompetencen. Ikus Cenoz eta Gortterren (2019) argitalpena eredu eleanitzen berrikuspen laburturako.

Cooken (1991, 1992) multicompetenceri nabaritzen zaio Cummins-en (1979) eragina, elebiduna eta bi eleen arteko elkarmenpekotasunaren teoriarena, *interdependencerena*, hain zuzen ere. Haren ahotan, bi hizkuntzek osotasuna sortzen dute, sakoneko hizkuntza-gaitasunaren osotasuna, hiztunaren sistema linguistiko osoaren euskarria baita eta partekatzen duten sare amankomuna. Horri “Common Underlying Proficiency” deituko zion; hots, elebidunak ezagutzen dituen bi hizkuntzek sortzen duten zoru edo sare amankomun linguistikoa, hizkuntzen arteko transferentziak ahalbidetzen dituena, izan kognitiboak izan akademikoak izan alfabetatzearenak (Cummins, 2014).

Herdina eta Jessnerrek (2002) apur bat gehiago sakonduko dute adieran, haien ahotan: “Guk bi likidotzat ditugu hizkuntzak, horiek nahasterakoan aurrez ez zeuzkaten propietate berriak azalduz nahasturan” (27. or.). “Eleaniztasun-Eredu Dinamikoa” edo *Dynamic Model of Multilingualism* (Herdina eta Jessner, 2002) gisa bataiatuko dute. Hortaz, haratago eramango dute “Hizkuntzen arteko elkarrekintza” kontzeptua, haientzat ez baita bi hizkuntza-sistemen arteko gainjartze soila izango; aitzitik, eraldatze-prozesu konplexutzat hartuko dute bi hizkuntzen arteko fenomenoak. Kontzeptua azaldu asmoz, erabiliko dute “substantzien metamorfosia”ren (Herdina eta Jessner, 2002, 27. or.) metafora, etengabeko eboluziopean dagoen fenomenoak dela zehazteko.

Paregabea da aipatutako ereduak elebitasunetik eleaniztasunerako jauzia hobeki ulertzeko, konplexutasunean koska bat gorago egiten baitu, esaterako, hirueledunei ezaugarri bereizgarriak egotziko dizkiete, elebidunen antzeko baina konplexuago, dakizkiten hizkuntzak darabiltzatelako komunikazio-egoeraren, testuinguruaren eta solaskidearen arabera (Cenoz, 2013b). Eta bereizgarritasun horien artean, azpimarratuko dute psikolinguistikoki ezinezkoa dela berezko hiztunaren abilezia H2n lortzea, elebakarrak eta elebidunak ez baitira berdinak, are ezberdinagoak ele gehiago izatearekin batera, eta, hortaz, ezin dira elkarren artean konparatu (Otwińska, 2017). Eleaniztunak hizkuntza-gaitasunen egitura berezia dauka, elebidunengandik eta elebakarregandik bereizle (Cenoz eta Genesee, 1998). Hain zuzen ere, hiztunak H2 ikasten duenean,

elebakarrengandik bereizten da, garuneko hizkuntzarako sare eta egiturak horretarako egokitzen baitira, ez berezko hiztunaren bikoizketa izateko, baizik eta hizkuntza bat baino gehiagoren erabiltzaile izateko (Cook eta Wei, 2016).

Translanguaging adiera Galesen erabili zuen Williamsek 1994an, hasiera batean *trawsieithu* gisa; ondoren, Bakerek (2011) translanguaging gisa birbataiatua. Estrategia horren helburua argia zen: galesa eta ingelesa biak klase berean ikasi ahal izateko metodologia bila zebiltzan. Translanguaginek, beraz, helburu du gidalero pedagogiko egituratuen bitartez klase berean bi hizkuntza edo gehiagoren ikaskuntza (Garcia, 2009; Baker, 2011; Cenoz eta Gorter, 2011, 2015; Wei, 2011). Eredu hori baliatu dute iraganeko irakaskuntza klasikoa moldatzeko, hizkuntzak modu isolatuan eta klase bananduetan irakasten zena astintzeko. Ikuspegiak, orain, ikasle eleanitzen hizkuntza-ezagutza (*linguistic repertoire*) oinarri duen hizkuntza-irakaskuntza aldarrikatzen dute Translanguaging bitartez, kemen handiagoarekin testuinguru eleaniztunean hizkuntza gutxiagotua babestu eta ezagutza zabaldu nahi den lurraldeetan (Cenoz eta Gorter, 2017). Ereduak sorturiko eztabaidatik urrundu nahian, Translanguagingek eman bide dituen bi adar nagusiak aipatuko ditugu: translanguaging pedagogikoa eta bat-batekoa. Lehenengoak men egiten dio klasearen helburu pedagogikoei, irakaslearen jardun ordenatu eta egituratuei, kurrikuluko helburuak betetze aldera. Bigarrena, aldiz, aldaerarik ohikoena litzateke, eskolako lau pareten artean nahiz horietatik at, aurrez planifikatu gabeko eleanitzen hizketaldi-jardunak lirateke, non hizkuntzen arteko mugak lanbrotsuagoak diren eta ele batetik bestera jauzi egiten duten askatasunez.

Tesi honetan, guretzat, eleaniztasunaren ikuspegi abegikorren osagai dira orriotan azalduko eredu nahiz teoria horiek guztiak, eleaniztasuna ulertzeko talaia positibo eta integratzailea osatzen baitute, non Translanguaging, Focus on Multilingualism eta ingurumariko ereduak teorikoki bat egiten duten hizkuntzen arteko muga malguagoekin, hizkuntzen elkarbizitzarekin, gutxiagotutako hizkuntzekin eta hizkuntzak ikaskuntzaren katalitzaile gisa direla ulertzearekin.

Elebidunen eta elebakarren arteko berezitasunak argitu ostean, eleanitzarenak aurkeztuko ditugu; aurrez esan bezala, ez dira-eta berdinak. Aronin eta Singletonek (2012, 82. or.) egindako biltze-lana da ondorengoa, aipagai dituen hirueledunen zenbait ezaugarri orokor eta eleaniztasunaren aldeko aldarria izan litekeena: Hasteko,

eleaniztunek hizkuntza-egoera gehiagotan parte har dezakete, hizkuntzaren adiera gehiago menperatzen dituzte-eta; gainera, abantaila kognitiboak izan ditzake hizkuntza-gaitasunari dagokionez, elebakarrek ez bezalakoak. Hizkuntzak ikasteko lasterbideak hobeki ezagutu ditzake, esperientzia handiagoa baitauka hizkuntzak ikasten eta estrategia finduagoak, esaterako, kontzientzia metalinguistiko garatuagoa. Gainera, eleaniztunak, oro har, egoera komunikatiboaren ezaugarrietara egokitze gaitasun handiagoa du, sentiberatasun bereziaren jabe da, komunikazioaren esparru sozio-pragmatikoan, testuinguru zailenetara ere egokiago eta zuzenago moldatzeko. Era berean, komunikazio-egoeretako eragile linguistikoak ez ezik, ez-linguistikoak ere aiseago identifikatzen ditu, egoerak, pertsonak eta testuinguruek emaniko identitate-bilduma zabalagoa dutelako.

Ikasitako hizkuntza eta bildutako esperientziak gorabehera, azpimarragarria da alor linguistikoan ez ezik, norbanakoaren nortasunean ere eragina dutela (Aronin eta Singleton, 2012). Horrenbestez, ondorioztagarria da eleaniztasuna ez dela ezaugarri estatikoa; kontrara, etenik gabekoa dela, dinamikoa bezain aldagarria. Gure ikerlanaren teorizazioan darabilgun Eleaniztasunaren Ikuspegi Abegikorrarekin amaitzeko, Hoferen hitz zehatz eta egokiak ekarriko ditugu aditzera, adituarentzat honakoa ere badelako eleaniztasuna:

Eboluziorako bidaia bat da, konplexua, izugarri dinamikoa, hiztunaren eta ikaslearen hizkuntzak nahiz baliabideak garapen-bidean baitira, aldatzen eta egiturak berrosatzen, informazio zein ezagutza berria sisteman integratu ahal izateko. (Hofer, 2017, 98. or.).

#### **2.4.1. Focus on Multilingualism (Ikuspegi Eleanitza)**

Cenoz (2012) ikerlariaren eleaniztasunaren definizioan oinarritzen da: bi edo hizkuntza gehiagotan heztea helburu izanik eleaniztasunean alfabetatzea. Atal honetan, *Focus on Multilingualism* eredu (Cenoz, 2011, 2013b; Cenoz eta Gorter, 2011b, 2015, 2019; Gorter eta Cenoz, 2011) azalduko dugu, eleaniztasuna ikertzeko balio eta irizpide zehatzak jarraitzen baititu, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak jardun eleaniztetzan jarriarik begia; horiek guztiek gure tesi-ikerketaren hizkuntzen-ikuspegiarekin eta hezkuntza-balioekin bat egiten dute. Irizpide garrantzitsuenen erroak aipatzekotan,

Blackledge eta Cressen (2010) *Flexible bilingualism* eta Garcíaen (2009) *Translanguaging* lirateke. Hizkuntzen arteko muga malgu eta askeagoen balio eta ezaugarrietan oinarritzen da. Ikuspegiak ez ditu hizkuntzak era isolatuan ulertzen, kontrara, hizkuntzen erabilpena nahiz ikaskuntza ikusmira anitz eta konplexutik ulertzen ditu, izanik hiztunak komunikazioaren erdigune eta haien jardun eleanitzak bitarteko. Hezkuntza eleanitzak, eredu eleanitza duelarik ardatz, gaitasun kurrikularrak landu nahi ditu, hizkuntzen bitartez eta hizkuntza-gaitasunak erdietsi nahirik. Eleaniztunek hiru hizkuntzetan egindako berbaldi errealak eta bat-batekoak eskolako jardun metodologikora egokitu nahi dituzte, jardunak atxikirik duen balio pedagogikoa profitatzeko. Hizkuntza bat klase bat, hizkuntza-ikuspegi tradizionalarekin hautsi eta asmo du hiru hizkuntzak metodologikoki jardun planifikatu eta neurtuen bitartez tartekatu eta hizkuntza-ikuspegi ahalbidetzea. Focus on Multilingualism ikuspegiak (arestian aipatutako Cenoz eta Gorterren iturrietan oinarriturik) honako hiru dimentsio nagusi dauzka: *the multilingual speaker, the whole linguistic repertoire* eta *the social context*.

### 1) *The Multilingual Speaker (Hiztun Eleaniztuna)*

*The multilingual speaker*ari, hiztun eleaniztunari, iraganetik jarri zaio mintzatzen diren hizkuntza guztietan berezko hiztun elebekarraren gisan aritzeko beharra; eta teoria honek, aldiz, kontrako aldarria egiten du. Aurrez aipatutako hiztun eleanitzaren eredu idealaren (Cook 1991, 1992; Grosjean, 1985) mugimenduaren aldarri gisa dator, eleanitza dakizkien hizkuntza guztien jabe osoa dela berrestera. Hiztun eleanitza ez du soilik gramatikara edo fonetikara mugatzen, atzera, hizkuntza horien bitartez komunikatzea du jomuga, komunikazio-egoerak eskatutako beharrizan eta moldeetara. Are gehiago, hiztun eleanitzak hizkuntza bakoitzean duen gaitasuna isolatzea eta neurtzea are zailagoa eta zalantzarriagoa kontsideratzen du, hiztunak komunikazio-egoerak eskaintzen dituen hizkuntzen artean nabigatzeko aukera ematen baitu. Beraz, hiztun eleanitzari begiratzeko betaurreko hobeak lirateke, eta aldarrikapen gisa ere bai, izan ere, gutxi aplikatu baita halako ikuspegiak ikerketa eta hizkuntza-irakaskuntza alorretan. Ereduak babesten du hiztun eleanitzak benetan nola diren eta horren arabera ikertzea nahiz pedagogia eleanitzak sortzea; hiztun eleanitzak malguak, hizkuntzekiko muga zurrun gutxiagorekin eta hiztun errealak baitira, gizartean nagusi direnak.

### 2) *The Whole Linguistic Repertoire (Hizkuntza-Ezagutza Osoa)*



Hiztun eleanitzaren baliabideak ez dira aitortuak izan, eta hezkuntza klasikoak ekarri du hiztunaren hizkuntza-ezagutzak isolatu, baztertu, eta soilik klasean eta irakasgai jakineko hizkuntzan jardutea; hau da, natur zientziak ingelesez baldin badira, soilik ingelesa erabiltzea; matematikak, euskaraz. Hiztun eleanitzari alboratu zaion baliabideetako bat, esaterako, *code-switching*a edo kode-alternantzia da; hizkuntza modu isolatuan irakatsi zaio eta molde horretan ikasten behartu. Horren argitan, Focus on Multilingualism ereduak azpimarratzen du ikasle eleanitzaren Whole Linguistic Repertoire edo hizkuntza-ezagutza osoa desaktibatua izan dela hizkuntza berria ikasterakoan; eta, ereduak eleaniztasunean oinarritutako estrategia eta erronka kognitiboak aldarrikatu nahi ditu, hala nola, kode-alternantzia, hizkuntzen arteko konparaketak, hiztunen arteko zubiak, hizkuntzen inguruko hausnarketak, hizkuntzen arteko transferentziak, beste batzuen artean.

### 3) *The Social Context (Testuinguru Soziala)*

Testuinguru soziala hiztun eleanitzaren habe nagusia da, linguistikoaz haraindi, komunikazio-egoeraren testuingurura egokitzen baitute hizkuntza-ezagutza. Arestian deskribatutako klaseak, uniformizazioan eta hizkuntzak era isolatuan irakastean oinarrituak, ez datoz bat hizkuntza-ezagutzak testuinguru sozialean aplikatzerako garaian. Adibidez, klasea soilik hizkuntza jakin batean, modu isolatuan, emateko ustea errotua dago eta irakasle nahiz ikasleak behartu egiten dira baldintza horietara, hiztun-eleanitzen gaitasunak alboratzeko eta jardun eleanitzei ezikusi egiteko. Joera hori dogmatzat harturik, hizkuntzak ikasteko bideak itsutu eta ikaskuntza katalizatu ditzaketen baliabide natural eta eskura daudenak kimatzea da, ikasleei ezagutza modu kognitiboan eta sormenaren bitartez bideratzea oztopatzen baitzaie, alor informalean aske den sormena bazterturik.

## 2.5. Eleaniztasunaren abantailak

Europar Batasunak honako definizioa eman zion eleaniztasunari: “hainbat hizkuntzari buruzko ezagutza eta hizkuntza ezberdinen elkarbizitza gizarte jakin batean” (2001, 4.orr). Spitzer-en arabera bi ele jakiteak hobari handiak dakarzkio norbanakoari, bai eguneroko jardunean bai hezkuntza-alorrean (2016). Era berean, *Universitätsklinikum*

*Ulm*-eko zuzendari den psikiatra alemaniarrek dio: bigarren hizkuntza batean hitz egiten jakiteak demenzia gabeko bost urte gehiago ematen dituela, adibidez, Alzheimer gaitzaren erasanaren aurrean (Spitzer, 2016, 67. or.). Antza, eleaniztasunak badakartza onura gehiago linguistikoez haraindi.

Badaude sakon ikertzeko gaiak, hala nola, gizartearen hizkuntza-hautuak eta -erabilerak, kultura ezberdinen arteko komunikazioak, bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteak kognizioari eragiten dizkionak, kode-alternantzia eta hizkuntza-ekologia, beste askoren artean. Badago Europa zaharraren hastapenetatik bizkar gainean daramagun aurkia eta ifrentzua: eleaniztasunarena (Auer, 2007). Gogoan hartu beharrekoak izango dira iraganean eleaniztasunari eta, orobat, hizkuntza-aniztasunari erantsitako konnotazioak, juzguak, manierak, pentsamendu-korronteak eta ideiak. "Azken mendean, elebidunen hizkuntza- eta kognizio-gaitasunak elebazarrenekin egon dira etengabeko ikerketapean" (Gathercole et al., 2010, 618. or.). Horrekin jakitun, eleaniztasuna mugarriztat jartzen du Marmot-ek (Marmot et al., 2010); izan ere, erdigunean jartzen ditu hezkuntza eta bereziki hizkuntza-irakaskuntza, horien bitartez eskura daitezkeen onura mental nahiz ongizatekoengatik.

Aurrez aitatu dugu mundu-mailan eleaniztasuna dela nagusi, gizarteko gertakari arrunta dela; eta gertakari hori desnaturalizatu izan dela estatu-nazio elebazarren ideiekin eta konnotazio negatiboekin (Weinreich, 1953). Erroan, zergatik ote dira elebitasuna eta eleaniztasuna arazo? Atzera begira, eleaniztasunari eginiko ekarpenak ikuspegi elebazarretik eginikoak izan dira eta horrek dakartzan ikusmiren muga guztiekin (Auer, 2007); hots, iraganeko ikuspegi elebazarrek baldintzatu dituzte eleaniztasunaren ingurumariko ikerketa-lanak eta ekarpenak, eta gaur egun ere horien arrastoak ikus ditzakegu eremu akademikoan eta gizartean: indarrean diraute hizkuntzaren berezko garbitasunaren ideiek eta eleak elkarrengandik isolatu beharrarenak (Auer, 2007).

Ondorengo lerroetan, Baker eta Jonesen (1998, 6-9. or.) eta Leikin et al.en (2017) ekarpenak bilduko ditugu, beste hainbaten aditu eta ikertzailearenak tartekatzearekin batera; hain zuzen ere, hizpide, eleaniztasunak ekar ditzakeen onurak honako lau eremutan: komunikazioan, kulturaren eta kognizioan.

### 2.5.1. Komunikazio-onurak

Familia askotan guraso bakoitzak H1 ezberdina du. Hobaririk nabarmenena izango litzateke haurrak ikasiko lituzkeela bi hizkuntzak; gainera, guraso bakoitzaren berezko hizkuntzan. Horrek ahalbide dezake erlazio aberatsagoa, sakonagoa, egiatzkoagoa lortzea. Etorkin, hiztun eleanitz eta eleaniztasuna balioesten dutenak gai dira dakizkiten hizkuntzen artean loturak egiteko eta hizkuntza berriaren hiztegia besteek baino aiseago barneratu eta ikasteko (Illman eta Pietilä, 2018).

Hiztun eleanitzak abilagoak dira elementu linguistikoak sormen handiagorekin barneratu eta berriei ekiteko; edonola ere, jardun horiek hiztun eleanitzen komunitatearen ezaugarriekin bat etorri beharko dira (Kramsch eta Whiteside, 2008); izan ere, hiztun eleanitzek komunikatzeko testuingurua hauteman eta hizkuntza-jardunen bitartez egokitzeko abilezia dute (Kramsch, 2009).

Elebiduna eta eleanitza izateak belaunaldien arteko zubi-lanak bermatzen ditu, hein handi batean. Osaba-izebak, aitona-amonak eta senitartekoren bat beste lurralderen batean bizi baldin bada, eta bertan beste hizkuntza batean mintzo badira, elebakarrak zinez zaila izango du beraiekin komunikatu ahal izatea. Elebidunak, aldiz, berriazko garrantzia dauka eginkizun horretan; izan ere, gai dira belaunaldien arteko hizkuntza-hutsuneak betetzeko, familia-kide sentimenduan sakontzeko eta harremana indartzeko. Hizkuntza gutxituren bat duten hurrek eta etxetik kanpo hedatuena hitz eginez gero, herentzian jasoko dute familia-hizkuntza eta horrek dakartzan onura guztiak. Hala, belaunaldiz belaunaldi elebitasunak jarraikortasun-sentimendua eman diezaiokie familiari. Halaber, zenbait ikerketek iradoki dute badela erlazorik eleaniztasunaren artean eta izaeraren artean, izanik hizkuntza-maila altuko eleaniztunak irekiagoak eta antsietate-maila txikiagokoak (Dewaele, 2010; Dewaele eta Stavans, 2014). Aurrean zitekeenez, eleaniztunak elebakarrak baino aukera handiagoa dauka gainontzeko komunitateko kideekin komunikatzeko. Haur-elebidunak giza taldeko komunikazio-alorrek bere egingo ditu, bai komunitatean bai eskolan bai auzokideekin bai lagunekin. Ez hori bakarrik, herrialdez aldatzerakoan, elebidunek abantaila nabarmena dute giza harreman berriak sortu ahal izateko zein horien arteko zubi-lanak egiteko. Gainera, hizkuntza ikasten ari diren ikasleek eta horren atzean hizkuntza balioesten duten familiek

mesede egiten diete eleaniztasunari eta kultura aniztasunari, balio erantsi gisa, ele anitzen ezagutza eta elkarbizitza erdigunean izanik (Hofer, 2017).

Komunikazio-egoeraren eraginkortasuna helburu, elebidunak bi hizkuntzak kudea ditzake komunikazioa bete ahal izateko. Elebidunek uneoro darabilte hizkuntza bat ala beste komunikazio-helburua erdiesteko eta, batez ere, elkarrizketak behar dituen beharrianak hobeki identifikatzeko eta horiei erantzuteko lanean. Ez hori bakarrik, elebidunak elebakarrak baino entzule hobeak dira, egonarri handiagokoak, bereziki, hizkuntza ongi menderatzen ez dutenekin mintzatzerakoan. Hizkuntzen artean nabigatzera ohituta dauden eleaniztunek erakutsi dute enpatiarako kognizio handiagoa dutela eta, hortaz, artezia handiagoa elkarrizketatuaren azalean jartzeko (Cook, 2002; Dewaele eta Wei, 2012). Irakasleei dagokienez, azpimarratzekoa da badirudiela H3 edo atzerriko hizkuntza irakasten duten irakasleak direla hizkuntzen artean nabigatzen iaioenak eta ikasle eleanitzen beharrak asetzen aproposenak (Lundberg, 2019).

Iradoki ere egin dute ikerketek esperientzia handiagoko eleaniztunek, hobeki komunikatzeko gai izateaz gain, euren komunikazio-gaitasunetan konfiantza handiagoa dutela eta, ondorioz, antsietate gutxiago dutela ikasten ari diren hizkuntza berrian mintzatzerakoan (Alqarni eta Dewaele, 2018); bere laburrean: eleaniztun izateak onura linguistiko esanguratsuak ekar litzake (Jessner, 2016).

Eskoletan ikasleen errealitatera egokitutako programa-eleanitzak sortu eta indarrean jarriko balira, hiztun eleaniztunen balio soziokulturala eta kognitiboa jarriko litzateke erdigunean, norbanakoaren garapenerako gako dena eta hizkuntza-ikaskuntza hauspotuko lukeena (Kramsch, 2006). Ikerketa batean, eleaniztasunaren inguruko nozioak jaso nahi izan ziren frantziar estatuko testuinguruan, Nantesen. Ikerlariek sortutako galdetegian ikasleen ikuspegia neurtzen zen, elebakartasunaren eta eleaniztasunaren artean konparatzeko. Emaitzek argi utzi zuten zenbait hizkuntzatan maila altua zuten ikasleek ikuspegi eleanitzagoa zutela hasiberriek baino eta hizkuntza gutxiago zekizkitenek baino (Jeoffrion et al., 2014). Cenozek (2013) azpimarratu du elebidunek abantaila handiagoak dituztela hizkuntza gehiago ikasteko, baldin eta hizkuntza-maila altua badaukate aurrez dakizkiten hizkuntzetan. Zehaztapen gehiagoren gose, ikerketa zehatzagoen beharra dago, esaterako, elebidun orekatuen eta desorekatuen artean; izan ere, zenbait emaitzek ondorioztatu dute hiztunaren hizkuntza-

maila altua denean abantailak ematen dizkiola (Sagasta, 2003), eta, beste zenbaitetan ez da alde esanguratsurik behatu (Gallardo del Puerto, 2007).

### 2.5.2. Kultura-onurak

Guztien gainera, elebidunen abantailarik azpimarragarriena litzateke hizkuntzak bermatzen duen esperientzia multzoa. Hizkuntza bat, bi, hiru, lau... zenbat eta hizkuntza gehiago orduan eta ikasbide handiagoa. Elebakarrak makina bat kulturaren eskarmentua izan dezake; komunitate eta auzokide ezberdinenak, hizkuntza bera darabiltenak. Esaterako, elebakarrak herrialdeak eta kultura berriak bisita ditzake, ikusle soil gisa egingo du, benetako murgiltzea ezin eginik.

Hiztunari ele bakoitzak bereizgarritasunak dakartzkio, besteak beste, jarreraren multzoan, folklorea, istorioetan, historian, tradizioan, sozializazio-moduetan, jaiotza-errituetan, ezkontzetan, hiletetan, hizketaldi-maneretan, literaturan, musikan, aisialdia kudeatzeko eretan, erlijio-tradizioan, mundu-ikuskeran, berau ulertzeko moduan, ideietan, usteetan, jan-ohituretan, zaintza-motetan, umorean. Bi hizkuntzek laguntzen dute kultura-esperientzia sakonagoak izaten. Elebidunak bi kulturetan murgiltzeko probabilitate handiagoa dauka, bereak baititu ele biak. Haatik, elebiduna izateak ez du bermatzen bi kultura bereganatzea; hain zuzen ere, elebitasunak kultura bitasunerako ahalmena garatzen du, aukera eskaintzen, baina ez inolaz ere bermatzen. Zentzu horretan, kulturen arteko trukeko aukera aparta izan liteke migrazioarena; izan ere, egokitzeke izaera duten etorkinek pentsamendu libreagoa, irekiagoa, positiboagoa eta kultura berrietara egokitzeke ezaugarriak dituzte, bi kulturek elikatzeko eta kulturen arteko egokitzapena gertatzeko (Kim, 2001). Literatura zientifikoak kognizio onurak hiztunaren hizkuntza-ezagutzan isolatu ditu askotan; orain, aldiz, badira ikerketak kultura bi horien eragina hizkuntzarena bezainbeste izan daitekeena diotenak (Leung, Maddux, Galinsky, eta Chiu, 2008).

### 2.5.3. Kognizio-onurak

Elebidun izateak ez du inteligentzia hauspotzen edo mugak modu esanguratsuan handitzen, baina bai eragiten diola positiboki kontzientzia metalinguistikoari eta bereziki

gaitasun kognitiboen garapenari; gainera, bide batez, eragin hori ez da soilik inhibiziorako gaitasunetan islatzen, funtzio betearazleetan (monitorizazioan eta arreta-aldaketan) ere badu eragin positiborik (Barac eta Bialystok, 2012). Aurretiaz, azpimarratu zuten ikasle elebidunek emaitza hobek lortzen zituztela, batetik, arreta-eskakizun handiko kognizio-ariaketetan eta, bestetik, jatorri zaileko informazioa hautematerako garaian (Luk, Anderson, Craik, Grady, eta Bialystok, 2010).

Adesope et al.en (2010) ikerketari beha, haurren literatura zientifikoaren analisiari ekin zioten eskala handian. Emaitzek azpimarratu zuten elebidunek abstrakziorako eta errepresentazio sinbolikorako gaitasun handiagoa dutela, memoria landuagoa dutela eta trebeagoak direla arretaguneak kontrolatzen eta kontzientzia metalinguistikoari zukua ateratzen. Ikerlerro paraleloan (Poarch eta van Hell, 2012) ikasle elebakarrak, elebidunak eta hirueledunak elkarrekin konparatu zituzten, eta topatu zuten azken talde horrek, hiru ele zekizkitenenak, askoz ere emaitza hobek atera zituela talde elebakarraren eta elebidunenaren aldean. Gainera, eskolatzea ikuspegia holistikoarekin eta eleanitzarekin gauzatu gero, dakartzan buru-eragiketa kognitiboekin, garuna estimulatzeko eta garatzeko aukera bikaina izan daiteke (Dörnyei, 2009; MacWhinney, 2008); arrazoi akademikoak, profesionalak eta hizkuntzak ikaste hutsagatik ez ezik, esperientzia horiek zahartzaroan jazoko diren memoria-galerei eta adin-endekatzeari galga jartzen lagungarri izan daitezke ere bai.

Hitzen arteko loturei erreparatu gero, badirudi elebidunak oharkabe malgutasun handiagorik pentsatu eta eraikuntza aberatsagoak egiten dituela, elebakarrak baino sormen handiagorik. Beraz, badirudi elebidunak aukera handiagoa duela elebakarrak baino hizkuntzaren kontzientzia garatuagoa izateko, jariotasun hobea, malgutasun handiagoa eta pentsamendu-maila landuagoa. Jakina da elebidunak bi hizkuntza-sistema darabiltzala komunikatzeko. Ondorioz, bi sistemen elkarrekintzak zenbait fenomeno sortarazten ditu, elebakarrarentzat arrotz liratekeenak (Bialystok, 2007a): nola ekiditen dira bi hizkuntzen arteko interferentziak, batean badena hautatzen eta beste hizkuntzak isiltzen, isolatzen, desaktibatzen?

Bi hizkuntzak goiz eta ondoz ondo jasotzen badira eta garapen-estadio mesedegarri batean gertatuko balira, Hensch-ek (2005) eta Sur eta Rubenstein-ek (2005) diote ekar lezakeela onura azpimarragarriak, esaterako, neurona-konexioen kimatzean eta sarearen

moldaketan, eraginkortasuna hobetzeko, burmuinaren heltze orokorrari mesede egiteko. Elebitasuna noiz gauzatu den erreparatuta, neurona-sareen irudiek erakutsi dute badirela ezberdintasunak bigarren elearen jabetzea goiztiarra ala berantiarra izatearen artean. Berken et al.en (2016) emaitzen harira, bi hizkuntzak jaio eta aldi berean jasotzen baldin badira, garunaren funtzioak eta egitura modu eraginkorragoan antolatuko lirateke; aldiz, bigarren elearen ikaskuntza berantiarra denean, neuroplastizitateak mugatuagoa dirudi, eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntzak bestelako neurona-bidea hartuko luke garunean.

Kognizio-prozesamenduaren barne daude aginte kognitiboa eta prozesu-betearazleak. Horien kontrola eta elkarlana beharrezkoa da zenbait portaeren kudeaketarako eta doiketakarako. Bere baitan, eta hizkuntzarekin berebiziko loturarekin, honakoak topa ditzakegu: arretaren kudeaketa, inhibizio kognitiboa, oroimena, inhibiziorako kontrola eta kognizio malgutasuna. Elebidunak eta elebakarrak elkar konparatuko zituzten duela hainbat hamarkada, eta, emaitzak emaitza, elebakarren eta elebidunen arteko kognizio-abantaila berdintsuak berretsiko zituzten frogak metalinguistikoek (Galambos eta Goldin-Meadow, 1990; Galambos eta Hakuta, 1988; Ricciardelli, 1992).

Hain zuzen ere, haur elebidunek hizkuntzarako gaitasun handiagoa erakutsi dute beharrezkoa eta beharrezkoa ez den informazioa bereizten; beste hitzetan, literatura zientifikoak azpimarratu du elebidunek elebakarrek baino artezia handiagoa dutela arretaren kudeaketan eta informazioa garrantziaren arabera hautemateko garaian (Bialystok, 2007a). Esan behar da arretaren kudeaketa behar dutela prozesu betearazleek, are behar handiagoa informazioa kontraesankorra denean eta informazio garrantzitsua arruntarekin ezberdindu behar denean. Betekizun horretan, elebidunak elebakarrak baino iaioagoak dira, baina ez gaitasun kognitibo oinarritukoetan (Bialystok eta Martin, 1999, 2004). Ondorioz, haur elebidunak ez dira elebakarrak baino adimentsuagoak edo jakintsuagoak. Haur elebidunak abilagoak dira hizkuntza manipulatu eta hautatzeko, interesatzen zaiena gorde eta gainerakoa isilarazteko. Halaber, arretaren eskakizun-maila handitzen den heinean, prozesamendurako gaitasuna ere bai, trebeagoak izanik elebidunak, aditasunaren kudeaketa finagoa baitute.

Hortaz, elebidunek, elebakarrekin konparazioan, lehenago garatzen dituzte funtzio-betearazleak, eraginkorrago, ahalmentsuago eta zahartzaroaren endekatzearekin

iraunkorrak. Garapena lotua omen dago norbanakoak izan dituen kultura arteko esperientzietara, bizipen eleaniztetara eta giza bizitzan bizi izandako bi eleko esperientzietara (Bialystok, 2017; Bialystok et al., 2004; Bialystok eta Martin, 2004; Hermanto et al., 2012). Are gehiago, Spitzerek (2016) dioten moduan “bigarren hizkuntza ikasteak ez du bakarrik azkartzen kognizio-kontrolaren garapena gazteen artean; zahartzaroan ere egiteko erabakigarria dauka, kognizioaren endekatzea arintzen baitu” (72. or.). Elebitasuna kognizioaren garun-entrenamendu gisa kontsidera dezakegu, kognizio erreserbari mesede egiten baitio. Kognizio-erreserba hori landu, indartu eta handitu daiteke, aurrez aipatutakoez gain, gazterik ekindako buru-ariketa konplexuen bitartez eta kognizio-funtzioen maila handiko eskakizunak beterik, adibidez, eleaniztun izaten (Arredondo et al., 2017; Craik et al., 2010; Valenzuela eta Sachdev, 2006).

### *Gaitasun metalinguistikoa*

Ikuspegi zientifikotik, hizkuntza-jabekuntza oinarritzen da aurrez egokitutako seinale molekularretan eta zentzumen bidezko esperientzian (Werker eta Hensch, 2015). Kontu behagarriagoetara etorrira, zenbait ikerketek diote aldibereko elebitasun goiztiarrak laguntzen duela bi hizkuntzetan gaitasun handia lortzen, bien *inputa* aberatsa eta kalitatezko *outputerako* aukera nahikorik ematen baldin bada, bederen (Berken et al., 2017). Teorian, hori gauzatuko da hizkuntza-leiho irekirik dagoelako garunean, neurona sareek bermatzen baitute hizkuntza-jabekuntza. Berken, Gracco eta Kleinen (2016) aburuz, elebitasun-testuinguru aberatsak positiboki eragin diezaioke umekiari, haurra jaio aurretik, besteak beste: neuroplastizitatea handitzen, berbaldirako gaitasuna hobetzen, burmuinaren zenbait eremu indartzen eta hizkuntzarekin erlazioa duten neurona-sarearen konexioak sendotzen. Adituen aburuz, neuroplastizitate horrek ahalbidetzen du hizkuntza bakoitzaren kudeaketa eta monitorizazio eraginkorragoa, hizkuntzen arteko interferentziak saihesten trebatzen baita elebiduna. Aldi berean elebiak jaso dituzten hurrek funtzio kognitibo (Thomas-Sunesson, Hakuta, eta Bialystok, 2016) eta kontzientzia metalinguistikoa aurreratuak dauzkate (Reder, Marec-Breton, Gombert, eta Demont, 2013); aldiz, eleak ondoz ondo, bata lehenik bestea ondoren, jaso dituzten haur elebidunek arretarako kontrol areagotua erakutsi dute, baina ez



kontzientzia metalinguistikoa aurreraturik (Kalashnikova eta Mattock, 2014). Horrek eragin zuzena izan lezake elebidunaren hirugarren hizkuntza-ikaskuntzaren prozesuan. Alisaari, Heikkola, Commins, eta Acquah-ren (2019) ikerketak, emaitza gisa, Finlandiako irakasleen eleaniztasun-ustek positiboak zirela esan zuen, nahiz eta zenbait irakasleren ustek ideologia elebakarraren zama handia izan. Edonola ere, ikerketa horren muinetako bat etorkizunari begira zen: irakasleak gaitasun metalinguistikoetan trebatu beharra; izan ere, ariketa kognitibo bikaina izateaz haratago, hizkuntza-kontzientzia suspertzen du, eleaniztasun-usteen mesedetan.

Munduko ikasgela eleaniztun gehientsuenetan zehar, irakasle askok pentsatzen dute jarrera eta jardun positiboak bultzatzen dituztela eleaniztasunarekiko. Tamalez, ez dituzte jardun eleanitzak beren klaseetan bultzatzen, esaterako, ikasleen hizkuntza-ezagutza baliatzeko jarduerak, ikasleen hizkuntza-ezagutza baliatu hizkuntza berria ikasteko (Haukås, 2016). Angelisek (2011) aldarri egiten du: irakasle-ikasketetan eleaniztasunean hezi egin behar dela etorkizuneko irakasleria, kontzientzia metalinguistikoa eta ikasleen hizkuntza-ezagutzak baliatzeko trebatu. Modu bertsuan, Jessnerrek honakoa dio: “etorkizuneko hizkuntza irakaskuntzaren helbururik behinena hizkuntza-kontzientzia lantzea litzateke, hizkuntzaren alfabetatze-maila gorena erdiesteko bidea baita” (2006, 120. or.).

Hiztun eleanitzak ardatz, hirugarren hizkuntza ikasten ari direnek euren kontzientzia metalinguistiko sakona balia dezakete, batetik, hizkuntzak ikasten esperientzia badutelako, bestetik, bi hizkuntza-sistemen ezagutza badutelako jada. Bestela esanda, elebidunek hirugarren hizkuntza objektu gisa har dezakete eta hura ikasteko modu errazagoan manipulatu (Jessner, 2008a; Ransdell, Barbier, eta Niit, 2006).

Euskararen kasuan, hizkuntza gutxiagotua den heinean, Euskal Herriko ikasle askorentzat bigarren eta hirugarren hizkuntza litzateke. Eta testuinguru formalean, hizkuntza gutxiagotua ikastea ez da esposizio hutsean oinarritzen, ikasleen errealitateari beha, irakaskuntza analitikoagoa egin beharko litzateke, kontzientzia metalinguistikoan ardatza duena (De Angelis, 2007). Eta honako tesi-ikerketak ezaugarri bat txertatuko lioke: erabilera.

Bi hizkuntzen arteko elkarrekintzak hizpide, psikolinguistikak dio hizkuntza-sistemak unitate oso eta bakarra osatzen duela, eta hizkuntza batean komunikatzerakoan ele

guztiak aktibatu egiten direla, ele bakoitzaren sistema linguistikoak elkarrekin lehiatzeko (Dijkstra eta van Heuven, 1998; Grainger, 1993; Guttentag et al., 1984). Elebidunen hizkuntza-ezagutzaren zati dira bi hizkuntzak, eta etengabean diraute aktibo eta erabilgarri komunikaziorako. Horren kariaz, bi eleen arteko elkarrekintza eta erabilgarritasunerako, elebidunek mekanismoa izan behar lukete ele bat aktibatzeke eta bestea desaktibatzeke berbaldia garatzerakoan (Bialystok, 2007a); izan ere, giltzarri da hizkuntza- eta pentsamendu-sistemen arteko integrazioa, prozesu kognitiboak izanik hizkuntza-lehien zuzendariak. Zehazki, hizkuntza-sistema gobernatu ahal izateko prozesuak honakoak lirateke (Daniels, Toth, eta Jacoby, 2006): alternantzia, atentzioa, inhibizioa eta monitorizazioa. Gainera, norberak kontrolatutako hizkuntzen arteko alternantziak kognizio-maila altua eskatzen du eta funtzio kognitiboen trebatze-maila handia (Maluch eta Kempert, 2017; Prior eta Gollan, 2011; Verreyt et al., 2016). Eta horietan badirudi eleaniztuna iaioagoa dela. Elebidunen hizkuntza-tartekatzeak kognizio-maila altua eskatzen du, hirugarren hizkuntza ikasteko prozesuan mesedegarri izan daitekeena; izan ere, hizkuntzen artean saltoka dabil eleaniztuna, hizkuntza tartekatzen uneoro, eta horrek hizkuntzen maila altua izatea adieraz lezake, eleaniztasunak abantailak ekar diezazkioke-eta kognizioari eta hizkuntza-ikaskuntzari (Jessner, 2016).

### *Pentsamendu sortzailea*

Elebitasunaren eta eleaniztasunaren abantailen artean, atxiki izan da pentsamendu sortzailea, sormena eta ohiko ikuspuntuetatik urruntzeko gaitasuna (Kharkhurin, 2012, 2015). Hau da, zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi, orduan eta sormen-maila handiagoa izango duela norbanakoak. Beraz, uste bat dago eleaniztasunari erantsirik: hizkuntzak ikasteak sortzeko gaitasuna areagotzen du. Usteak uste eta pentsamenduak pentsamendu, zenbait ikerketa egin da, eta azpimarratu dute elebidunek emaitza esanguratsuagoak eskuratu dituztela sormenerako eta pentsamenduaren malgutasunerako gaitasun orokorretan (Allen, 2013; Leikin, 2012; Leikin et al., 2017; Ricciardelli, 1992; Simonton, 2008); ikerketa-lan horietan guztietan, aipagarria da sormenerako abilezia elebidun orekatu hitzarekin lotzea. Simontonek (2008) gaineratuko du oso ikerketa gutxi egin dela eleaniztasuna eta sormena konparatzen. Kharkhurinek (2012), eleaniztasuna sormenarekin lotzeaz gainera, azaltzen du eleaniztasunak eta

beregain dakarren kultura-aniztasunak daramatela eleaniztuna mundua eta gertakizunak ikuspegi ezberdin eta abesgarriagoetatik ikustera.

Haritik tiraka, zenbait adituk (Kharkhurinek, 2012, 2015; Lasagabasterek, 2000; Simontonek, 2008) berretsiko dute elebitasunaren eta sormenaren arteko erlazorik handiena hizkuntzaren esparru figuratiboarekin egin izan dela, sarri-askotan bazterrean utzirik alorra aberastuko luketen beste zenbait esparru, hala nola, matematikarena. Esan bezala, badago fenomeno ikertzeko gogoia, eta Simontonen (2008) ikerketa-emaitzek berretsiko dute elebidunek elebatarrek baino originaltasun-, malgutasun- eta jariotasun-maila handiagoak izan ditzaketela.

Originaltasunaren dimentsioetan sakontze aldera, bi ikerlariren lana da eztabaidagai, ezberdintasunak baitaude. Labur-labur, lehenengoaren aburuz, Kharkhurinen (2012, 2015) hitzetan, testuinguru-eleaniztunetan, elebitasunak mesede egiten die elebidunei hitzen bidezkoak ez diren sormenezko jardunetan. Bigarrenengoaren ustez, (Cummins, 2000) iritziz, elebidun orekatuek maila handiagoa erakusten dute elebatarrekin konparatuta; eta elebatar horiek maila hobea erakusten dute elebitasun desorekatua dutenekin baino. Bidegurutzeraz dator Hommel et al.en (2011) ekarpena, non bien ondorioak uztartzen dituen, honakoa ondorioztatzen: elebidunen hizkuntza-maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta sormenarekin lotutako ezaugarri positibo gehiago. Espekulazioak espekulazio, oraindik adituen artean onarpen-maila handienetakoa duena Cummins (1976) hiru hipotesien multzoa da, pentsamendu-sortzailearen eta elebitasunaren arteko harremana arrazoitzen duena, alegia. Horietatik lehenengoak argi uzten du elebidunak elebatarrek baino esperientzia gehiago bizitzen dituela, bi hizkuntzatik eta bi kulturatik edaten baitu; bigarrenak erreferentzia egiten dio bi hizkuntzak aldizkatzeko eta tartekatzeko mekanismoari, eta horren ondorioz pentsamendu malguagoa izateari; hirugarrenak kontuan hartzen du aurrez azaldutako kognizioa, metakognizioa hain zuzen ere, non bi hizkuntzak elkarrekin konparatzen eta erkatzen dituen uneoro, gero eta konplexuago.

Leikin eta Tovliren (2014) ikerketak berretsiko du elebitasunak eragina duela sormenean, aurreko ikerketa-emaitzak baieztatzen (Ibrahim, Schwartz, Kahn-Horwitz, eta Leikin, 2013; Leikin, 2012; Simonton, 2008). Zehazki, elebitasunaren eta sormen-adiera ezberdinen arteko erlazioa azpimarratuko dute, baita hizkuntza-maila sormenarekin lotu

ere, berrindartuz elebidunaren hizkuntza-mailak sormenaren garapenean izan dezakeen eraginaren tesia (Cummins, 2000; Hommel et al., 2011), bide batez, pentsamendu sortzailea kognizioaren kontrol-maila altuarekin erlazionatzen baitute (Groborz eta Nećka, 2003; Hommel et al., 2011).

### *H3-ren jabekuntza*

Hasteko, defini dezagun zertan datzan H3ren jabekuntza, eta, horretarako, Cenozen (2003) definizioetako bat ekarri dugu: “H3 ikasteak beretzat hartzen du berezkoa ez duen hizkuntza-jabekuntza, ikaslea jada beste bi hizkuntzen jabe delarik edo ikas-prozesuan dabilelarik” (71. or.). Elebitasunak hobari handiak ekar diezazkioke H3aren ikaskuntza-prozesuari, baina elebidun izateak ez ditu zuzen-zuzenean abantaila horiek bermatzen (Barac eta Bialystok 2012); aitzitik, elebitasunak hirugarren hizkuntza ikasteko zenbait eragileren aktibazioa eta sostengua ekar dezake, ele gehiago ezagutzearen abantailak aktibatzeke (Maluch eta Kempert, 2017). Eleaniztasunari buruz egindako zenbait ikerketa entzutetsuetan ondorioztatu zuten, hirugarren hizkuntza ikastea helburu, elebidunek oro har abantailak dituztela hirugarren hizkuntza ikasterakoan elebkarrekin alderatuz gero (Cenoz, 2013a; Cenoz eta Valencia, 1994; Lasagabaster, 2000; Safont, 2005; Sanz, 2000). Gainera, iradoki izan da eleaniztunak komunikatzaile hobeak direla esperientzia gehiago dutelako hizkuntzen kudeaketan, komunikazio zailtasunak gainditzeko iaioagoak direla (Dewaele et al., 2008).

Hizkuntza-jabekuntza: “Zenbat eta lehenago, orduan eta hobeto”. Pentsamendu horrek sustrai sakonak ditu euskal hezkuntzaren uste-sisteman (Arocena et al., 2015; Gorter eta Arocena, 2020), baita hemendik at ere (Portolés eta Martí, 2018). Hain zuzen ere, euskal hezkuntza-sisteman ingelesaren irakaskuntza goiztiarraren aldeko apustua egiten da, eta ordu-kopuru hori handitzen doa mailaz maila. Hizkuntza-jabekuntza adinari hertsiki lotua zaio: zenbat eta gazteago, orduan eta moldagarriago, plastikoago (Penfield eta Roberts, 1959). Ordura arte, ez zen hain ezaguna izango, garun plastizitatearen ideia hizkuntza-berreskurapenarekin lotura handiagoa baitzuen; edonola ere, bertan azpimarratuko da ikasle gazteek hizkuntzak ikasteko erraztasuna dutela. Bi adituen baieztapena Lenneberg-ek (1967) gizarteratuko zuen eta zabalduko; izan ere, argituko, berrindartuko eta lotuko ditu hizkuntzak ikasteko berezko gaitasunarekin, non adinak sekulako garrantzia baitauka

eta nerabezaroa kokatuko baitu adin-tarte kritikotzat: nerabezaroa izango da garunaren heldutasunean mugarri. Hori pasata, gradualki zailtzen joango da berezko hiztunaren pareko hizkuntza-jabekuntza erdiesteko aukera.

Oro har, eta borobiltzeko, esan daiteke H3ko ikasleek abantaila handiagoa dutela H2ko ikasleak baino, eta horiek hainbat modutan gauzatzen dira, hala nola, hizkuntza-ikaskuntzarako estrategia eraginkorragoetan, kontzientzia metalinguistiko sakonagoan eta komunikaziorako sentiberatasun finagoan (Cenoz eta Genesee, 1998; Jessner, 1999). Hala, baliteke kontzientzia metalinguistiko eta ikas-estrategia horiek izatea H3aren ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izatearen giltzarri.

Elebidunek izan dezakete erraztasunik edota abantailarik H3a ikasterakoan; edonola ere, iaioetasuna ez da hedatua eta orokorra, aitzitik, soilik azaleratzen eta gauzatzen da egoera jakinetan (Maluch eta Kempert, 2017). Horren adibide argigarrietako bat izan liteke Cenoz eta Valenciak (1994) aspaldi emanikoa, alegia, ikasle elebidunek (bi hizkuntzak eskolan nahiz etxean, komunitatean, ikasiak) errazago barneratuko dutela hirugarren ele hori elebakarrek baino. Era berean, emaitza kontrajarriak ere badira, aurrekoen aurkikuntzak arbuiatzen dituztenak, esanez, ez dagoela bi hiztun-taldeen artean ezberdintasunik (Au-Yeung et al., 2015; van Gelderen et al., 2003). Bat ez etortzearen arrazoiak ugariak izan daitezke, eta egoera bakoitzak testuinguruan jartzea eta baloratzea eskatzen du (Maluch eta Kempert, 2017), horien artean hona zenbait adibide posible: elebiduntasuna etorkin-komunitateetan, ele bakoitzeko hizkuntza-maila, hizkuntza-jabekuntzaren nolakotasunak, hizkuntza-erabilerak, ezaugarri soziokulturalak, besteak beste. Edonola ere, bitxia da ohartzea zein gutxi erreparatzen zaion hizkuntzak ikasteko metodologiari; izan ere, oso ikertzaile gutxi dira irakas-metodologiak erkatu dituztenak H3aren ikaskuntzarekin, eta tesi-ikerketa honek nahi luke horren inguruan ekarpen xumerik egin.

Bogako literatura akademikoan, kontzientzia metalinguistikoak zeresan handia du H3a irakatsi eta ikasterako garaian. H3a ikasten ari diren ikasleek kontzientzia gara dezakete aurretiazko hizkuntza-ezagutza baliatu eta hizkuntza berriaren ikaskuntzarekin lotzen badute; izan ere, hirugarren elea ikasten dutenek objektu gisa har dezakete hizkuntza bera, abstrakziorako gaitasun handiagoa baitute eta objektu baten gisara hartu eta manipula baitezakete, hizkuntza-ikaskuntza eraginkorragoa bilakatzearen mesedetan

(Jessner, 2008a; Moore eta Gajo, 2009; Ransdell et al., 2006). Abstrakzioaz gaindi, elebidunek ere erakutsi dute elebakarrek baino prestutasun-maila gorenagoa dutela kognizioaren alor ez-linguistikoan (Bialystok eta Craik, 2010).

H3ko ikasleek esperientzia gehiago dute hizkuntzak ikasterakoan. Esperientzia horrek elebakarrei baino estrategia eta baliabide gehiago eta aberatsagoak ematen dizkie hizkuntza gehigarriak ikasteko (Cenoz, 2013b). Estrategia horien funtsa honakoetan datza: hizkuntza erabiltzeko prestutasuna, hizkuntzarekiko jarrera positiboagoa eta inputaren kalitatea eta aniztasuna lehenestea (Stafford, Sanz, eta Bowden, 2010). Halaber, klase barruan, ikasle eleanitzek ikasteko estrategia erabilgarriagoak maizago erabiltzen dituzte (Kemp, 2007); eta emaitzek iradokitzen dute zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi, orduan eta estrategia eta lasterbide gehiago erabiltzen dituztela ikasle eleaniztunek hizkuntzak ikasterako garaian (Psaltou-Joycey eta Kantaridou, 2009). Hain zuzen ere, Focus on Multilingualism ereduan aipatu bezala, elebidunen hizkuntza- ezagutza abantaila handia eta mesedegarria da hirugarren hizkuntza ikasterako garaian. Berezitasunak berezitasun, ematen du badela ezberdintasunik ikasleak dakizkien bi ele horien jatorrian; hau da, dakizkien hizkuntzen eta ikasten ari den hizkuntzaren artean zenbat eta distantzia linguistiko txikiagoa, orduan eta eraginkorragoa ikaslearen hizkuntza-ezagutza H3 ikasterako garaian (Cenoz et al., 2001, 2017; De Angelis, 2007; Jarvis eta Pavlenko, 2008; Ringbom, 2007; Todeva eta Cenoz, 2009)

Elebidunek badakartzate H3ren jabekuntzarako baliabide-sorta, bai kognitiboak bai linguistikoak, non ele berriaren garapenean biziki lagun dezaketen (Barac, Bialystok, Castro, eta Sanchez, 2014); hain zuzen ere, nahiz eta distantzia liguistikoa existitu, H1 eta H2 gaitasun-maila handia dutenek abantaila esanguratsuak dituzte H3 ikasterako garaian (Cenoz, 2013). Edonola ere, ez dira elebitasun egoera guztiak berdin, eta argudio kontrajarriak daude horien onuren inguruan (Maluch eta Kempert, 2017); esaterako, litekeena da H3a ikastearen onurak ez ikustea etorkin-komunitateetan, non beren hizkuntza minorizatua eta alboraturik dagoen eta gizarteko bi hizkuntzak norgehiagoka (Cenoz, 2003, De Angelis, 2007; Sanz, 2012). Elkarren arteko lehia horretan, zenbaitetan hizkuntzen arteko distantzia presente izateko eragilea ere bada, modu batean ala bestean baldintza baitezake gainerako hizkuntzen ikaskuntza, prozesua zailtzeko ala errazteko;

halaber, jabekuntza-prozesuak zenbait fenomeno ikustaraz ditzake, esaterako, kode-alternantziak, hizkuntzen arteko eraginak eta kodeak nahastea.

Sarri-askotan entzun izan ohi da elebidunak erraztasun nabarmenak dituela H3 ikasterakoan, bada, ikusi dugunez egia izan daiteke, eleaniztunak hizkuntza ikasteko prozesua automatizatze gaitasun handiagoa baitauka (Barac eta Bialystok, 2012). Ezbairik gabe, haurren hizkuntza-garapenaren ezaugarriek eta horren testuinguruak berriazko garrantzia dute etorkizuneko kognizio- eta hizkuntza-hazkuntzan (Vygotsky, 2012). Hizkuntza-ikaskuntzaren prozesuan honako eragileak azpimarratuko dituzte, elebitasunaren garapenean giltzarri: linguistikoak, soziolinguistikoak, sozio-psikologikoak eta hezkuntzakoak (Cenoz eta Valencia, 1994; Hufeisen, 2010, Maluch eta Kemperten, 2017n aipatua)

Halaber, bi hizkuntzetako gaitasun-mailak, aurrez aipatutako garapen kognitibo eta linguistikoak ez ezik, hirugarren hizkuntzaren ikaskuntzan ere eragin positiboak izan ekar ditzake (Sanz, 2007). Ez hori bakarrik, aitzitik, hizkuntza-ikaskuntzaren ibilbideak molda ditzake hizkuntza-gaitasuna eta norberaren garapen metalinguistikoa areagotzeko (Thomas, 1988); era berean, ikaslearen H1ak eta H2ak lagun dezakete kontzientzia metalinguistikoan, H3ren hizkuntza-jabekuntzan iragarle fidagarrienetakoa izanik (Cenoz et al., 2001). Ikerketak ikerketa, aldi bereko elebidunak elebakarrekin konparatuak izan dira H3 (ingeleza) ikasterako garaian. Ikerketek topatu dute elebidunek aukera handiagoa dutela hizkuntzetan gaitasun-maila handiak erdiesteko, kontzientzia metalinguistiko areagotua lortzeko eta H3 aiseago ikasteko (Maluch eta Kempert, 2017). Maluch eta Kemperten lanean bi ikerketa dira hizpide, eta horien ezaugarriak azaltzen dituzte: Hesse, Göbel eta Hartigena (2008) eta Göbel, Rauch eta Vielufena (2011). Emaitzak argigarri dira: iradokitzen baitute aldibereko elebidunek, gainerako elebidun-mota nahiz elebakarren gainetik, erraztasunak dituztela H3a ikasterakoan; eta, ezin direla oraindik ziurtzat jo ondoz ondoko elebidunen eta elebakarren arteko ezberdintasunak. Ikerketa horien emaitzak ardatz harturik, Maluch eta Kempertek (2017) emaitzak islatu eta berrindartuko dituzte berenetan. Gainera, azken ikerketa horretan, hizkuntza-erabilerari ere erreparatuko diote. Korrelazio positiboa topatuko dute hizkuntza-alternantzia darabilten elebidunengan, abantaila nabariak izanik H3ren ikaskuntzan (Maluch eta Kempert, 2017). Horrek berrindartuko luke hizkuntza-alternantziak kitzikatzen eta trebatzen dituela

funtzio-betearazleak (Verreyt et al., 2016). Edonola ere, H2ren eta H3ren ikas-prozesuek amankomunean izango lituzkete ezaugarri esanguratsuak, eta ez litzateke aurreko hizkuntza-prozesuetatik larregi aldentzeko; egun, ez dago ebidentzia nahikorik H3 H2ren ikaskuntzaren prozesutik aldentzen dela ezeztatzeko edo baieztatzeko.

Oro har, elebiduntasun-motaren arabera ere badago ezberdintasunik; esaterako, aldibereko elebidunen eta ondoz ondoko elebidunen artean (Butler eta Hakuta 2004). Aldibereko-elebidunek bi hizkuntzen gaitasun-maila parekoak dituzten heinean, bi hizkuntza-sistema horietako ezagutza eta esperientzia luzeagoa probesteko aukera dute (Kalashnikova eta Mattock 2014). Are gehiago, aldibereko elebiduntasunak mesede egiten dio kognizio-funtzioen garapenari eta abilezia metalinguistikoari (Thomas-Sunesson et al., 2016).

Eleaniztasunaren inguruko atalarekin amaitu aurretik eta hizkuntzak irakasteko metodologiarenarekin hasi baino lehen, azken ideiarri helduko diogu. Eleaniztasuna bilatu eta dagoen tokietan probestu nahi bada, eleaniztasunaren diseinua eta ezarpena eskolatik eskolara oso ezberdina izan beharko da Euskal Herrian zehar, tokian tokiko errealitate soziolinguistikoa ezberdina baita, eta, ondorioz, hizkuntza-premia ezberdinak sortuko dira. Klase barruan sarturik, metodologia eleanitzak aplikatu beharko lirateke, euskarari ardazturik. Bi alternatiba nagusi daude eredu eleanitza aplikatzerakoan. Sokaren mutur batean, eredu klasiko eta frakzionala genuke: H3a irakasgai soil gisa hartu, eta hizkuntzak modu isolatuan irakastea, indibidualki, hiruren artean inolako hartu-emanik gabe; eta bestean, curriculumeko hiru hizkuntzak ardatz hartu eta hiruren arteko zubiak eraikiko dituen, eredu modernoago eta hizkuntzen arteko mugak malguagoak dituzten metodologiak, ikuspegiak eta pedagogiak (Cenoz, Hufeisen eta Jessner, 2001).



### 3. HIZKUNTZAK IRAKASTEKO METODOLOGIAK

Marko teorikoa lau ataletan banaturik, hirugarrenari ekingo diogu: hizkuntzak irakasteko metodologiei. Aurreko ataletako egitura jarraiturik, lehendabizi, metodologiak modu orokorrean ikusiko ditugu, labur-labur horien gaineko bistadiza emateko, tesiaren arretagune izanik metodologia eleanitzak eta hizkuntzak ikuspegi komunikatzailean oinarritutakoak.

Orotara, hiru azpiatalek osatzen dute honako hirugarren atala. Lehenik eta behin, hizkuntzak irakasteko metodologiaren sarrera gisa atzera begiratu eta erreposoa emango diogu iraganari. Bertan, ezaugarri esanguratsuenak bilduko ditugu adituen ahotan eta bilakaera azalduko dugu ahal bezain ulerkorren, metodoen, tekniken, printzipio metodologikoen eta ikuskeren inguruan zehaztapen laburrak emanik. Bigarren azpiatalean, teorietan oinarritutako irakas-metodologiei helduko diegu bi ikuspegi ezberdinetatik: alde batetik, hizkuntzaren teoriaren begietatik eta, bestetik, ikaskuntzaren teoriatik. Horietan metodologia esanguratsuenak bildu eta sailkatuko ditugu. Azkenik, hirugarren azpiatalean, eleanitzasunean irakasteko eredu eta metodologiak ekarriko ditugu, doktore-tesi honen bihotz diren metodologiak, hain zuzen ere. Izan ere, marko teorikoan azaltzen ari garen ikuspegi eleanitzaren habeetako bat izango dira hizkuntzen arteko muga malguagoak, komunikazio erreala eta hizkuntzen erabilera naturala eta eleanitza sustatzen dituzten metodologiak. Hizkuntzak irakasteko metodologietan murgildu aurretik, azpimarratu nahi da tesi honek, izaerari men, bi multzotan sailkatzen dituela metodologiak: ikuspuntu tradizionalakoak eta modernokoak. Sailkatze-lan hori egiteko, eskuarteko tesi-ikerketak Richards eta Rodgersen (2014) eredu jarraitu du, bertan zehazten direlarik ikuspegi bakoitzeko metodologia erabilienak eta eragin handikoenak.

#### 3.1. Hastapenak eta bilakaera

XV. mendean Humanismoan esnatu eta historia-korronte eta -testuinguruaren arabera garapena izan dute hizkuntzak irakasteko metodologiek, errealismotik pasata,

arrazionalismoa ondoren, ilustrazioa eta psikolinguistena jarraian. Historian zehar, bigarren elearen ikaskuntza garrantzitsua izan da motibo politiko eta pedagogikoengatik, nagusiki; izan ere, irakas-metodologiaren hastapenetan, ohartuko dira hizkuntzen irakaskuntza erabakigarri izango dela hizkuntza babestu nahiz hedatzeko, salerosketarako eta ideien hedapenerako (Sánchez, 2009).

Hizkuntza-irakaskuntzaren garrantziaz eta berrikuntza-beharraz ohartuko dira XX. mende-hasieran; izan ere, hizkuntza-irakaskuntzak iragan luzea izanagatik ere, ordura arteko ikuspegia askoz ere mugatuagoa eta zurrunagoa izan zen. Labur esatearren, berrikuntza metodologikoa ez zen arretagune izango XX. mendera arte, psikolinguistak hizkuntzak irakasteko metodologia onenaren bila lan nekazinean hasi arte.

Orduan, hogeigarren mende hasieran, hizkuntza-irakaskuntzaren dimentsioa handituko da, eta beste diziplinek jasotako ikuspegiak nahiz ekarpenak kontuan hartuko dira, hala nola, linguistika aplikatukoak, hizkuntzalaritzakoak eta psikologiakoak. Hala, alor bakoitzak, testuinguruaren ezaugarriekin batera (gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-mailarekin), ekarriko du hezkuntza-oinarri, prozedura, diseinu, ikuskera eta metodo anitzen ernatzea. Hasiko dira berariazko hausnarketa egiten hizkuntza-irakaskuntzen metodoetan, aintzat harturik *in crescendo* doan hizkuntzaren pertzeptzio anitzagoa, aberatsagoa, metodologiak eta ikuspegiak bata bestearen atzetik ugaltzen ari direlarik. Pentsa, hain izango da handia metodo berriekiko atxikimendua, ezen laurogeiko hamarkadaz geroztik “metodo-osteko aroa” ezizenez ezagutuko den; zehazki, galga emango zaio metodo berrietan hizkuntza-irakaskuntzaren soluzio bakarria bilatu nahi izateari, eta fokua jarriko zaie irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei. Hala, Brownek (1994) zintzoki azpimarratuko du hezkuntzaren bilakaera hori, metodoetatik haratago, pedagogiarekin eta testuinguruaren baldintzekin doitzeko etenik gabeko saiakera baita. Egun, globalizazioa dela kausa edo ondorio, H1ean alfabetatzeaz eta H2a ikasteaz haratago, arretagunea eleaniztasunean finkatzen hasi da, izan ere, gizartea ulertzen ari da eleaniztun izateak zer abantaila eskaini ditzakeen, nahiz eta hezkuntza-testuinguruan eleaniztasunaren erronkak sakoneko aldaketak eskatu (Hofer, 2017).

Historian izandako metodologiaren arteko norgehiagokan gehiegi sakondu gabe (eskuarteko lanaren helburua ez baita horren azalpen luzea ematea, baizik eta korrante horien logika barneratzea eta egungo hizkuntza-irakaskuntzaren eboluzioa ulertzea),

aitortu behar da hizkuntza-irakaskuntza etengabeko aldaketa- eta berrikuntza-prozesuetan murgildurik egon dela; orain, aldiz, galgari eman zaio iraganeko metodologia berriak sortzeko bulkadari, eta existitzen diren metodologiaren arteko hibridazioak eta testuinguruari egokitutakoak dira hedatuak. Halere, zinez zaila da metodologia horien guztien azterna osoa eta garbia hezkuntza-testuinguruan identifikatzea, hezkuntza-ideologia anitzen nahastura baitakar irakaslearen jardunak. Ataka honetan, testuinguruaren garrantzia goraiatzen du Lundberg (2019) bere ikerketa-emaitzetan; izan ere, irakasle metodologian eta jardunean honako faktoreen eragina identifikatu zuen: irakasle-komunitatearen usteena, eremu hurbileko testuinguruarena, kultura-identitatearena, hizkuntzen elkarbizitzarena eta orekarena. Irakas-metodologiek erronkak, zailtasunak eta buruhausteak sortarazten dizkiote irakasleari (Ball eta Lindsay, 2012; Cots, 2012; Lundberg, 2019).

Ikuspuntuak ez dira estatikoak izan; aitzitik, etengabeko eraldaketapean eta elkarrekiko eraginpean egin dute aurrera. Teoria eta praktikaren arteko tartea eta ulertzeko modu kontrajarriak beti izan dute jomuga bigarren hizkuntzako hiztunen ikaskuntza eraginkorragoa. Irakas-testuinguruak eta koiuntura historikoak arras ezberdinak izan dira, baita bigarren elea ikasteko motiboak ere. Zenbait gertakari ere eragin izan dute metodologietan, esaterako, gudek (Bigarren Mundu Gerrak, esaterako), migrazio-fluxu handiek, hizkuntzen nazioartekotzeak, hizkuntza-ekologiak, globalizazioak, Internetak, *lingua franca*ren gailentzeak, ekonomia-erronka berriak, hizkuntza gutxiagotuen berreskuratze-prozesuek. Erronkak erronka, irakaslearen metodologia-ezagutzak eta haren buruarekiko hizkuntza-gaitasunak eragin handia izan dezake metodologia baten edo beste baten alde egiteko unean (Lundberg, 2019). Ball eta Lindsay (2012) azpimarratu zuten arreta berezia eskatzen diela atzerriko hizkuntza irakasten diharduten irakasleei metodologia bat ala beste hautatzeak, ikaslea edo irakaslea protagonista nor izango den zehaztuko baitu, beste askoren artean. Egungo hizkuntza-irakaskuntzaren mamia ikasleak komunikatzeko gai bilakatzea da, testuinguru naturaletan erabiliko duten hizkuntza eta hizkera bermatzea (Sánchez, 2009).

Lehen bistadizoan kontrakoa iruditu arren, testuinguruak eta diziplinen arteko elkarreaginek bitartekari-lan amaiezinean dihardute hizkuntza-irakaskuntza metodoak

zein printzipioak elkarlotzen, doitzen eta jardun bidez gauzatzen. Ondorengo lerroetan, metodoen, tekniken, printzipioen eta ikuskera bakoitzaren inguruan mintzatuko gara.

#### 3.1.1. Metodoak, teknikak, printzipioak eta ikuskerak

Metodo hitzaren adierak bidearen metaforarekin egiten du bat, helburu jakina erdiesteko bitartekoa baita. Sanchezen (2009) aburuz, edozein ekintza hezitzailek behar du metodoa, eta bat edo beste aukeratzeak testuinguruarekin eragin zuzena du, berau lortzeko prozesua zaildu ala erraztuko baitu. Are gehiago, haren ustez, metodoaren bitartez irakaslearen usteak eta teoriak frogatzen dira, jardun zehatzetan gauatzeko nahiz horiek moldatzeko.

Lehen esan bezala, akademia-testuinguruan irakas-metodo bikainaren bilaketa sakonetan diharduko dute, XX. mende hasieratik laurogeigarren hamarkada bitarte. Bilaketa-lan horren helbururik behinena izango da metodo ideala diseinatzea, eskola-testuinguru handietara heda litekeena, ikaskuntza-eremua paregabeak lortuko lituzkeena (Brown, 2002). Brownek (1994) nahiago du *pedagogia* adiera erabili, *metodo* hitza baino; lehenengoak iradokitzen baitu irakas- eta ikas-prozesuaren hartu-eman dinamikoa, eta bigarrenak, aldiz, ikuspegi askoz ere estatikoagoa eta zurrunagoa (Richards eta Renandya, 2002). Hizkuntza-irakaskuntzaren historian zehar, betiko nahia izan da prozesu hori eraginkorragoa egitea; hori lortzeko biderik ohikoena metodo-aldaketa nahiz -doikuntza izanik (Richards eta Rodgers, 2014). Metodoen sorrera-motiboak oso lotuta daude testuinguruarekin eta hizkuntzaren lau zutabeen artean zein lehenesten edota balioesten den gehien (izan entzumena, idazmena, ahozotasuna, irakurmena); horrek ezinbestean eragiten du hizkuntza-irakaskuntzaren printzipioetan nahiz metodoan (Richards eta Rodgers, 2014). Egun, hizkuntzak eta edukiak irakasteko metodo onenen bilaketak jarraitzen du erdigune izaten: nola hobetu ikaslearen ikaskuntza-prozesua eta ikaskuntzaren aplikagarritasuna eskola kanpoko errealitatean? Lehenik, Anthony-ren (1963) ekarpen zaharra ekarri behar dugu akordura, bera izango baita metodoa ondorengo hiru kategorietan zehurki antolatzen eta hierarkizatzen lehena: bat, printzipioa; bi, metodoa; hiru, teknika. Bakoitzari hurrenez hurren helduko diogu: lehenik, printzipioari. Hizkuntzarekin, ikaskuntzarekin eta irakaskuntzaren ezaugarriekin lotutako uste-sistema osoari deritzo; bigarrenik, zer da metodoa? Labur,

printzipioari erantzuteko ekinbide teorikoa litzateke, hizkuntza-ikaskuntza ahalbidetzeko plana edo bidea; hirugarrenik, teknika: metodoaren filosofiarekin jarraiki datozen ariketa-eta jarduera-multzoa litzateke, irakas-jardunen egikaritzea, printzipioarekin bat datorrena eta helburua eskuratzea ahalbidetu behar duena (Brown, 2002). Hizkuntzen irakaskuntzaren beste idealizazioa aurkeztuko du Mackeyk (1965), Anthonyrenarekin (1963) batera mugari izango direnak hirurogeigarren hamarkadan; zehazki, haren hizkuntza-irakaskuntzaren proposamena bi adarretan banatzen da: metodoan eta teknikan. Metodoaren azpimultzo gisara, adituaren aburuz, honakoak leudeke: hautapena, gradazioa, aurkezpena eta errepikapena (Mackey, 1965). Proposamenak proposamen, harremana dute elkarren artean, eta horien ikuskerak makina bat metodo erna ditzake, hizkuntza-ikaskuntza ulertzeko eta horri ekiteko bezainbat bide (Richards eta Rodgers, 2014)

Aurreko bi ereduetatik tiraka, hainbat hutsune argi aipa genitzake. Anthonyrenak (1963) ez dio metodoaren izaerari leku nahikorik uzten, nahiz eta bere alde dituen sinpletasuna eta ulerterraztasuna. Esaterako, ez ditu ikaslearen eta irakaslearen rola mugatzen ezta argitzen ere metodoaren baitan printzipioa nola gauzatuko litzatekeen. Mackey (1965), aldiz, ikasliburuen printzipio-jarraibideekin tematuko da. Haren ereduak ez du neurtuko ikuspuntuarekiko hurbiltasuna ez ikasleen jarrera; azken finean, ezin da iturri ziur eta bakartzat hartu metodoen eta printzipioen analisirako. Ikuspegi kritikotik, bi arazo nagusi egotzen dizkio Brownek (1994) metodoen izaerari, aurreko bi ereduatan akaso identifika ditzakeena irakurleak: alde batetik, azpimarratzen du horien sorleku eta gainjartzea goitik beherakoa dela, orokorregia, akademiaren ikuspuntukoa, ikaslearen errealitatea kontuan hartzen ez duena, gainjartzailea eta izaera iragankorrekoa; bestetik, dio ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko elementu gehientsuenak alboratzen dituela eta gutxi batzuk soilik hartzen dituela kontuan.

Ondorio-bidetik, Richards eta Rodgersen (2014) eredu-proposamena topa genezake; moldaketak moldaketa, Anthonyren (1963) egitasmotik gertuago kokatzen dena. Lehenik eta behin, metodoaren eta teknikaren arteko mugariak sendotu nahi ditu, azalpen zehatzagoa emanez kontzeptuoi. Metodoak barnebilduko ditu ikuskera, diseinua eta prozedura, Anthonyren (1963) aurreko terminoak birbataiatu eta horietan sakondu eta zehazteko. Hortaz, arlo bakoitza azaldu aurretik, hitz bitan laburbilduko dugu Richards eta

Rodgersek (2014) proposaturiko eredua. Metodoa izanik goiburua, bat datorren ikuskera teorikora egokituko da, egituraketa diseinu propioan oinarriturik. Ondorengo lerroak baliatuko ditugu Richards eta Rodgersen (2014) eredua, labur eta sintetikoki, beste autoreen ekarpenak txertatu eta denak ezagutu ahal izateko (22-40. orr.).

### 3.2. Teorietan oinarritutako irakas-metodologiaren proposamena

Hizkuntza-ikaskuntzari eta haren izaerari buruzko teoria multzoen eta pentsamendukorronteen egituraketa teorikoari dagokio. Horietan finkatzen dira irakas-jardunak eta hizkuntzak irakasteko printzipioak; beste hitzetan, pedagogia-pentsamendu horrek zehazten ditu metodoak erabiltzeko filosofia eta uste-sistemak. Ikuspegiaren baitan, ondorengo bi azpimultzoak daude: hizkuntzaren teoria eta ikaskuntzaren teoria. Nahiz eta biak bereizita aurkeztu, biek osotasuna osatzen dute.

#### 3.2.1. Hizkuntzaren teoria

Hizkuntza konplexutasun handiko adiera da, dimentsio anitz eta iturri askotik edaten du, hala nola, linguistikatik, literaturatik, psikologiatik, antropologiatik eta soziologiatik. Beraz, alor batean oinarrituko bagina, fenomenoaren definizio partziala lortuko genuke. Ulertzeko era zuzenagoa izateko, espezialitate bakoitzaren ikusmoldea kontuan hartzeak eta ulertzeak definizio osoagoa eraikitzea ekarriko du. Historian zehar, diziplina bakoitzak bere talaiatik begiratu die hizkuntzari, haren teoriei, marko eta erduei; horien artean esanguratsuenak izan dira: kognizio-eredua, egitura-eredua, funtzio-eredua, interakzio-eredua, eredu soziokulturala, genero-eredua eta eredu lexikala. Zerrendatu berri ditugun eredu horiek guztiak azalduko ditugu, ahal bezain labur, historian zehar egindako eraginak behagarriak izan baitira hizkuntza-irakaskuntzen metodo eta ikuspuntuetan. Ereduen azalpenekin hasi aurretik, gogoan izan ereduaren kokatuko ditugun metodoak ez direla soilik eredu bakarrean kokatzen; hots, ez direla ehuneko ehun aipatutako ereduaren soilik, beste zenbait eredu eraginda sorturikoak izan daitezkeela edo hainbat ereduaren nahasketaren ondorio.

*Kognizio-eredua*

Kognizio bidez ulertzeak pentsamenduaren ezaugarriak egozten dizkio hizkuntzari. Kognitibismoak bere hartzen ditu honako ezaugarri orokorrak (Atkinson, 2011): lehenengoa, garunak ordenagailuaren funtzioa dauka, inputa jaso, prozesatu eta outputa sortu; bigarrena, ordezkartzarako gaitasuna da, kanpoko eragileak barneratzen ditu hark sortuak bailiran, bere baitan gordetzeko; hirugarrena, ezagutza abstrakturako jabetzaren gisakoa da ikaskuntza. Hiru horiek bateratuta, adituaren aburuz, hizkuntza litzateke ezagutza abstraktuaren jabetze-prozesua, adimena edo kognizioa izanik prozesua bideratuko luketenak.

Kognitibismoaren aitapontekoetako bat Chomsky eta haren Gramatika Unibertsalaren Teoria (GU) izango litzateke (1957. urtean Syntactic Structures liburuaz geroztik ideia etengabe garatzen diharduena). Kognizio bidezko hizkuntza-ikuspegia 1980. urtean garatua izango zuen, eta horren arabera, teorian, berezkoa izango genukeen gizakiok gramatikarako gaitasuna, edozein hizkuntza ikastea ahalbidetzen diguna. Honako hizkuntza-ikuspegiaren lehen metodoa **Gramatika-itzulpen-metodoa** har genezake; izan ere, ikaslearen helburuzko hizkuntza ikastea ahalbidetuko luke, hizkuntza-arauen abstrakzio bidez, gramatikaren lanketarekin eta itzulpenetan oinarritutako ariketen bitartez. Era berean, 60. hamarkadako **Kognizio-kodeak** ere gramatikan oinarrituko du bere jarduna, itzulpen-metodoaren gisara; hizkuntza ikasteak gramatika luke erdigune, hizkuntzaren erabilera eta jardun erreala helburu. Beste metodoen artean, ezagunenetakoa **Metodo Isila** (*Silent Way*) izango genuke, kognizioaren ezaugarriekin lotura estu-estukoa.

#### *Egitura-eredua*

Hizkuntza irakasterako garaian ezin da hierarkizaziorik gabe jardun. Horrenbestez, hizkuntzak sistemaren rola hartzen du, non elementuak eta adierak sistematizaturik datozen eta erlazionatuta dauden elkarrekin. Xedetzat hartuko dira hizkuntza-sistemaren elementuak, hala nola, gramatika-unitateak, fonologia-unitateak, gramatika-operazioak eta lexiko-unitateak. Besteak beste, ondorengo hiru metodoak gailentzen dira: **Metodo Audiolinguala**, **Ahozko Metodoa** (Egoera-metodoa) eta **Erantzun Fisiko Osoa** (*Total Physical Response*).

#### *Funtzio-eredua*

Trantsizioko ereduak izango da, bigarren mailako esangura ezberdinak jasoko dituen; edonola ere, haren zeregin nagusia hizkuntzaren adierazgarritasuna eta egiazko egoeretik atxikimendua izango da. Funtzio-ereduetan oinarrituta badago, komunikazio-gaitasunarekin hertsiki lotua egongo da, komunikazio-egoerei zuzen eta egoki erantzutearren. **Gaitasunetan Oinarritutako Hizkuntza-Ikaskuntza** esanguran eta komunikazioan fokatu da. Eta aurreko ereduaren kontrara, ez da oinarritzen hizkuntzaren gramatika eta egitura.

#### *Interakzio-eredua*

Adierak berak aditzera ematen duen moduan, hizpide du taldearen elkartrukea; hots, pertsonen arteko harremanak eta sozializazioak hizkuntza dute sorburu eta abiarazle. Hizkuntza sortzeko eta erlazionatzeko lanabes teoriko gorena da. Metodologiek "interakzio" adiera erdigune izango dute bigarren hizkuntzaren ikasteko teorietan, ardura izanik ikasleek hizkuntza-praktika erreala. Ereduaren iturritik edango dute **CLILek** eta **Zereginetan Oinarritutako Hizkuntza-Irakaskuntzak**, esaterako.

#### *Eredu soziokulturala*

Teoria soziokulturalak hizkuntza dauka komunikazio lanabes, eta, hori ahalbidetzeko, testuinguru soziala litzateke giltzarri. Sakon-sakonean, ezagutza giza interakzio bidez eraikitzen da, eta horretan islatuko litzuke ikaslearen kultura, ohiturak, usteak eta giza ekintzen nolakotasunak. Eredu soziokulturalaren eragina dute honako metodologiek: **Zereginetan Oinarritutako Hizkuntza-Irakaskuntzak**, **Edukietan Oinarritutako Irakaskuntzak** eta **Kooperazio Hizkuntza-Ikaskuntzak**.

#### *Genero-eredua*

Genero hitzarekin, hizkuntza-arauen erabilerari egiten dio erreferentzia, giza ekintza oro kontuan harturik, literatura, medikuntza, enpresakoak. Hizkuntzaren idatzizko alderdia, esaterako, hainbat generotan gauza daitezke: narrazio, deskripzio eta azalpenen bitartez, besteak beste. Egoki laburbilduko ditu Feez-ek (1998) ereduaren ezaugarri aipagarriak. Adituarentzat, hizkuntza esangurak sortzeko baliabidea da, eta sistema horren funtzionamendua azpisistemen elkarreaginean oinarrituko litzateke. Hain zuzen ere,



hizkuntza-erabiltzaileek testua darabilte esangurak sortu ahal izateko, eta hori posible da hizkuntzaren azpisisistema martxan jarri direlako; hain zuzen ere, testuinguru sozialak eragingo du testuon izaeran, eta testuinguruak baldintzatuko du erabiltzaileen produkzioa. Generoaren ikuspegia eta testugintzarena tarteko, ondorengo metodoak azpimarra genitzake: **CLIL** eta **Edukietan Oinarritutako Ikaskuntza**.

#### *Eredu lexikala*

Egitura oso bat da gramatika, zeinetan elkarren artean erlazionaturik dauden osagai guztiak (O'Keefe, McCarthy, eta Carter, 2007; Schmitt, Dörnyei, Adolphs, eta Durow, 2004). Horregatik, ereduak esaldiei eta hitz-taldeei erreparatzen die, gramatikaren barne-egitura azpimarraturik. Gramatika-gaitasunetan oinarritzen da, hiztegiaren eta hizkuntza-arauetan. Ereduak hizkuntzaren egiturari ematen dio garrantzia honako metodoetan eragina izanik: **Ikuspegi lexikalean**, **Edukietan Oinarritutako Ikaskuntza** eta **CLIL**en.

#### **3.2.2. Ikaskuntzaren teoria**

Hizkuntzaren izaeraren teoriatik edaten du metodoak; alabaina, ez du helduleku bakar. Hizkuntza-irakaskuntzarako metodologia bakoitzak teoria jakina izango du. Teoria horiek aintzat hartuko dituzte bigarren hizkuntzaren ikaskuntza diharduten zenbait faktore, horien artean, norbanakoarenak, pertsonen artekoak, kognitiboak eta sozialak. Nola ikasten du ikasleak bigarren hizkuntza? Ze teoria egokitzen da hobekien eta zeinek balio dio ikasleari gehien? Itau horien ingurumarian erdituko dira teoriak eta metodologiak. Horien artean, honakoak izango ditugu aipagai: konduktismoa, ikuspegi kognitiboa, sortze-eraikitze hipotesia, eta egungo teoria eleanitzak.

#### *Konduktismoa*

Giza jarrera erdigunea da, hau da, ikaskuntza-prozesua estimuluen menpe dago (Skinner, 1938; Thorndike, 1905; Watson, 1913; Wundt, 1907). Gainera, ekintza horien erantzunak indargarri badira, are gehiago estimulatuko eta hauspotuko dituzte jarrera horiek. Ikaskuntzaren printzipio nagusietakoa errepikapenean dago, ohitura-sortzean eta jarreraren errefortzu-estimulazioan. Beraz, akatsak egitea ez da seinale positiboa izango; aitzitik, ahal bezainbeste murriztu beharko da, eta desagerrarazi. Konduktismotik

**Gramatika-itzulpen metodoa**, **Metodo zuzena** eta **Metodo Audiolinguala** erantuko dira (Budiman, 2017), honakoetan oinarritzen baitira: ikaslearen gaitasun pasiboak berariaz lantzean, sekuentziario zorrotz-errepikakorrean, erroreari jaramonik ez egitean, memorizazio bidez ikastea eta ikaslearen ama-hizkuntza alboratzean.

#### *Ikuspegi kognitiboa*

Skinneren Konduktismoari kontrajarriko zaio Ikuspegi kognitiboaren teoria. Hizkuntza-ikaskuntza kognizio-prozesutzat hartuko du, errepikapen hutsa baino gehiago. Hala, hiru zimendu nagusi izango ditu 1960an sortutako ikuspegi berriak: dedukzio bidezko ikaskuntza, indukziozkoa eta esperimentazio esanguratsuarena (Ausubel, 1960, 1963; Bloom, 1956; Bruner, 1966; Piaget, 1936). Gramatika-arauak aurretiaz irakasten zaizkio ikasleari, ondoren aplikatzeko. Ikaskuntzaren dimentsioak hedatu eta sakonduko dira, adimenaren trebakuntzarekin lotu eta buru-ariketatzat hartu. Metodoak metodo, **Araoetan oinarritutako ikaskuntza**, **Egoera metodoa** eta **Proiektu bidezko ikaskuntza** lirateke azpimarragarrienak (Suharno, 2010).

#### *Eraikitze hipotesia*

Egun, H2, H3 eta hizkuntza gehiagorengan nabari da haren eragina. Sortze-eraikitze hipotesiaren baitan, ikaskuntza ez da soilik inputa jasotzea, askoz ere konplexuagoa da. Bigarren hizkuntza ikasten ari direnak etengabea ari dira beren hizkuntza eraikitzen eta ikas-prozesuarekin jarraitzen. Ikaskuntza-teoriak, eraikitze-lan horretan, erroreak ikas-prozesuaren frogatzat hartuko ditu, oztopo eta ekidin beharreko interferentzia bainoago. Ereduak eredu, **Atzetan Oinarritutako ikuspegiak**, **Komunikazio-ikuspegiak**, **CLILek** eta **Translanguagingek** ezaugarri horiek besarkatuko dituzte, eta ekarpen are esanguratsuagoak egingo; izan ere, ikaskuntzaren arreta guztia horretara bideratuko da, komunikaziora, alegia. Hortaz, bigarren mailan egongo da gramatika-zuzentasunaren garrantzia. Gurera ekarrita, joera hedatuena da ikasleak D eremuan murgiltzea (euskararen murgiltze-eredua) eta atzerriko hizkuntza CLIL erabiliaz irakastea; konbinazio horrek emankorragoa dirudi hizkuntza-maila areagotzeko, badirudi-eta CLIL metodologiarekin dauden ikasleei mesede egiten diela hizkuntza-gaitasunak trebatzerakoan (San Isidro eta Lasagabaster, 2018).

Aurreko eredu estrukturalistek eta metodologia audiolingualak sekulako ekarpena egin zioten garai hartan hizkuntzen irakaskuntzari; edonola ere, ereduak ez zen gai izan komunikazio-ereduek mahai gainean jarritako erronkei heltzeko: ikasleak klase barnean nahiz kanpoan komunikatzeko gai izateari (Sánchez, 2009). Berdintsu gertatu zen aurreko ereduak proposatutako errepikapenean oinarritutako jarduerekin, komunikazio-ereduak soilik ulertzen baitzuen hizkuntza-ikaskuntza zerbait konplexu gisa eta eragile askoren menpeko zela, ez zela oinarritzen imitazio hutsean ez eta jarreraren errefortzua soilean. Esaterako, hizkuntzak aintzat hartu eta eleaniztasunean oinarritutako ereduaren artean, Translanguaging izango genuke, berritzailea izanik haren hizkuntza-ikuspegia, hainbat adarrek (linguistikak, psikologiak, soziologiak, eta bestek) ezarritako hizkuntzen arteko mugetatik haratago doana eta eleak elkarren artean konektatutako sistema konplexu gisa hartzen dituen ikaslearen garunean (Wei, 2018). Ondorengo atalak azalpen sakonagoak emango ditu eleaniztasunean irakasteko eredu eta metodologiaren inguruan.

### **3.3.Eleaniztasunean irakasteko eredu eta metodologiak**

Aurreko azalpen teorikoak ardatz harturik, oraingoan, eleaniztasunean hizkuntzak irakasteko metodologia berritzaileak izango ditugu jomugan, arreta berezia jarritik Translanguaging pedagogian, eleaniztasunean aditu diren ekarpen eta iradokizunetan. Hasteko, Translanguaging pedagogiari buruz mintzatuko gara. Ez dugu aurreko atalean idatzitakoa berriz ere errepikatuko (ikus eredu eta teoria eleanitzak atala). Labur esateko, translanguaging pedagogiari buruz hitz egiten dugun oro, jakin behar dugu hizkuntzak eleaniztasunaren barne modu integratuan ulertzen dituen ereduari buruz mintzatzen ari garela. Bertan, eleaniztun bakoitza gorputz soziala izaki, haren baitan dauden hizkuntza guztiek hizkuntza-sistema bakarra osatzen dutelarik (Cenoz eta Gorter, 2017; García, 2009; Garcia eta Woodley, 2012; MacSwan, 2017; Otheguy et al., 2015; Wei, 2018). Aipatutako adituek hizkuntzen ikuspegia eguneratu, hizkuntza-ikaskuntza tradizionalarekin hautsi eta hizkuntzen integrazioa goiburua duen hizkuntza-erakuntza soiletik haratago doan prozesutzat dute.

Translanguagingaren erroak galestarrak dira, eta eredu pedagogikoa eraginkorra suertatu da ikaslearen ama-hizkuntza eta eskola-hizkuntza ezberdinak izan direnean; izan

ere, ereduak bertute du ikas- eta irakas-prozesua ikaslearen komunikatzeko nahiaren inguruan antolatzeko, hizkuntza-ezagutza eleanitza lanabes (Wei, 2018). Ikuspegi eleaniztuna izateak adierazi nahi du hiztunaren izaera eleanitza, unibertsala eta integratua dela, diziplina ororen emaitza (MacSwan, 2017). Ikuspegi eleanitzaren bitartez hizkuntzak ikasteak zera esan nahi du: eleaniztun bilakatzea, eleaniztunaren ezaugarri guztiekin, eta ez elebakarraren mailako hiztun berria sortzea haren bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntzan (Wei, 2018). Sakonago ulertze aldera, Weik (2018) honako ezaugarriak eranstean dizkio translanguagingaren jardun sozial eta arinari: batetik, hizkuntzak ikasteko jardun eraldatzailea, ikaslearen kognizioan eta egitura sozialetan ardatzen baita; bestetik, diziplinen arteko emari aberatsa eta hizkuntzaren beraren birkontzeptualizazioa, hizkuntzak linguistika, psikologia, soziologia eta hezkuntzaren artean zubiak eraikirik ikasten baitira. Translanguaging ereduak hezkuntzaren praktika heteroglosikoak indartzen ditu eta, atzera, monoglosikoak ezbaian jartzen. Eleak modu isolatuan irakatsi beharrean, hizkuntzen ikuspegi malgu eta integratzaileekin hobestea (De Korne, 2012).

Jardun monoglosikoetatik aldendu eta heteroglosikoetara hurbiltzea aldaketa sakona eskatzea da, eta mugari eleanitzetara hurbiltzeak halabeharrez eskatzen du irakasle-usteak egokitzea eta irakas-jardun eraginkorren bitartez horiek gauzatzea (Haukås, 2016). Izan ere, adituaren aburuz, egitekoa sinplea da: irakasleak eredu eleaniztunetan trebatu behar dira, ondoren, ikasleek jardun eleanitzen bitartez hizkuntzak ikas ditzaten. Haukåsen (2016) lanean aipaturiko Neunerren (2009) iker-lanak honako hiru baldintza zehaztu zituen hezkuntzak eredu eleaniztunean irakasteko: lehenengoa, eredu eleaniztunera aldatzeak eraginkortasunera eta motibaziora gerturatuko dituela sinestaraztea; bigarrena, irakasleen gutxieneko trebatze-maila bermatzea; hirugarrena, irakasleari erraztasunak bermatzea, besteak beste, materiala eskuragarri izaten. Formazioaren beharra handia da irakasleen artean, eta Lundbergen (2019) ikerketa-emaitzen harira, badirudi atzerriko hizkuntza irakasten diharduten irakasleak trebatuagoak direla jardun eleanitzak martxan jartzerako orduan, adibidez, ikaslearen hizkuntza-ezagutza baliatzea H3 ikasteko; hala eta guztiz ere, adituak eleaniztasunean oinarritutako formazioa jasotzeko deia zabaltzen du, eta ez soilik atzerriko hizkuntzako

irakasleei eskaintzea. Gaur-gaurkoz, hizkuntza-irakasleek arreta eta denbora urriegi eskaintzen diete kontzientzia eleaniztunei eta jardun eleanitzei.

Hain zuzen ere, Cenoz ikerlari eta aditu euskaldunak, zeinak euskara hizkuntza gutxiagotu gisa ikertzen duen hezkuntza-esparruan, azpimarratzen du jardun eta ikuspegi monoglosikoak erabilgarriak izan direla iraganean, hizkuntza-isolamendua eta -bereizketa arrakastatsuak izan direla ikasgelak homogeneousak zirenean; orain, aldiz, ikuspegi eleanitza bultzatzen du, ikasgela berean hainbat ama-hizkuntza dagoelako eta kurrikuluak hiru hizkuntzen ikaskuntza jomuga duelako: euskara, espainola eta ingelesa (Cenoz, 2011); era berean, ikuspegi hori ez du irakas-hizkuntzara mugatzen eta hizkuntza-politika nahiz ebaluazioetan aldarrikatzen du ikusmolde eleanitzaren beharra, tradizioa gaurkotzeko egun dugun mundu globalizatuan (Gorter eta Cenoz, 2017).

Iraganari begira, esan daiteke gaur egun oinarri modernoak duten metodologiak komunikazio-ikuspegitik ernatu zirela. Komunikazio-ikuspegia irakas-jardunaren eredurik garrantzitsuenetakoa izan da azken hamarkadotan. Eredua ulertzeko erak oso anitzak eta ezberdinak izanik, oso ikerketa gutxi dago irakasleek zer uste duten komunikazio-ikuspegiari buruz eta nola garatzen diren haien jardunak ereduaren inguruan (Woods eta Çakır, 2011).

Kezka horren jabe, Guarda eta Helm-en (2017) ikerketa ekarriko dugu. Haien ikerketan, Italia iparraldeko unibertsitate batean, unibertsitate-irakasleen irakas-hizkuntzan aldaketak behartu zituzten, zehazki, berrikuntza eta hausnarketa metodologikoak behatu zituzten eta sortarazitako gorabeherak. Emaitzek adierazi zuten, hizkuntza-aldaketak suposatzen zuen erronka linguistikoak hausnarketa ekarri zuen irakasle horien norbanako jardunean, bide batez, ikasleen beharrak identifikatu eta aseko zituzten jarduerak antolatzeko. Oro har, emaitzek iradokitzen dute irakasleen garapena babestu eta elikatuko duten guneak sortzeko beharra zegoela, horietan helburu izanik haien jardunaren hausnarketa eta eleaniztasunean hezteak. Hain zuzen ere, ikerketan zehar praktika eleanitzei buruzko saioak jaso zituzten irakasleek, haien irakas-jardunean eragin positiboa izanik. Ondorioek azpimarratzen dute irakasleek biziki behar dutela komunitatearen beharra eta babesa, gune bat sortu beren jardunari buruz hausnartzeko eta ikasleen beharrak detektatzeko.

Esaterako, komunikazio-ikuspegiak irakas-hizkuntza ahal bezainbeste erabiltzea bultzatzen du, ariketa errealean bitartez hizkuntza ikastea. Cumminsek (2007) aldiz, bigarren eta hirugarren hizkuntza irakasterakoan, ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzetara itzulpenak egiteko aukera baliatzea azpimarratzen du: batetik, hizkuntza-ikuspegiaren katalizatzaile izan daitekeelako, hizkuntza berria ikaslearen hizkuntza-egagutzarekin elkarlotu eta hiztun eleaniztunen ereduetan aniztasuna sorrarazten duelako. Era berean, gomendio-sorta bidaltzen die irakasleei: hizkuntza berria ikasleek dakizkizten hitz eta esaera errokideekin lotzea, ahal den heinean materiala elebiduntzea (itzultzea) eta irakas-hizkuntzan trebeak diren beste ikasleekin harremanak sortzea, teknologiak eta bide tradizionalak baliaturik.

Sanchezek (2009) haren ikerlanean dio ez dela bikaintasun metodologikorik inon, baizik eta metodo, teoria eta ikuspegien arteko konbinazio, elkarrizketa eta egokitze ugari hizkuntzak ikasterakoan arrakastatsuak gerta daitezkeenak. Edonola ere, adituak azpimarratzen du, irakas-metodo idealarengatik galdetuko baliote, hark komunikazio-ikuspegiak aukeratuko lukeela, metodologiak duen hizkuntza-ikuspegiagatik eta ematen dituen aukerengatik; izan ere, metodologiaren ezaugarriak direla-eta, irakas-jardun osoagoak eman daitezkeela dio, komunikazioan oinarritutako jardunak antolatu eta ikaslearen beharrezanetara egokitu, ikaslearen H2ko eta H3ko gaitasuna modu eraginkor, natural eta komunikatzailea erdiesteko. Hark komunikazio-ikuspegiaren ikuspegi teorikoa interakzio sozial soziokonstruktibistan kokatzen du. Beste zenbait ikerlarik (Aguilar eta Rosa Rodríguez, 2012; Coyle et al., 2010), komunikazio-ikuspegiaren oinarriturik, CLILen alde egiten dute, edukia eta hizkuntza biak batera landu eta garatzeko aukera aparta ematen baitu kudeaketa onaren bitartez, izaera sinbiotikoa baitauka.

Aurretiaz, hirugarren atalean bildu eta azaldutako ikerketek erakutsi bezala, irakas-usteak eragin handikoak izan daitezke eta irakas-jarduna baldintza dezakete. Lundbergen ikerketak (2018) Lehenengo Hezkuntzako irakasleen eta ikasleen eleaniztasun-usteak aztertu ditu. Bertan, azpimarratzen du, irakas-jardunari begira: alde nabarmena dagoela metodologia tradizionala darabilten irakasleen usteen eta modernoagoa erabiltzen duten irakasleenen artean, uste modernoak jardun modernoagoak baitakartza. Eta adituak metodologia anitzen nahiz berritzaileen alde egiteko apustua aldarrikatzen du ikerlanaren hondarrean. Aipamen berezia egiten dio translanguaging pedagogiari,

literaturak islatzen baitu gero eta onarpen-maila handiagoa jasotzen duela ereduak. Haren ustez, ezinbestekoa da irakasleen metodologia-usteak eleaniztasunaren aldekoak ote diren jakitea, izan ere, horrek baldintzatuko lituzke etorkizuneko hezkuntza alorreko erronkak. Gure tesi-ikerketak hipotesi berekoa da, ezein proposamen pedagogikok edo eskuhartzek ezinbesteko duela irakasleen usteak zehaztea. Uste berritzaile eta tradizionalen artean, Angelisen ikerketak argi-printzak eskaintzen dizkio irakurleari (2011a). Haren emaitzek azpimarratzen dute atzerriko hizkuntza-irakasleek hizkuntza-kontzientzia handiagoa garatzen dutela eta, hortaz, aurrerazaleagoak izan daitezkeela hizkuntzak irakasteko metodologia berritzaileagoak aplikatzeko.

Bukatzeko, beste ikerlari batzuk ere translanguaging pedagogia dute hizkuntzak irakasteko biderik emankorrena (Cenoz eta Gorter, 2017), bereziki, hizkuntza gutxiagotua testuinguru eleaniztunaren ezaugarri denean. Haiek *translanguaging jasangarria* deritzote, hizkuntza gutxiagotuari eta testuinguruari egokitutako metodologia izaki, hizkuntza babesteko eta garatzeko estrategiari. Iraganean arrakastatsuak izandako ekintzak berrantolatuko lirateke, hizkuntza gutxiagotua translanguaging bitartez integratu eta irakatsiko litzateke honako jomugak dituelarik: lehenik, hizkuntza gutxiagotuaren erabilera bermatuko duen arnagunea sortzea; bigarrenik, translanguaginga bai, baina hizkuntza gutxiagotuaren bitartez komunikatzeko beharra sustatzeko; hirugarrenik, hizkuntza-ezagutza baliaturik, hiztun eleanitzaren kontzientzia metalinguistikoan sakontzea eta ikaslearen hizkuntza-kontzientzia areagotzea; laugarrenik, bat-bateko translanguaging naturala irakas-jardunean integratzea.

De Korneren (2012) ikerketa-emaitzek diote, praktika heteroglosikoak martxan jarri nahi baldin badira ere eta hizkuntzen artean zubiak eraiki, sakonean kasik ezinezkoa dela eragin monoglosikotik aldentzea, halako ideologia eta pedagogiak oso present baitaude irakasle on uste-sisteman. Eta etorkizunari begira, zinez garrantzitsua izango da irakasle on eta etorkizuneko irakasle on hezkuntzan metodologia eta pedagogia eleanitz heteroglosikoetan hezteko etorkizuneko irakasle on gurpilean murgiltzeko.

Hezkuntza-errealitatea hizpide, hizkuntzak ikasteko pedagogiak, metodologiak, ikuspegiak eta curriculum-diseinu anitz topa dezakegu. Hirueletasunaren ingurumarian, Ytsma-k (2010) Lehen Hezkuntzari ekiteko honako hiru ezaugarri hartuko ditu irizpidetzat: lehenik, ikasle on eta lurraldearen hizkuntza-testuingurua, eta horri

zuzenduriko eredu eleanitz posibleak; bigarrenik, helburuzko hiru hizkuntzen arteko ezagutza eta distantzia linguistikoa; hirugarrenik, hizkuntzak irakasteko uneak, aldiberekoa, ondoz ondokoa. Bestalde, hiru hizkuntzak curriculumean arrakastatsu integratu ahal izateko, makina bat ezaugarri eta baldintza hartu beharko lirateke kontuan, esaterako, hizkuntzarekiko kontaktu-maila, erabilera, gizartean duen *statusa*, eskumen politikoak, babes soziala, hizkuntzekiko jarrerak eta atxikimenduak; gainera, ezaugarri horiek guztiak herriz herri eta auzorik auzo alda litezke Euskal Herrian. Cenoz, Hufeisen eta Jessneren (2001) esanetan, eredu-hirueledunen bueltan, arrakastatsuak suertatu diren plangintzak ezin dira bere horretan hartu eta beste testuinguru batean besterik gabe martxan jarri. Haatik, programok testuinguru linguistiko eta gizarte jakinari zuzentzen zaizkio, eta hortaz errealitate berriaren ezaugarrietan oinarritu beharko litzateke; hots, egoera soziolinguistikoak baldintzatuko du eredu-hirueledunak zer hizkuntza eta nola ase behar dituen. Gainera, curriculumaren diseinuak arreta berezia zor dio hizkuntza-irakaskuntzari; hau da, zer izango den ikaskuntzaren erdigune: forma, hizkuntza bera edo erabilera.

Gure hezkuntza-sistema tesiaren jokalekua izaki, konturatuko gara nazioartean nahiz gure nazioan eginiko ikerketak nahi genukeena baino gutxiago murgildu direla metodologia eleanitzetan, pedagogian eta zer esanik ez usteetan. Honako ikerketak irakasleek darabiltzaten metodologiak izango ditu ikergai, baita irakasleek hizkuntzei atxikirik dituzten usteak ere; izan ere, H2ren eta H3ren ikaskuntzarako zein jabekuntza eraginkorrerako behar-beharrezkoa da metodologiaren juzgu eta hautaketa zehurrak. Estrategiak estrategia, hirueletasuna baldin bada helburu, taxuz aztertu beharko dira irakasleriaren metodologiak, usteak, beharrak eta jardunak; hots, lehenik eta behin abiapuntua ezagutu, ondoren, etorkizunari begirako helburu errealei, idealei eta lortzeko posible direnei bidea egin eta pausoka urratu ahal izateko.




## 4. HEGOALDEKO EGOERA LINGUISTIKOA ETA HEZKUNTZA-SISTEMAK

Hona hemen marko teorikoaren laugarren eta azken atala: Hegoaldeko egoera linguistikoa eta hezkuntza-sistemak. Bi azpiataletan banatzen dira: lehenengoa, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona eta, bigarrena, Nafarroako Foru Komunitateari. Bi lurraldeotan edukiaren hezurdura berdina da: lehenengo azpiatalean, hezkuntza-sareak eta -ereduak izango dira mintzagai; bigarrenean, hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak; hirugarrenean, bakoitzaren hezkuntza-plana azalduko da.

Testuinguru elebidunetan sakon errotuta daude jardun monoglosikoak, eta horren ispilurik argiena litzateke hizkuntzak nola irakasten diren: hizkuntza-espezialistarekin (berezko hitzuna lehenetsiz) eta gainerako hizkuntzetatik nahiz irakasgaietatik isolatuta. Esan dugu, Euskal Herriko testuingurua anitza da, eta gorabeheratsua ere bai hizkuntza gutxiagotuaren presentzia, ezagutza, erabilera eta estatus politiko eta eskumenei dagokienez. Eleanitza da euskal lurretako testuingurua, eta hizkuntza bereizteko joera ere gure-gurea, euskara babesteko eta erdaren eragina gure hizkuntzan ahalik-eta txikiena izateko; halaber, kurrikuluak hiru hizkuntzak (euskara, espainola eta ingelesa) banaka eta modu isolatuan irakasteko ideia babesten du (Gorter eta Cenoz, 2017).

Ondorengo bi azpiataletan Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroako Foru Komunitateari buruzko hezkuntza-errealitateak labur azalduko dira,




**Iturria:** Wikipedia

**Irudia 4.1** Euskal Herriko lurralde historikoak Europako mapan

bakoitzaren bilakaera eta gaur egungo hizkuntza-ereduak eta datuen berri emateko. Bi

### 3.3 Eleaniztasunean irakasteko eredu eta metodologiak

lurraldeak Euskal Herria herrialdearen zati dira, eta biek batera sorturiko taldekatzeari Hegoalde deitzen zaio, Pirinio mendebaldean, gaur egun Espainiako lurren menpe dagoena. Euskal Herriak zazpi lurralde historiko edo herri baldin baditu, Euskal Autonomia Erkidegoak (kolore urdin argiz) hiru lurralde izango lituzke: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa; eta bigarrenak (morez), bakarra: Nafarroa (ikus 4.1. irudia). Euskal Herria adieraren sorburua Nafar Erresumari atxiki izan diote dokumentuek, hain zuzen ere, Gaztelako Erresumak Nafarroa Garaia konkistatu eta burujabetasuna haren kargu hartu zuenean. Beraz, Nafar Erresumaren egitura politikoa deusezterakoan, ezaugarri amankomunari heldu eta berau izendatu zuten hark hartutako lurraldean: euskara eta euskaren herria. Ondorengo bi azpiataletan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko bi errealitateak arin azalduko dira, ardatz izanik Francoren diktadura osteko agintaldiak eta ibilbidea. Hona hemen euskal hezkuntzaren etapa guztiak (ikus 4.2. irudia euskal hezkuntza-sistemaren etapak ulertzeko).



Irudia 4.2 Hezkuntza-sistemaren organigrama etapaz etapa

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza-Saila

## 4.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Esan bezala, honako azpiatalean hiru foku nagusi izango ditugu: lehenengoa, hezkuntza-sarea eta ereduak; bigarrena, hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak; hirugarrena, Heziberri hezkuntza-plana.

### 4.1.1. Hezkuntza-sarea eta -ereduak


Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, euskarak hizkuntza koofizial estatus politikoa dauka. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, euskara hezkuntza formalean irakas daiteke, 1983/138 dekretuak hala onesten baitu. Harrezkero, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak legeztatu zituen euskara eta gaztelania, biak, unibertsitate aurreko hezkuntza-ibilbide osoan. Lege-dekretuak dio nahitaezkoa dela bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoan bai ikasgai soil gisa bai irakas-hizkuntza moduan. Dekretuak ere berresten du Batxilergoan eta Lanbide Heziketan soilik A eta D ereduak eman litezkeela; edonola ere, Bizkaiko zenbait gunetan X eredu ere eskaintzen da. Legediak ondorengo hezkuntza-ereduak izatea ahalbidetu du, hizkuntzaren arabera sailkatuak; edo, bestela esanda, euskararen presentziaren arabera ereduak:

- A eredu: espainola da irakas-hizkuntza, Euskara eta Literatura euskaraz eta atzerriko hizkuntza salbu. Astero, euskara-orduak hiru eta bost artekoak izan daitezke. Hasieran, honako eredu ama-hizkuntza espainola zuten ikasleentzako diseinatu zen; dena den, eredu honetan matrikulatutakoek euskara-maila oso apala erdiesten dute.
- B eredu: espainola eta euskara dira irakas-hizkuntzak, lehenengoaren bitartez edukiak eta matematikak irakatsiko lirateke berariaz, bigarrenarekin esperimentazio bidezko ikasgaiak (arte hezkuntza eta gorputz hezkuntza), Euskara eta Literaturaz gain. Teorian, bi hizkuntzetan banatzen dira klase-orduak, nahiz eta eskola bakoitzak nahieran moldatzen dituen errealitatean. Hasieran, espainola ama-hizkuntza gisa zuten ikasleentzako diseinatutako eredu izan zen, elebidun izatea nahi zuten familientzat. A ereduak baino emaitza hobek lortzen ditu ikasleak euskara-gaitasunean, halere, oinarrizko eta erdibideko mailak eskuratzen dira.

#### 4.1 Euskal Autonomia Erkidegoa

- D eredu: A ereduaren aurkakoa da. Euskara litzateke irakas-hizkuntza eta Lengua Castellana y Literatura emango litzateke espainolez. Lauzpabost ordu dira espainolaren bitartez irakatsitakoak astero. Hasieran, eredu euskara ama-hizkuntza gisa zuten ikasleentzat proposatu zen, mantentze-eredu moduan; egun, aldiz, murgiltze-eredua deitzen zaio, espainola ama-hizkuntza gisa duten ikasleek hartzen baitute ere bai. Eredu guztietatik, euskararen alfabetatzeko eredu proposena da ikasle ororentzat.
- G edo X eredu: Ez da euskaraz klaserik ematen ezta Euskara eta Literatura ikasgaia ematen ere. Euskal Herrira epe labur bat igarotzera etorritako ikasleei eginiko eredu litzateke.

Euskara, berez, arriskuan dauden hizkuntzen zerrendan kokatzen du UNESCOk, eta hizkuntza zaugarri goiburuean topa dezakegu (Moseley, 2010). Gaurko egoera aurreko mendekoa baino hobea da euskararen ezagutza aldetik, eta horretan giltzarri izan dira euskarazko murgiltze-ereduak (D ereduak) eta Euskaltegiak, hezkuntza elebiduna eta hirueleduna jasotzea ahalbidetu baitute, euskararen ezagutza hedatzearekin eta erabilerarekin batera. Ondorengo 4.3. irudian ikusgai izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan Lehen Hezkuntzan izan diren matrikulazioak ereduaren arabera, 2014/2015 urtean hasi eta 2019/2020 bitartekoak:




**Irudia 4.3** Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazio-datuak ereduak

**Iturria: Hezkuntza Saila, EUSTAT**

4.3. Irudian beha daitekeen moduan, A eta B ereduetan matrikulazio-tasa beherako joeran ari dira urterik urte, izanik bi ereduetatik lehenengoaren kopurua oso baxua eta bigarrenarena esanguratsuagoa. Kontrara, D eredia gorako joera etengabea ari da, izanik 2019/2020 ikasturteko matrikulazio-tasa B eredia baino kasik lau aldiz handiagoa. X ereduak matrikulazio-tasarik txikiena jasotzen du urtez urte; halere, gorako joera oso diskretua du. Ondorengo irudian datuok ehunekoetan erakutsiko ditugu, datu absolutuak hobeki ulertze aldera:


Datu absolutuek 4.4. irudian erakutsi bezala, D ereduak jasotzen du ikaslerik gehien, eta gorako joeran da ikasturteek aurrera egin ahala. Azken datuek erakusten dute D ereduak jasotzen duela EAEko ikasleriaren hiru laurden, izanik B eredia bigarren eredurik hautatuena, ikasleriaren bostena jasotzen duelarik.



**Irudia 4.4** Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazio-datuak ehunekotan eta ereduka

**Iturria:** Hezkuntza-Saila, EUSTAT

Ikasleen matrikulazioarekin jarraitu eta hezkuntza-sareari erreparatuko diogu. Eskuarki, bi eskolatzeko sare daude EAEn: publikoa eta pribatua (kontzertatu izenez ere ezaguna). Lehenengoa Eusko Jaurlaritzak, espezializatutako hainbat sailek, udal eta Haurreskola-Patzuergo baimenduek osatzen dute. Bigarrena, aldiz, erakunde pribatuek eta baimendutako hezkuntza guneek osatzen dute, nahiz eta diru-iturri publikoa jaso horien finantzaketarako. Ituna 1978ko irailaren 8an sinatu zen, 1987/293 dekretupean alegia. Ondorengo irudian Lehen Mailako ikasleen matrikulazioa erakusgai, eskolatzeko sarearen arabera banaturik:




**Irudia 4.5** Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazio-datuak sareka

**Iturria:** Hezkuntza-Saila, EUSTAT

4.5. irudiak erakutsi bezala, bi sare nagusitan banatzen da euskal ikasleria: pribatua (kontzertatua) eta publikoa. Ikasle-kopuru absolututan, urtez urte, gorabehera gutxi egon da bi sareen artean eta zifrak berdintsu mantendu dira 2014/2015 ikasturtetik 2019/2020 bitartean: ikasleriaren ia %52k eman du izena sare publikoan, eta pribatuan %48 inguruk. Gainera, biak alderatuz gero, matrikulazio-kopurua parekatua da, nahiz eta eskola publikoan 4.000-5.000 ikasle inguru gehiago matrikulatu den pribatuan baino.

### 4.1.2. Hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak

Eskolatzere-ereduaz eta -sareaz gain, EAEko biztanleriaren bilakaera linguistikoa biltzen duen taula ekarriko dugu adin-taldearen arabera. Datuok bi urte ezberdinetan multzokatzen dira, 1991 eta 2016 urteak. Beheko 4.6. irudian, 1991ko (berdez) eta 2016ko (urdinez) datuak ipini ditugu parez pare adinaren arabera euskal hiztunen eboluzioa behatzeko.



**Irudia 4.6** Euskal hiztunek adinaren arabera (1991 eta 2016 urteak)


**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hamabost urteko tartea dago bi neurketen artean, eta 4.6. irudian argi azaltzen da 1991. urtean 65 urte gorakoek, zaharrenek, osatzen zutela euskal hiztunen masarik handiena (%33.5); era berean, gazteenek euskal hiztunen bigarren talderik handiena osatzen zuten (%25). Aldiz, azken datu-jasoketan, 2016n, tendentzia irauli da, talde zaharrena euskal hiztunen talderik txikiena izaki (%22,4). Gainerako taldeetan, atzekoz aurrera, zenbat eta gazteago orduan eta euskal hiztun gehiago topatzen da, izanik 25-34 urte artekoetan kasik erdia eta talde gazteenean hamarretik zazpi pasatxo. Joera argia da: euskara bidez alfabetatzearen aldeko apustuak euskal hiztun potentzial gehiago ekarri du. Hezkuntzaren apustua eta erdietsitako emaitzak honako aipuan laburbil genitzake:

“Legeak hezkuntzan jarri du fokua euskararen ezagutza zabaltzeko, eta, gaztetxoenen artean euskaldunen kopurua nabarmen hazi da. Hortaz gain, legeak hedabideak ere nabarmendu ditu zeregin horretan” (Garcia, Arratibel, eta Irizar, 2017, 164. or.).

#### 4.1 Euskal Autonomia Erkidegoa

Ilido bertsutik, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen jarrera positiboa eta harbera da euskararekiko. Hau da, aurretiaz, euskararen aldeko jarrera gailentzen da elearekiko, urteen poderioz, handitzen ari dena; izan ere, gero eta urriagoa da euskararen kontra agertzen den biztanleria-kopurua. 4.7. irudiak argi erakusten du 1991. urtean jasotako datuen eta 2016an jasotako azken enaldieraketa eta joera.



**Irudia 4.7** Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen jarrera euskararekiko (1991 eta 2016)

**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Ikusgaienez, hamabost urteren buruan, oro har, bost puntu jaitsi da euskararen kontrako jarrera ageri duten biztanle-kopurua, izanik ehun biztanletik bederatzia euskararen aurkako. Era berean, beste bost puntu murriztu da posizio neutralean mantentzen den biztanleria, izanik EAEko biztanleriaren laurdenak jarrera neutrala euskararekiko. Aldiz, euskararen aldeko jarrera duen taldea hamar puntuan hazi da iragan hamabost urteotan, %55etik %65era hazita.


Hezkuntza ereduaren datuak, hizkuntza-erabilera eta euskararekiko jarreraren aldekoak izanik ere, bada azken urteotan kezkarria gertatzen hasia den esparrua: euskara-erabilera. Erabilera eta jarreraren datuak positiboak dira, eta ezinbesteko osagai dira hizkuntza-erabilera sustatzeko: hizkuntza-erabilera eta hura balioestea. Egia da azken hamabost urteko datuekin konparatuz gero erabilera gora egin duela; nahiz eta azken urteotan goia jo eta behera egin duen erabilera zenbait esparru eta gunetan (Soziolinguistika klusterra, 2017). Datuek erakusten dute, aurreko



alfabetatze eta sentsibilizazio faseek eman dutela eman zezaketena, eta, hortaz, Amonarrizen aburuz ziklo berri bati hasiera emateko garaiaren aurrean geundeke, aurreko faseak ahiturik eta bidegurutzean (2017); haren hitzek ederki laburbiltzen dute hizkuntzaren erabilerak bizi duen ataka:

“Euskararen egoerak hobera egin du nabarmen aurreko hamarkadetan, baina hobekuntza nabarmentzen duten datuekin batera, azken urteotan, motelaldi edo geldialdi egoera adierazten dutenak ere badaude” (Amonarriz, 2017, 28. orr.).

Testu azpiko irudiak EAEko lurralde historiko bakoitzari dagokio hizkuntza eta erabilera alderatzeko. Bertan ageri diren datuek adierazten dute euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren ehunekoa; hots, euskararen erabilera aktiboa egiten duen EAEko biztanleriarena. Datuek lau aldi edo momentu jasotzen ditu: 1991, 2001, 2011 eta 2016.




**Irudia 4.8** Euskara eta erabilera: Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleria lurraldeka (1991, 2001, 2011 eta 2016)

**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

4.8 irudi grafikoak azken mende laurdeneko bilakaera jartzen du ispilu aurrean. Euskararen garapena goranzkoa izan da lurralde guztietan, erritmo azkarragoan

zenbaitetan eta motelagoan besteetan. Halaber, abiapuntuak zeharo ezberdinak izan dira hiru lurraldeetan, ikustea besterik ez dago zenbatek zerabilten euskara Gipuzkoan (% 33,1) eta Araban (% 0,5) duela 25 urte. Lurraldeak lurralde, hogeitabost urteotan igoera apalena Bizkaiak eman du ehunekoei dagokienez, % 4,2 hazi baita. Ondoren, Araba izango genuke, % 5,1eko igoerarekin. Azkenik, Gipuzkoan da hazkunderik nabarmenena: % 6,4. EAEn orotara %5 altxa da euskara-erabilera azken mende-laurdenean, izanik EAeko biztanleriaren bostena euskara darabilena eguneroko jardunean. Grafikoaren bilakaerak indartzen du aurreko bi adituek islatzen duten bidegurutze edo ziklo berriari ekiteko unea; izan ere, badirudi, lekuan lekuko euskara-erabilera kristalezko sabaitik oso gertu dela, ezin altxaturik erabilera-kopurua. Euskara-hiztunen kopuru horietatik guztietatik, 4.9 irudian ikusiko dugu zer neurritan mintzatzen diren euskaraz horietako bakoitza, adin tarte bakoitzean banaturik: haurrak (2-14 urte bitartekoak), gazteak (15-24), helduak (25-64) eta adinekoak (65 urtetik gorakoak).



**Irudia 4.9** Euskara erdararen pare edo gehiago darabiltenen bilakaera, adin-taldeen arabera eta ehunekotan

**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

4.9. Irudiak zintzo erakusten du gazteenak, euskara ezagutzen duen talderik mardulena ez ezik, euskara gehien darabilen taldea dela ere bai (%18.3). Ondoren, gaztea deritzon taldea litzateke euskara gehien darabilen bigarren taldea, zeinak goia jo eta mantentze horretan beherantz egin duen puntu osoa (12.3%). Gazteen joera berdintsuarekin ari da helduen taldea, diskretuki egin baitu puntu erdia behera (%11.5). Azkenik, hizkuntzaren erabileran goitik behera maldan behera datorren taldea da adinekoena: 1989an %13.7 eta 2016n %8.1 duena.

Datuek adierazten dute euskararen erabilerak goia jo duela oraino erabili diren baliabideekin eta ustiatu diren estrategiekin. Belaunaldi berriengan eta gazteengan jarri izan da fokua eta esperantzarik handiena. Euskararen irakaspenean eta ezagutzan egin da apustu eta datuok erakutsi dute noraino iritsi eta eragin ahal izan den. Emaitzak ez dira txarrak izan, baina erabilera-datuei begira, bereziki azken bi neurketei so eginik, datuok indartzen dute Amonarrizek (2017) aipatutako ziklo amaiera, bidegurutzean garela eta estrategia berriak martxan jarri behar direla euskal elkarte, instituzio eta jendartearekin adostasunean. Tolosarrak argi dauka, eta sostengua eman dion pertsonetako bat izan da euskaren erabileran eragiteko proposamena ekartzeko: Euskaraldia.

Euskaraldia hizkuntza-ohituretan eragiteko eta erdaretan komunikatzeko inertziekin eteteko ekimena da, euskaingintza-elkarteek, -eragileek eta norbanakoek bultzaturikoa. Hizkuntza-jardunak aldatzearekin batera, euskal hiztunen aktibazioa lortu nahi da. Ariketa sozial gisa definitua izan da, Euskal Herri osoan herritarrak bi roletatik bat hartu eta paparrean itsatsirik hamaika egun, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3 bitarte, eusteko: belarriprest edo ahobizi.

Lehenengoak rol pasiboagoa izango luke, hau da, niri euskaraz hitz egin, ulertuko dizut, gonbitea. Belarriprestak belarria prest, horixe da funtzio nagusia: mintzakidea bultzatzea hari euskaraz hitz egiten. Belarriprestak euskaraz ala erdaraz erantzungo du, baina mintzakideari euskaraz mintzatzen utziko dio. Ez du hizkuntza-gaitasunarekin zerikusirik, gehiago du jarrerarekin.

Bigarrenak rol aktiboagoa izango luke, hizkuntza-kontzientzian oinarritutako euskarazko jarduna izango litzateke. Hau da, hamaika egun horietan, bederen, lehen hitza euskaraz izatea eta euskararen erabilera aktiboari ahal bezainbeste eustea. Hizkuntza-gaitasuna

alboratu eta jarrera aktiboa eskatzen da, hiztunak dituen euskarazko lanabesekin komunikatzeko prestutasuna.

Ekimena Euskal Herri osoan hedatu baino lehen, Lasarte-Oria herri gipuzkoarlean martxan jarri zen lehenik 2016. urtean, “Baietz 40 egun euskaraz! Irten armairutik!” goiburupean. Ariketa praktiko, sozial eta kolektiboan parte hartzera gonbidatu zituzten lasartearrak euskaraz ulertzen edo hitz egiten zuten herritarrak belarriprest eta ahobizi roletan. Ariketa sozialean 2.000 pertsona inguruk hartu zuten parte, eta esanguratsuak izan ziren lortutako emaitzak. Ahobizien artean, %62 euskaraz mintzatzen zen haien harreman-saretan, eta astebeteko erronkaren ondoren kopurua %84ra igo zen. Handik hiru hilabetera, harrigarriki, %81ak eusten zion euskaraz hitz egiteko ohiturari.

Euskaraldiaren bigarren edizioa ospatuko da 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra, hizkuntza-ohiturak iraultzeko helburuarekin berriz ere. Hamabost egungo iraupena izango ditu bigarrenak, eta aurrekoan erantzunkizuna norberarena izan bazen, oraingoan, taldekako ariketak ere izango dira erdigunean. Banakako harremanak soilik ez, taldeengan eragiteko helburu bikoitza du; hau da, Euskaraldiaren bigarren edizioak asmo du pertsonen ez ezik deialdia entitateei, enpresei, administrazio publikoari, herrietako asanbladei, kultur- eta kirol-taldeei ere luzatzea. Dinamikak sakondu eta zabaltzea, ekimenera partaide gehiago bildu, eta bi rolen ezaugarriak finkatzea. Teorian hori izan da planteamendua; halere, koronabirusaren astinduak dinamikaren berregituratzea ekarri du 2020ko edizioan, eta ziurrenera eragin negatiboak izan ditzake mugimenduan. Era berean, azken aipu gisa, tesi-ikerketak honek babesten eta bultzatzen ditu hizkuntza gutxiagotuen biziberritze eta normaltze mugimenduak; dena den, ezin dena borondatez eskatu biztanleriari, eta instituzio eta gobernuen aldetik lege-babesaren behar gorria dute ekimenok, azken finean, hizkuntzaren normalizazio osoaren beste aldarrikapen bat baita. Horri erantzuna eta babesa emateko betebeharra du legeak.


### 4.1.3. Heziberri hezkuntza-plana

Heziberri 2020 Planaren bitartez Eusko Jaurlaritzak aurretiaz onartutako Oinarrizko Hezkuntzaren kurrikulua zehaztu nahi du, EAEn 2015/236 dekretua ezarritakoa, alegia (Eusko Jaurlaritza, 2015). Kurrikuluaren osaera “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoan” oinarritzen da, hots, gaitasunetan oinarritutako hezkuntza-ikuspegian.

Kurrikuluak zehaztapenak dakartza Oinarrizko Hezkuntza etapetan iradokitako planteamenduetan: arloetan, helburuetan, eduki multzoetan, ebaluazio-irizpideetan, lorpen-adierazleetan.

Horiek guztiak lagungarri edo bideratzaile dira oinarrizko gaitasunak eta zehar-gaitasunak eskuratzeko, eta irteera-profilak iradokitzen dira etapa ororen amaieran; gainera, euskal kurrikuluaren ezaugarriak, helburuak eta edukiak txertatzen dira zenbait ataletan.

Ikasleen irteera-profila zehazten da kurrikuluaren ikuspegi orokorra azaltzerakoan, Oinarrizko Hezkuntza bete eta zerrendatutako helburuak erdietsi ote diren azaltzen da, berariazko metodologia- eta ebaluazio-alorrak zehazteko. Hori laburbiltze eta hobeto ulertze aldera, behean atxiki da Heziberri2020 Planaren gidalerroa eta bizkarrezurra.



Irudia 4.10 Oinarrizko hezkuntza-kurrikuluaren bizkarrezurra

Iturria: Eusko Jaurlaritz, 2015

Esan bezala, kurrikulua oinarrizko gaitasunetan eta zehar-kompetentzien lanketan, trebatzean, oinarritzen da, eta oinarrizko hezkuntzako ikasleen irteera-profil orokorrak zehaztu nahi ditu, ondoren, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaiturik, ikasleak bizitzako egoera eta alorretan egoki moldatzeko nahikoa prest izateko. Helduarora iritsita, behar-beharrezkoak diren kompetentzien garapenean bereizten da Heziberri, testuinguru ezberdinetara moldagarri eta aplikagarri izango den trebeziaren lanketan, edozein delarik herritarraren kondizioa. Orriotan ez ditugu gaitasunak eta zehar-

konpetentziak bana-bana azalduko, Interneten eskuragarri baitago dokumentua zehaztapen-maila handiagoa nahi duenarentzat (ikus Lehen Hezkuntzako Kurrikuluma).


### 4.2. Nafarroako Foru Komunitatea

Honako azken atalean, EAEn azaldu bezala, hiru alor izango ditugu hizpide: hasteko, hezkuntza-sarea eta ereduak; ondoren, hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak; bukatzeko, hezkuntza-plana.

#### 4.2.1. Hezkuntza-sarea eta -ereduak

Nafarroako Foru Komunitateak Euskal Autonomia Erkidegoak ereduak eskaintzen ditu, nahiz eta zenbait ezaugarri arrunt ezberdintzen duten elkar. Hasteko, maiatzaren 19ko 1988/159 Foru Dekretuaren galbahetik pasatzen da euskaren irakaskuntza unibertsitate aurreko irakaskuntza osoan. Lege horren irakurketak baldintzatzen du Nafarroako zonaldearen arabera hizkuntza-eredu batzuk eskaintzea eta beste batzuk legez kanpo uztea. EAEko eredu linguistiko berdinak eskaintzen dira: A, B, D eta G (EAEn "X" eredu gisa ezaguna).

Ezberdintasun handiena eta baztertu ezina den kalapita sozial eta politikoa dakarrena, hizkuntza-ereduak hiru eremuetan euskararen presentziagatik legezkatzea da eta euskararen ofizialtasuna eremuaren arabera izatea. Hau da, Nafarroako mapa hiru zatitan banatzen da euskararen arabera. Neurria Euskararen Foru Legeari dagokio, 1986an onartutakoa, eta horren anbiguetateak ahalbidetzen



**Irudia 4.11** Nafarroako zonifikazio linguistikoa

**Iturria:** Nabarlur, 2017

du Nafarroako Foru Komunitatean honako hiru eremutan hizkuntza zatitzea: eremu

euskalduna berdez, iparraldean, eremu mistoa horiz erdialdean eta eremu ez-euskalduna gorritz, hegoaldean (ikus 4.11. irudia). Eremu euskalduna da euskara ofiziala den eremu bakarra. Eta legearen arabera, honako hizkuntza-ereduak ematen dira eremu bakoitzean:

- Eremu euskaldunean: A, B eta D.
- Eremu mistoan: A, B, D ta G ereduak.
- Eremu ez-euskaldunean: A eta G.

\*Honi gaineratu behar zaio PAI eredu indarrean jarri zela 2000. urtetik aurrera, A eta D ereduetan nagusiki.

Eskolatzte-matrikulazioari dagokionez, Nafarroako biztanleek zonifikazioaren arabera eskolatzearen eredu-eskaintza ezberdina dute. Hori kontuan izanik, Nafarroako Gobernuak *nastatek* (Nafarroako Estatistika Erakundeak) emaniko datuak bildu ditugu 4.12. irudian, ikasleen eskolatzte-eredua 2014/2015 ikasturtetik 2017/2018 artean (ikus irudia).



**Irudia 4.12** Nafarroako ikasleen eskolatzte-eredua 2014-2018 artean


**Iturria:** nastat, 2020

Goiko irudiak azaldu bezala, urtez urte kopuruak berdintsu mantentzen dira, gorabehera handirik gabe. Ikasleen matrikulazio-eredu hedatuena, inolako zalantzarik gabe, G eredu da, euskararik gabeko eredu, alegia. Bertan, 2017/2018 ikasturtean % 66.67k eman zuen

## 4.2 Nafarroako Foru Komunitatea

izena Lehen Hezkuntzan; ondoren, bigarren eredurik hautatuena, edonola ere urrun aurreko ereduaren kopurutik, D eredia izango genuke, non ehunetik 17 ikaslek eman zuen izena. Jarraian, A eredia litzateke, D ereduarekin nahiko kopuru parekatuak dituen: % 14.59. Azkenik, B eredia topatuko genuke, oso kopuru txikiak urtez urte, azken datuetan ikasle nafarren % 0.65ak izena emanik.

Oraingo honetan, matrikulazio-kopuruei begiratuko diegu, baina eskola-sarearen galbahetik. EAEko hezkuntza-sisteman bezala, bi sare nabarmentzen dira: publikoa eta pribatua (kontzertatua ezizenez ezaguna ere bai). Datuok 4.13. irudian ikusgai.



**Irudia 4.13** Nafarroako ikasleen matrikulazioa sarearen arabera

**Iturria:** nastat, 2020


Azken lau urteetako matrikulazio-datuak ikusgai dira bata bestearen ondoan. Gorabehera gutxi dago, oro har, aldaketarik izan baldin bada, eskola pribatuak puntu eta erdiko matrikulazioa galdu du. 2017/2018 ikasturteko matrikulazioei erreparatuz gero, ehunetik 71 ikasle matrikulatu da eskola publikoan, eta 29 inguru eskola pribatuan. Ehunekoak EAEkoekin konparatuta, Nafarroako eskola publikoak hogeituneko matrikulazio-tasa handiagoa dauka EAEkoak baino.

### 4.2.2. Hizkuntza-ezagutza, -jarrerak eta -erabilerak

Atal honetan, EAEko atalean egin bezalaxe, Nafarroako biztanleen hizkuntza-ezagutza, -jarrera eta erabilerei buruzko datuak papereratuko ditugu. Arestian esan bezala,



zonifikazioak hiru eremutan zatitzen du Nafarroa ipar, erdi eta hego. Horiek hizpide, nafarren euskara-ezagutza emango dugu aditzera, aurrez erabilitako goiburu antzekoak ekarrita: euskaldunak, euskaldun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak (ikus 4.14. irudia).




**Irudia 4.14** Euskara-ezagutza zonifikazioaren arabera

**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskararen ezagutzaren berri ematen digu zonaldeka, eta argi erakusten du eremu bakoitzeko eskolatzere-ereduek isla dutela, ezin bestela izan, biztanleen euskara-ezagutzan. Aurrean zitekeenez, eremu euskaldunean dago euskal-ezagutzarik handiena: % 61,1 da euskalduna eta % 26 euskaldun hartzaile edo pasibo, ehunetik 13 soilik lirateke erdaldun. Eremu mistoan, aldiz, euskaldunen kopuruak behera egiten du izugarri, ehunetik hamaika euskaldun izanik soilik; euskaldun hartzaile edo pasiboak puntu bat gehiago izango luke (% 12), eta ehun biztanletik 77 erdaldun elebakar leudeke. Eremu ez-euskaldunean, euskaldun-kopururik baxuena dago, soilik % 3 litzateke euskalduna, eta % 7 euskaldun hartzaile. Eremu ez-euskaldunean hamar pertsonatik bederatzi dira erdaldun elebakar.

Ondorengo 4.15. irudian, Nafarroako euskal hiztunen bi momentu konparatuko dira adinaren arabera: 1991 eta 2016koak. Bi horietan azken hamabost urteotako bilakaera ikus daiteke modu grafikoan.




**Irudia 4.15** Euskal hiztunak adinaren arabera Nafarroan (1991n eta 2016n)

**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Duela hamabost urteko datuetan ikus liteke euskararen ezagutza %10 inguruan zebilela adin-tarte guztietan. Azken datu-jasoketan, aldiz, belaunaldi gazteenek dute euskararen ezagutzarik handiena, eta ezagutzak behera egiten du adinean gora egitearekin batera. Euskal alfabetatzearen isla izan daitezke D ereduak eta euskaltegiak.

Euskara ezagutzetik, euskara-erabilerarako jauzia egingo dugu azken bi irudiotan. Horretarako, datuak bata bestearen ondoan jarriko dira hiru eremuetatik bakoitzean euskararen erabilera ehunekotan islatzeko 1991n, 2001en, 2011n eta 2016n (ikus 4.16).




**Irudia 4.16** Euskara erdararen pare edo gehiago darabiltenen kopurua ehunekotan, zonifikazioaren arabera (1991, 2001, 2011 eta 2016)

**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hiru eremuei erreparatuta, sekulako ezberdintasunak nabari dira euskararen erabileran. Hasteko, eremu ez-euskaldunean euskararen erabilerarik ez dago, eta eremu mistoan oso bazterrekoa da. 2011ko erabilera-datuak bikoizten ditu 2016an jasotakoak: %3.2. Eremu euskaldunean, baina, euskara erabili egiten du biztanleriaren erdiak, 2016ko azken datuen arabera; halaber, badirudi goranzko joera apala duela euskarak eremu euskaldunean, izanik %46.8koa 1991n eta %50.7koa 2016n.

Ondorengoa izango da azken irudia, eta bertan, aurreko euskara-erabilerari buruzko datuetan sakondurik, behatuko dugu azken mende laurdenean Nafarroako euskal hiztunen bilakaera ehunekoetan eta adin-taldeka sailkaturik, euskaraz erdaraz bezainbeste edo gehiago mintzatzen ote diren ikertu nahirik.



**Irudia 4.17** Euskara erdararen pare edo gehiago darabiltenen bilakaera ehunekoetan, adin-taldeen arabera


**Iturria:** VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

4.17. irudiko datuek erakusten dute haurrak direla euskaraz gehien mintzatzen direnak, EAEn jaso bezala, halere, kopuru apalagoekin (% 8.6); edonola ere, joera gorabeheratsua islatzen du, izanik 1991koak kopuru altuenak (% 10 inguru), beheranzko eta mantentze joera hamarren bat urteren ondoren eta berriz ere gora azken neurketan. Joera berdintsua erakusten du gazteen taldeak, izanik 1993 inguruan punturik gorena (% 7.1), behera egin apur bat eta berriz ere gora azken neurketan % 6.6raino. Goranzko joera du helduen multzoak, hasi % 5.3an eta bukatu % 6.6an. Zaharreen taldeak, aldiz, goitik beherako joera dauka, nahiz eta azken neurketan apur bat gorago egin duen % 3.9raino.

### 4.2.3. Hezkuntza-plana

Nafarroako Foru Komunitatearen Lehen Hezkuntzako plana 2014/60 Foru Dekretuan zedarritutako zehaztapenen arabera da, izanik abenduaren 9ko 2013/8 Lege Organikoaren hezkuntza kalitatearekin lotutako hobekuntza. Maiatzaren 3ko 2006/02 Hezkuntza-Lege Organikoa ordeztu zuen (ikus Lehen Hezkuntzako Kurrikuluma).

Legearen arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio kurrikulu basikoaren ezaugarriak zehaztea, hala nola, helburuak, gaitasunak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta ikasleak eskuratu beharreko gutxiengo maila behagarrian. Kurrikuluaren antolamenduari begira, honako bitan egituratzen dira: batetik, enborrekoetan; bestetik, espezifikoetan (ikus 4.18. irudia). Lehenengoaren helburua da ezagutza eta gaitasunak eskuratzea eta, gainera, hezitzaileak izatea, etorkizuneko etapetan gehigarri, aberasgarri eta ebaluatzea posible izatea etapa bakoitzaren amaieran. Bigarrenarena, aldiz, malgutasunean datza, ordutegiak eta edukien zehaztasunak nahieran egokitzeko ikasguneko beharrezanen arabera; esaterako, ikastetxeak berak sortu eta egokitutako ikasgaiak.



**Irudia 4.18** Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako kurrikulum-edukiak arloka

**Iturria:** Nafarroako Lehen Hezkuntzako Kurrikuluma, 2014

Aurrez esan bezala, Lehen Hezkuntzako Oinarrizko kurrikuluma eduki-bloketan, gaitasunetan, ebaluazio-irizpidetan, eskuratu beharreko gutxiengo maila behagarrian oinarritzen da, helburu izanik irakaslea eta haren eskarmentua kurrikuluaren planifikazio

taxutua eta gaitasunen eskuratze orokorra ahalbidetzea. Gaitasunak zazpi dira, irizpide harturik Europako Batasunak eta haren Hezkuntza-Sailak (2006/962/EC) emaniko gaitasunen etengabeko ikaskuntzaren gidalerroak. Kurrikuluak zehaztu legez, gaitasunak ikasleak garatu beharreko iaioitasun praktikoak dira, ezagutza orokorrak, motibazioa, etika-balioak, jarrerak, emozioak eta sozializatorako osagaiak bultzatuko dituztenak, jomuga izanik horien guztien elkarlana ekintzak aiseago eta eraginkortasun handiagoz erdiestea. Era berean, kurrikuluan iradokitzen duen ikasbidea praktikan oinarritutakoa da, parte-hartze aktiboan eta berdinen arteko hartu-emanetan, hezkuntza-alor formalean, ez-formal eta informalean lekua izanik.

Nafar kurrikuluak gaitasunak “egiten jakin” gisa ulertzen ditu, akademia-testuinguru anitzetara, sozializazio-esparruetara eta profesionalera egokitu beharreko konpetentzia modura. Egokitze-lan horretan transferentzia beharrezkoa da, eta, hori dela-eta, edukiek eman dezaketen ezagutza gaitasunetan oinarritzen da, abilezia praktikoekin lotura zuzenekoak. Berritasunak berritasun, bestea hezkuntzaren ebaluazio norbanakotua litzateke. Horren bitartez, gaitasunen trebatze- eta lantze-prozesuak ebaluatuko lirateke Lehen Hezkuntzako etaparen erdian eta amaieran. Azken finean, kurrikulu berrituak honakoak bilatzen ditu: gaitasun-bidezko ikaskuntza integratua eta norbanakotua. Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntzak beste ezaugarri batzuk ditu: zeharkakotasuna, dinamikotasuna eta izaera integrala. Irakas eta ikaskuntzaren giltzarrietako bat da ikuspegi anitzetatik eta diziplina ezberdinak integratzea. Gaitasunak ez dira momentukoak, ikaslearen bizitzan egokitzeko eta ikasten jarraitzeko lanabestzat hartzen ditu. Lehen Hezkuntzan, gakoa izango da ikasleak klasetik kanpo topatuko dituen erronka eta errealtate zailei erantzuna ematea, ikasitako ezagutza aplikatu ahal izateko.

## 5. METHODOLOGY

In the previous chapters, details about the nature of the beliefs around multilingualism and language teaching methodologies have been discussed as well as a brief summary of the sociolinguistic situation in the Basque Country and the educational system in the BAC (Basque Autonomous Community) and the Chartered Community of Navarre. This chapter will be divided into eight subchapters. The first will be about the research questions and the objectives of the thesis. The second will discuss the design of this project and its characteristics. In the third subchapter, the sample of the research study will be explained and the dependent and the independent variables will also be discussed focusing on the three target groups: the in-service teachers, the future teachers and the university teachers. In the fourth subchapter, details about the analysis of the data will be given. Here, the procedure about the codification of the two sources of the data, qualitative and quantitative, will be summarized. In the sixth subchapter, the validity and reliability criteria will be explained. The seventh and last subchapter will elaborate on some of the ethical issues of this research project.

### 5.1. Research questions and objectives

The main focus of this research study is to analyze teachers' beliefs towards multilingualism and language teaching methodologies in the BAC and Navarre (henceforth referred to together as Hegoalde). Understanding teachers' beliefs about languages and methodologies allow us to comprehend deeper their daily teaching reality. In other words, the more we know about teachers' beliefs, Basque educational needs and challenges, the more comprehensive picture we might construct. Hopefully, this investigation may help to reach more reasonable and achievable educational goals. Despite the complex nature of beliefs, the main aim of the research questions was to be able to present initial conclusions in order to construct basic knowledge about the most significant features of the phenomenon under study. In this project, the following research questions will be answered.

1. What beliefs do teachers hold about multilingualism?

### 2. What beliefs do teachers hold about language teaching methodologies?

Each time the word *teacher* is mentioned in the text it can refer to in-service teachers, future teachers or university teachers because those are the three groups that were investigated. However, it must be highlighted that the main emphasis of the study will be on the in-service teachers because they are considered the most relevant group when researching teachers' beliefs. In fact, the two research questions will be treated in separate subchapters for each group, and in an additional subchapter, the quantitative results for the three groups together will be compared and contrasted. Thereafter, the quantitative data will be reinforced with qualitative data obtained from four focus group discussions held with in-service teachers from the four Basque territories of Hegoalde (Araba, Biscay, Gipuzkoa and Navarre).

To answer the two research questions, the following general and specific objectives were set.

#### General objectives:

1. To comprehend teachers' constellation of beliefs towards multilingualism.
2. To understand teachers' beliefs towards language teaching methodologies.

#### Specific objectives:

3. To evaluate teachers' beliefs about multilingualism.
4. To explore the various background variables on the teachers' beliefs towards multilingualism.
5. To evaluate teachers' beliefs about language teaching methodologies.
6. To explore the various background variables on the teachers' beliefs towards language teaching methodologies.
7. To identify the teachers' most preferred and most used language teaching methodologies and make comparisons with the beliefs about methodologies.

To look for correlations between the means of the beliefs about multilingualism and methodologies.



## 5.2. Research design

This study is mainly quantitative; even though, the qualitative data from the focus groups are used to contrast the quantitative in order to deepen the understanding. The selection of both data collecting techniques, online questionnaires and focus group discussions, will offer a richer insight into teachers' beliefs from an exploratory perspective and offer a more holistic comprehension of its complexity. The research purpose of this study is mainly exploratory and also descriptive at certain research stages. The most important objective is to gain a higher understanding of teachers' beliefs regarding multilingualism and language teaching methodologies.

